OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 1 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Eusko Jaurlaritza- Garraio Plangintzaren Zuzendaritza<br>Gobierno Vasco- Dirección de Planificación del Transporte |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 22/03/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Eskatzen da LPPan jasotzeko EAEko 2017-2028 III. Errepide Plan Orokorrean errepideen inguruan jasotzen diren proposamenak Dokumentu horren Aurrerapena idazteko fasean dago. Errepide Plan Orokorraren diagnostikoa egin da, jarduteko irizpideak eta jarduteko beharrak. Baliabide ekonomikoak eta lehentasunak kontuan hartuta, plana indarrean egongo den bitartean proposatzen diren jarduerak zehazten dira.

Proposatzen da LPPan honako jarduera hauek sartzea:

- Bolue Unibertsitateko eskuinaldeko sarbide osagarria, autobia ezaugarriekin, behar besteko ahalmenik ez daukan bide baten eskakizunei erantzuteko.

- Errekaldeko saihesbidea eta

Resumen de la sugerencia:

Se solicita que se incorporen al PTP las propuestas en materia de carreteras que se recogen en el III Plan General de Carreteras del País Vasco 2017-2028. Este documento se encuentra en fase de redacción del Avance. Se ha realizado el diagnóstico del PG de Carreteras, los criterios de actuación y las necesidades de actuación. Teniendo en cuenta los recursos económicos y las prioridades, se determinan las actuaciones que se proponen para el plazo de vigencia del mismo.

Se propone que se incorporen al PTP las siguientes actuaciones:

- Acceso complementario de la margen derecha Bolue Universidad, con características de autovía para responder a la demanda de un itinerario que carece de la capacidad suficiente.

- Variante de Rekalde y demolición del

zubibidearen eraispena, hirigintzako integrazio arrazoiengatik.

- BI-628ko Kueto Galindo tarteko galtzada bikoiztea, Ballontiko korridorearen funtzionalitatea osatzeko.
- N-637ko ahalmena handitzeko jarduketa. Lamiakoko Zeharkako ardatza da emaitzarik onenak dituen irtenbidea zerbitzu mailak hobetzeko eta denborak murrizteko. Jarduketaren konplexutasun itzela dela eta, eta bideragarria izateko dauden arazoak direla eta, ez dirudi egingarria denik planaren horizonte tenporalean gauzatzea, eta, ondorioz, neurri txikiagoko beste jarduketa batzuk sartzea proposatu da:
  - Kukularra eta Gurutzetako garraio trukagailuak hobetzea.
  - Arrontegiko zubiaren edukiera handitzea.
  - Axpeko zubi berria, Ballontiko ardatza (BI-628) eskuinaldearekin konektatzeko.

viaducto, por razones de integración urbana.

- Duplicación de calzada del tramo Kueto Galindo de la BI-628, completando la funcionalidad del corredor del Ballonti.
- Actuación de ampliación de la capacidad de la N-637. El Eje Transversal de Lamiako es la solución con mejores resultados en la mejora de niveles de servicio y reducción de tiempos. Dada la enorme complejidad de esta actuación y la dificultad de su viabilización, no parece factible ejecutarla en el horizonte temporal de plan, por lo que se ha previsto incluir otras actuaciones de menor envergadura:
  - Mejora de los intercambiadores de Kukularra y Cruces.
  - Aumento de capacidad del Puente de Rontegi.
  - Nuevo puente de Axpe para conectar el eje del Ballonti (BI-628) con la margen derecha.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira jasotako iradokizunak, eta kontuan hartuko dira BM LLParen hasierako onespenerako dokumentuaren erredakzioan. Dokumentuak EAEko 2017-2028 III. Errepide POarekin zein Bizkaiko Errepideen LPSarekin

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las sugerencias recibidas que serán tenidas en cuenta en la redacción del documento para aprobación inicial del PTP BM. Este documento buscará la coherencia tanto con el III PG de Carreteras del País Vasco

koherentzia izatea bilatuko du.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da BMLPParen izaera bestelakoa dela, errepideen plangintza sektorialeko tresnei dagokienez. BM LPPak lurraldearen ikuspegi integrala dauka, ikuspegi estrategikoagoa, eta ez dago bideratuta soilik aurreikusitako jarduketak gauzatzeari, eta beste indarraldi bat dauka gainera. Horrek eragin dezake hainbat aurreikuspen, esaterako, Lamiakoko zeharkako ardatzarena, guztiz bat ez etortzea.

2017-2028, como con el PTS de Carreteras de Bizkaia.

No obstante, hay que tener en cuenta el diferente carácter del PTP BM en relación a los instrumentos de planificación sectorial de carreteras. El PTP BM tiene una visión integral del territorio, una visión más estratégica y no estrictamente orientada a la ejecución de las actuaciones previstas y un plazo de vigencia diferente. Esto podría suponer que algunas previsiones, como por ejemplo las relativas al Eje transversal de Lamiako, pudieran no ser plenamente coincidentes.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 2 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Portugaleteko Udala<br>Ayuntamiento de Portugalete |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 06/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Dokumentuari hainbat zuzenketa zehatz planteatzen zaizkio, LPParen aurrerapenaren kartografiari dagokionez, zeinek Portugaleteko udalerriari eragiten dioten. Planteatutako gaiak honako hauek dira:

- 01. Planoa: dibertsitatea kontserbatzeko interesgarri moduan grafiatu dira hainbat eremu, eta Portugaleteko Udalaren iritziz, horiek ez dira LPParen eskalan markatuta agertzeko bezain garrantzitsuak. Espazio libreak dira, eta eremu horren garapena Plan Berezi baten mende dago, garajeen estalkiko espazio libreak eta neurri txikiko espazioak.

- 02. Planoa: hiri baratzeak kokatzeko gune egoki moduan grafiatu da bizitegirako lurzoru urbanizagarriaren zati bat (SUZ 1R Vicios), eta hori kendu egin behar da. Trantsizioko landa lurraren kategorian bideen sistema

Resumen de la sugerencia:

Se plantea una serie de correcciones concretas al documento en base a la cartografía del Avance del PTP, que afectan al municipio de Portugalete. Las cuestiones planteadas son las siguientes:

- Plano 01: se grafían como áreas de interés para la conservación de la diversidad una serie de zonas que el Ayuntamiento de Portugalete considera que no tienen entidad suficiente como para que aparezcan señaladas a escala del PTP. Se trata de espacios libres en un ámbito cuyo desarrollo depende de un Plan Especial, espacios libres en la cubierta de garajes y espacios de reducida dimensión.

- Plano 02: se grafía como una zona apta para la implantación de huertos urbanos, parte de un suelo urbanizable residencial (SUZ 1R Vicíos), que debe ser excluida. La categoría de suelo rural de transición incorpora suelo

orokorrera zuzendutako lurra sartu da, eta hori baztertu egin behar da, eta kategoria horretan sartu behar dira Portugaleteko udal planeamenduko SG-EL-20 eta SG-EL-22 sistema orokorrak.

- 03. Planoa: ez da ulertzen zergatik markatzen den "bizitegi ahalmen neurrigabeari" dagokion puntuarekin exekutatu gabeko lur urbanizagarri baten eta kirol ekipamendura zuzendutako baina garatu gabeko lurzoru baten arteko muga.

- 04. Planoa: planteatzen da degradatutako eta babestutako zona guztien zehaztapenetan sartu behar direla eraikuntzak zein lotutako espazio libreak. Irizpide horri jarraitzen zaio Grupo El Progreson eta Poblado Babcock-Wilcoxen, baina Grupo Villanuevan ez.

- 05.1 Planoa: banaketa sarean ez dira sartu Ballontiko ardatzean gauzatu gabe dauden zatiak, eta gogorarazten da lehentasunezkoa dela aipatu banaketa sare hori osatzea, gaur egun hirigunean eta Portugaleteko sarbide nagusian gertatzen den kolapsoa saihesteko.

- 05.3 Planoa: ez da sartu dagoeneko existitzen den bizikleta bidea, Ballontiko ardatzarekiko paralelo doana.

destinado a sistema general viario, que debe ser excluido, y se deberá incorporar en esta categoría los sistema generales SG-EL-20 y SG-EL-22 del planeamiento municipal de Portugalete.

- Plano 03: no se comprende por qué se señala con el punto correspondiente a "exceso de capacidad residencial" el límite entre un suelo urbanizable no ejecutado y un suelo con destino de equipamiento deportivo sin desarrollar.

- Plano 04: se plantea que en todos los casos la delimitación de las zonas degradadas y protegidas tienen que incluir tanto la edificación como los espacios libres vinculados. Este criterio se sigue en el Grupo El Progreso y en el Poblado Babcock-Wilcox, pero no en el Grupo Villanueva.

- Plano 05.1: no se incluye en la red distribuidora los tramos del eje del Ballonti que faltan por ejecutar y se recuerda que es prioritario completar dicha red distribuidora para evitar el colapso del casco urbano y el acceso principal a Portugalete que se produce en la actualidad.

- Plano 05.3: no se incorpora el carril bici existente que discurre paralelo al eje del Ballonti.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira Aurrerapenaren dokumentuari egindako iruzkinak eta ekarpenak, eta,

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen los comentarios y aportaciones realizadas al documento de Avance, sobre el

planteatutako gaiei dagokienez, hau da erantzuna:

- 01. Planoa: zuzenketa horiek kontuan hartuko dira, dokumentuaren erredakzioaren hurrengo fasean zuzentzeko.

- 02. Planoa: beharbada, hiri baratzeen proposamena berriro planteatu behar da, izan ere, LPParen irizpide nagusietatik abiatuta, udalek beraiek garatu beharko lituzkete, egokientzat jotzen dituzten lurzoruetan.

  Hautemandako akatsa jaso da, eta dokumentuaren erredakzioaren hurrengo fasean zuzenduko da. Edonola ere, LPPak bere araudian adieraziko du indarrean dagoen planeamenduaren kalifikazioa nagusitzen dela.

- 03. Planoa: dokumentuaren erredakzioaren hurrengo fasean bizitegi ahalmen neurrigabekoa markatzen duen puntuaren kokapena berraztertuko da.

- 04. Planoa: egiazki, ordezgarritasun irizpidea berbera izan beharko litzateke kasu guztietan, eta, beraz, Grupo Villanuevako esparruaren azalera guztia ere itzaleztatu liteke.

- 05.1 Planoa: iradokizunean identifikatutako tartearen omisioa marrazkiaren akats bati zor zaio, eta dokumentuaren erredakzioaren hurrengo fasean zuzenduko da.

que en respuesta a las cuestiones planteadas se contesta lo siguiente:

- Plano 01: Se tendrán en cuenta estas correcciones para su subsanación en la siguiente fase de redacción del documento.

- Plano 02: Quizá haya que replantearse la propuesta de huertos urbanos, que, partiendo de unos criterios generales del PTP, deberían desarrollarse por los ayuntamientos en los suelos que estimen más convenientes.

  Se toma nota del error detectado, que será subsanado en la siguiente fase de redacción del documento. En todo caso el PTP señalará en su normativa que prevalece la calificación del planeamiento vigente.

- Plano 03: Se revisará la localización del punto que indica el exceso de capacidad residencial en la siguiente fase de redacción del documento.

- Plano 04: Ciertamente el criterio de representación debería ser el mismo en todos los casos, por lo que podría sombrearse también toda la superficie del ámbito del Grupo Villanueva.

- Plano 05.1: La omisión del tramo identificado en la sugerencia responde a un error en el dibujo, que será subsanado en la siguiente fase de redacción del documento.

- 05.3 Planoa: aipatutako bizikleta bidearen tartean kontuan hartuko da, eta dokumentuaren erredakzioaren hurrengo fasean sartzea baloratuko da.

- Plano 05.3: Se tendrá en consideración el tramo de carril-bici mencionado sobre el que se valorará su inclusión en la siguiente fase de la redacción del documento.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 3 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Eusko Jaurlaritza- Etxebizitzako Sailburuordetza<br>Gobierno Vasco- Viceconsejería de Vivienda |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 06/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Idazkiak Euskadiko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen, maiatzaren 31koaren, 12 artikuluan ezarritako xedapenak aipatzen ditu, etxebizitza publikoa sustatzeko gorde beharreko lurzorua kuantifikatzeari dagokionez. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 82 artikuluan ezarritako xedapenak aipatzen ditu, udalerriek lurzorua gordetzeko betebeharrari dagokionez nolabaiteko babes publikoko araubidearen mendeko etxebizitzetarako, etea berdin Lege hori garatzen duen premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa.

Babes publikoko etxebizitza kuantifikatzeari dagokionez, esaten da eremu funtzionalean behar diren etxebizitzak hartu behar direla kontuan, dauden eskaerak kontuan hartuta, besteak beste. Ildo horretan, honako datu hauek ematen dira: Etxebideren 2018ko urtarrileko zerrenden arabera, eremu funtzionalean 43.156 eskaera daude etxebizitza babestuetarako, eta horietatik 34.333k (%80) alokairua eskatzen dute.

Resumen de la sugerencia:

El escrito hace referencia a las determinaciones establecidas en la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco en su artículo 12 en relación a la cuantificación de suelo que se debe reservar para la promoción de vivienda pública. Señala las determinaciones establecidas en el artículo 82 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo en relación a la obligación de los municipios de reservar suelo para vivienda sometida a algún régimen de protección pública, y su desarrollo en el Decreto 105/2008, de 3 de junio de medidas urgentes.

En relación a la cuantificación de vivienda de protección pública se señala que se deberán tener en cuenta las necesidades de vivienda existentes en el área funcional (AF), considerando entre otros la demanda existente. En este sentido se incluyen los siguientes datos: Conforme a los listados de enero de 2018 de Etxebide, hay una demanda de 43.156 solicitudes de vivienda protegida en el AF, de las cuales 34.333(80%) solicitan alquiler.

29.551 eremu funtzionalean erroldatutako lagunen eskariak dira, eta horietatik 24.315 alokatutako etxebizitza lortzeko dira.

Edonola ere, zera esaten da:

- “Faltan sumatzen da hausnarketaren bat, jarduketa publikoetarako zein udalerri jotzen diren interesgarritzat edo zein lurzoru diren egokienak bizitegi parke babestuaren antolamendua zehazteko.

- Gainera, ez zaie kuantifikazio zehatzik egiten babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko lurzoruen azalerei; eta, kuantifikazio hori ez da lotzen udal plangintza orokorrarekin, ezta 2/2006 Legean aurreikusitako gutxieneko estandarrak betetzearekin ere”.

Azkenik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 81. artikulua aipatzen da, zuzkidurazko etxebizitzei dagokionez, eta zehazten da Barakaldo, Basauri, Bilbo, Erandio, Galdakao, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao udalerriek dutela erreserbatzeko betebehar hori, eta LPParen Aurrerapenak planteatzen duela zuzkidurazko etxebizitzen eskaintza gauzatu gabe dagoen lekuetan osatzea.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira egindako iruzkinak eta ekarpenak eta kontuan hartuko dira dokumentuaren hurrengo fasean.

29.551 son solicitudes de personas empadronadas en el AF, de las cuales 24.315 son para acceder a vivienda de alquiler.

Se apunta, que en cualquier caso:

- “Se echa en falta alguna reflexión respecto a qué municipios son considerados de interés para el desarrollo de actuaciones públicas o a qué suelos son los más apropiados para la ordenación del parque residencial protegido”.

- “Tampoco se hace ninguna cuantificación concreta de las superficies de suelo para la construcción de viviendas de protección pública ni se remite la misma al planeamiento general municipal y al cumplimiento de los estándares mínimos previstos en la Ley 2/2006”.

Por último hace referencia al art. 81 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo en relación a los alojamientos dotacionales, apuntando que la obligación de reserva se rige para los municipios de Barakaldo, Basauri, Bilbao, Erandio, Galdakao, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao, y que el Avance del PTP plantea completar la oferta de viviendas dotacionales en los casos que esté pendiente.

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen los comentarios y aportaciones realizadas que se tendrán en cuenta para la siguiente fase del documento.

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 4 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | AENA- Dirección de Planificación y Medio Ambiente<br>AENA- Plangintza eta Ingurumen Zuzendaritza |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 09/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Gogorarazpen moduan, adierazten da LLPak beharrezko duela Hegazkineria Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena, adierazi den legediaren arabera. Txosten hori derrigorrezkoa eta loteslea da, hasierako onarpenaren aurretik eskatu behar da, eta txostenetik eratortzen diren mugak argi eta garbi jaso behar dira.

LPPrako eta hirigintzako planeamendurako baldintzatzaileak jasotzen dira, Bilboko Aireportuak sortutako aireko zortasunen ondoriozkoak, indarrean dagoen legediaren arabera.

Hirigintzako planeamenduak Aireportuko Zerbitzu Gunea Aireportu Sistema Orokor moduan definitu beharko du, adierazten den legediaren arabera, eta UTM zonako koordenatuen perimetroa jasoz, Bilboko Aireportuko Plan Zuzentzailea onartzen duen 2001eko uztailaren 17ko Aginduaren arabera.

LPPan Bilboko Aireportuko Zortasun Akustikoak jaso behar dira, zeinak Bilboko

Resumen de la sugerencia:

Se indica, a modo de recordatorio, que el PTP deberá contar con el informe favorable de la Dirección General de Aviación Civil, de acuerdo con la legislación que se indica. Este informe tiene carácter preceptivo y vinculante y deber ser solicitado antes de la aprobación inicial, debiendo quedar claramente recogidas las limitaciones que se deriven del informe.

Se recogen los condicionantes para el PTP y para el planeamiento urbanístico, derivados de las servidumbres aeronáuticas generadas por el Aeropuerto de Bilbao según la legislación vigente.

El planeamiento urbanístico deberá definir el ámbito de la Zona de Servicio Aeroportuaria como Sistema General Aeroportuario, conforme a la legislación que se indica, recogiendo el perímetro que figura en coordenadas U.T.M. en la Orden 17 de julio de 2001 por la que se aprueba el Plan Director del Aeropuerto de Bilbao.

Deberá incluirse en el PTP las Servidumbres Acústicas del Aeropuerto de Bilbao aprobadas mediante Real Decreto 55/2018, de 2 de

Aireportuaren zortasun aeronautiko akustikoak, zarataren mapa eta ekintza plana onartzen dituen 55/2018 Errege Dekretuaren, otsailaren 2koaren, bidez onartu diren, Zarataren Mapa Estrategikoaren ordez, eta horien mugapenak gehitu behar dira, lurraldearen gainean kurba isofonoen proiekzioa eginez.

Legezko zortasun aeronautikoen mendeko espazioetan edonolako eraikuntza, instalazio edo eraikitzeko edo landatzeko edozein lan egiteko, aurrez Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren (AESA) aldeko erabakia beharko da, adierazten den legediaren arabera, eta ingurumaria hori planeamenduaren agirietan jaso beharko da.

Salbuespen moduan, AESAk eraikinak edo instalazioak eraikitzea baimendu ahal izango du zortasun aeronautikoek ezarritako mugen gainetik, legez ezarritako baldintzen barruan, baina horretarako jarduketa horien sustatzaileek aeronautikako segurtasun azterketa bat aurkeztu beharko dute.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira jasotako iradokizunak, eta kontuan hartuko dira BM LLParen hasierako onespenerako dokumentuaren erredakzioan, hori izapidetzeko legez ezarritako baldintza eta txosten guztiak aurkeztuko direlarik.

Aireportuko Zerbitzu Gunea Aireportuen Sistema Orokortzat hartzea udalaren hirigintza planeamenduari dagokion erabakia bada ere, BM LPPak aztertuko du zein den modurik egokiena esparru hori lurralderako duen planteamendu estrategikoaren barruan

febrero, por el que se aprueban las servidumbres aeronáuticas acústicas, el mapa de ruido y el plan de acción del Aeropuerto de Bilbao, en sustitución del Mapa Estratégico de Ruido, e incorporar sus correspondientes delimitaciones mediante la proyección de las curvas isófonas sobre el territorio.

La ejecución de cualquier construcción, instalación o medio para la construcción o plantación, en los espacios circundantes sujetos a las servidumbres aeronáuticas legales, requerirá acuerdo favorable previo de la Agencia Estatal de Seguridad Aérea (AESA), conforme a la legislación que se indica, circunstancia que deberá recogerse en los documentos de planeamiento.

Excepcionalmente podrán ser autorizadas construcciones de edificaciones o instalaciones superando los límites establecidos por las servidumbres aeronáuticas, por parte de AESA, dentro de los términos legalmente establecidos, para lo que los promotores de dichas actuaciones deberán presentar un estudio aeronáutico de seguridad.

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las sugerencias recibidas que serán tenidas en cuenta en la redacción del documento para aprobación inicial del PTP BM, cuya tramitación incluirá todos los requisitos e informes legalmente establecidos.

Si bien la consideración de la Zona de Servicio del Aeropuerto como Sistema General Aeroportuario es una determinación que afecta al planeamiento urbanístico municipal, el PTP BM analizará la manera más adecuada para recoger dicho ámbito dentro de su

jasotzeko.

Bilboko Aireportuaren zortasun akustikoei buruzko informazioa eguneratu egingo da.

Halaber, BM LPParen hasierako onespenerako dokumentuaren testuan, aztertu egingo da legedi sektorial aplikagarria jasotzea komeni den, bere arau aplikagarrien artean, eta hori egiteko modurik egokienarekin.

planteamiento estratégico para el territorio.

Se actualizará la información relativa a las servidumbres acústicas del Aeropuerto de Bilbao.

Igualmente, en la redacción del documento para aprobación inicial del PTP BM se analizará la conveniencia de recoger la legislación sectorial de aplicación dentro de sus normas de aplicación y la manera más adecuada para hacerlo.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 5 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Eusko Jaurlaritza- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza<br>Gobierno Vasco – Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 09/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

1. Lurralde ereduaren oinarrizko ildoei buruz:

- LPPak aurrera egin dezala sailkapenetik kanpo utzi behar diren ingurune edo eremu zehatzak identifikatzeko, ez direlako garatzekoak.
- EsAEk azpimarratu ditzala lurralde ereduak baliorik handiena duten elementuetan eragin ditzakeen inpaktuak, natura ondarearen ikuspegitik.

2. Babes bereziko kategoriari buruz:

- LPParen dokumentazio grafikoan babes bereziko eremuen identifikazioa hobetzea.
- *"Ugariak ez diren interes komunitarioko lehentasunezko habitatez" gain* (2130*, 3170* eta 4040*), begiratzea behar dutela jotzen diren beste guztiak sartzea (izan lehentasunezkoak ala ez, izan ugariak ala ez), hala nola

Resumen de la sugerencia:

1. Sobre las líneas básicas del modelo territorial:

- Que el PTP avance en la línea de identificar los entornos o ámbitos concretos que debieran ser objeto de desclasificación, por no haber sido objeto de desarrollo.
- Que el EsAE incida en los posibles impactos del modelo territorial en los elementos de mayor valor desde el punto de vista del patrimonio natural.

2. Sobre la categorización de especial protección:

- Mejorar en la documentación gráfica del PTP la identificación de las áreas de especial protección.
- Que se incluyan además de los *"hábitats de interés comunitario prioritarios menos abundantes"* (2130*, 3170* y 4040*), todos aquellos que se considere necesario su preservación (prioritarios o no, abundantes o no), tales como

lehentasunezkoak ez diren zohikaztegi, estuario edo hareatzeetako habitatak.

- LPParen aurrerapenak soilik jaso eta babesten ditu II Multzoan sartutako hezeguneetako babes bereziko guneak, hau da, BB kategoria dutenak, baina Hezeguneen LPSak multzo horretako hezeguneetarako ezartzen dituen zonifikazioa eta erregulazioa derrigor bete beharrekoak dira, kategoria guztietan. Eskatzen da LPPak Hezeguneen LPSaren xedapenak errespeta ditzala II. Multzoko hezegune guzti-guztiei dagokienez.

3. Baldintzatzaile gainjarriei buruz:

- Iradokitzen da Hezeguneen LPSko II. Multzoko hezeguneak LPParen Baldintzatzaile Gainjarrien barruan sartzea, espazio horietan indarrean dagoen araubidea aplikagarria aplikatuko dela bermatzeko.

- "Naturagune Babestuen" kategoriaren barruan Uribe Kosta-Butroe arloa ere sartzea (bertan hasita dago NBAP-Natura Baliabideen Antolamendurako Plana prestatzeko prozedura, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko irailaren 3ko Aginduaren bitartez).

  EsAEn azterketa zehatza eskatu da LPPak proposatzen duen Parke Metropolitarraren - Uribe Kostako Itsasertzeko Parkearen proposamenaren eta Uribe Kosta-

hábitats de tubera, estuarinos, de arenales no prioritarios.

- El avance del PTP solo reconoce y protege las zonas de EP de los humedales incluidos en el Grupo II que tienen la categoría de EP, sin embargo la zonificación y regulación que el PTS de Zonas Húmedas establece para los humedales de este grupo son de obligado cumplimiento en todas sus categorías. Se solicita que el PTP respete las disposiciones del PTS de Zonas Húmedas en lo que respecta a los humedales del Grupo II en su totalidad.

3. Sobre los condicionantes superpuestos:

- Se sugiere incluir los humedales del Grupo II del PTS de Zonas Húmedas dentro de los Condicionantes Superpuestos del PTP, garantizando de esta manera que en estos espacios es de aplicación el régimen normativo vigente.

- Que se recoja dentro de la categoría "Espacios Naturales Protegidos" el área de Uribe-Kosta-Butroe (en el que se ha iniciado el procedimiento de elaboración del PORN por Orden de 3 de septiembre de 2012 dela Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco).

  Se solicita en el EsAE un análisis detallado de la posible interferencia entre la propuesta del PTP de Parque Metropolitano - Parque Línea Costero de Uribe Kosta y el área Uribe-Kosta-

Butroe eremuaren artean gerta daitekeen interferentziari buruz, azken horren gainean NBAP prestatzen hasi delarik.

- Eskatzen da LPPan aurreratu dadila araubide egoki bat definitzen eta zehazten *"biodibertsitate aldetik interesgarriak diren eremuetan"*.

Eskatzen da DEA informazio iturria berrikusteko (Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura), eta gutxienez hauek argi eta garbi jasotzeko:

1. Gestio plan berezien xede diren flora eta fauna espezietarako interes bereziko guneak edo arlo kritikoak (hegazti nekrofagoei buruzkoak barne).
2. Mehatxatutako flora lehengoratzeko ekintzak garatzen ari diren eremuak.
3. Hegaztiak goi tentsioko aireko linea elektrikoen aurrean babesteko eremuak, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduak ezarritakoaren arabera.

4. Azpiegitura berdearen eta grisaren arteko gatazka eremuei dagokienez, faltan botatzen dira eta eskatzen da puntu hauetan aurrera egitea:

- eremu bakoitzean gertatzen diren gatazken azterketa zehatzagoa.
- eremu horretan har daitezkeen jarduketa edo kudeaketa neurriak zehaztea.

Butroe, sobre el que se ha iniciado PORN.

- Se solicita que se avance en el PTP en la definición y determinación de un régimen normativo adecuado en las *"áreas de interés para la conservación de la biodiversidad"*.

Se solicita que se revise la fuente de información IDE (Infraestructura de Datos Espaciales de Euskadi) y se recojan claramente al menos:

1. Las áreas de interés especial o áreas críticas para especies de flora y fauna objeto de planes de gestión específicos (incluyendo las relativas a aves necrófagas).
2. Las áreas en las que se están desarrollando acciones de recuperación de flora amenazada
3. Las zonas de protección de aves frente a tendidos eléctricos establecidas por la Orden de 6 de mayo de 2016, de la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial.

4. Sobre las áreas de conflicto entre la infraestructura verde y la gris, se echan en falta y se solicita que se avance en los siguientes puntos:

- análisis en mayor detalle de los conflictos que suceden encada zona.
- concreción sobre las posibles medidas de actuación o gestión en

5. Espezie inbaditzaileei dagokienez

- Eskatzen da EsAEk eta LPPak aurrera egin dezatela espezie inbaditzaileak prebenitzeko eta kaltetutako eremuetatik desagerrarazteko neurrietan sakontzeko (LPPan identifika litezke), neurri horiek udal mailan inplementatzeko mekanismoak ezartzeko.

Iradokizunaren erantzuna:

1. Jasotako iradokizuna kontuan hartuko da BM LPParen berrikuspenaren hurrengo faserako.

2. Dokumentazio grafikoaren aurkezpena hobetzeko iruzkinak kontuan hartuko dira, Babes Bereziko kategoriari dagokionez.

   Babes Bereziko kategoriaren barruan sartzen dira ugariak ez diren interes komunitarioko habitatak. Dokumentuaren erredakzioaren hurrengo faserako, kontuan hartuko da izaerarik bereziena dutenak baina lehentasunezkoak ez direnak aztertzeari buruzko iradokizuna, horiek ere kategoria horren barruan sartze aldera.

   Halaber, hezeguneei buruz esandakoa ere kontuan hartuko da, Hezeguneen LPSan adierazten denez.

3. Hasierako Onespenari dagokion

dicha zona.

5. Sobre las especies invasoras

- Se solicita que el EsAE y el PTP avancen en la línea de profundizar en las medidas de prevención de especies invasoras, erradicación en áreas afectas (que podrían ser identificadas en el PTP) en establecer los mecanismos para implementar dichas medidas a nivel municipal.

Contestación a la sugerencia:

1. Se tendrá en cuenta la sugerencia recibida para la siguiente fase de la revisión del PTPBM

2. Se tendrán en cuenta los comentarios relativos a la mejora en la representación de la documentación gráfica en lo relativo a la categoría de Especial Protección.

   La categoría de Especial Protección incluye los hábitats de interés comunitario menos abundantes. Para la siguiente fase en la redacción del documento se tendrá en cuenta la sugerencia en lo relativo a analizar los no prioritarios de carácter más singular de cara a incluirlos también dentro de esta categoría.

   Asimismo se tendrá lo comentado en relación a los humedales tal y como indica el PTS de Zonas Húmedas.

3. Se analizará y evaluará la propuesta de

hurrengo fasean hezeguneei buruz sail horrek egindako proposamena aztertu eta ebaluatuko da.

Uribe Kosta-Butroe ingurua kontuan hartuko da, bertan NBAP prestatzeko prozedura hasi eta gero, plan hori behin betiko onartzen denean. Kostako Itsasertzeko Parkearekin egon daitezkeen interakzioak aztertu eta ebaluatuko dira.

Biodibertsitatea kontserbatzeko gune interesgarriei buruzko iruzkinak kontuan hartuko dira, Hasierako Onespenerako dokumentuaren hurrengo faseari begira. Etorkizuneko EsAE eta LPParen Hasierako Onespenaren dokumentuak aztertu egin dituzte emandako informazio iturri guztiak.

4. Azpiegitura berdearen eta grisaren arteko gatazka eremuei dagokienez, hasierako onespen fase horretan zehatzago deskribatuko dira eta kudeatzeko neurri posibleak aztertuko dira. LPPak hainbat gai sartu ahal izango ditu iradokizun moduan, nahiz eta garatu beharreko jarduketak errepideak planifikatzeko tresnen eskumena diren.

5. Dokumentuaren hurrengo fasean datu base publikoak kontsultatuko dira espezie exotiko inbaditzaileen kokapenari buruz, haien artean gbif, EEIKO eta ingurunet (EJ). Hasierako dokumentuak dagoeneko neurri multzo handi bat aurreratu du espezie horien inguruan, eta kontuan hartuko

este departamento relativa a los humedales en la fase siguiente correspondiente a la Aprobación Inicial.

Se tendrá en cuenta el área de Uribe-Kosta-Butroe en la que se ha iniciado el procedimiento de elaboración del PORN en el momento en el que este se apruebe definitivamente. Se Se analizaran y evaluaran las posibles interacciones con el Parque Lineal Costero.

Se tendrán en cuenta los comentarios relativos a las áreas de interés para la conservación de la biodiversidad de cara a la siguiente fase de correspondiente al documento de Aprobación Inicial. El futuro EsAE y el documento de Aprobación Inicial del PTP, analizará todas las fuentes de información facilitadas.

4. Sobre las áreas de conflicto entre la infraestructura verde y la gris, su descripción en mayor detalle y las posibles medidas de gestión se analizarán en esta fase de aprobación inicial. El PTP podrá incluir algunas cuestiones a modo de sugerencias, si bien las actuaciones a desarrollar son competencia de los instrumentos de planificación de las carreteras.

5. En la siguiente fase del documento se consultaran las bases de datos públicas sobre localización de especies exóticas de invasoras como gbif, EEIKO e ingurunet (GV). El documento de inicio ya adelanta una batería importante de medidas sobre estas especies que serán tenidas en cuenta en el

dira hasierako onespeneko dokumentuan eta EsAEn osatuko dira.

documento de aprobación inicial y completada en el EAE.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 6 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Sustapen Ministerioa- Trenbide Plangintzaren Zuzendariordetza<br>Ministerio de Fomento- Subdirección General de Planificación Ferrroviaria |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 05/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Hainbat ekarpen egin dira, Estatuak trenbide gaietan duen legedi sektorialaren esparruan.

1. Euskal Herriko Trenbideen Sare Berriaren Azterlan Informatiboa idazten ari dira. Tartea: Bilbo Abandoko geltokia eta sarbideko korridorea. Trenbide, portu eta aireportuetako mugikortasunaren gaineko 05-2 Planoan jasotako trazatuak berrikusten ari dira gaur egun, eta aipatu planoan daudenak ez bezalakoak dira.

2. Proposatzen da LPParen Aurrerapenean Abandoko geltokiari buruz "pasoko geltoki" moduan egiten den aipamena kentzea, nahasmendua eragiten duelako. Trenbideak mendebalderantz jarraituko duen arren, Bilbo Abandoko geltokiak irteerarik gabeko egungo konfigurazioa mantentzen jarraituko

Resumen de la sugerencia:

Se realizan diversas aportaciones en el marco de la legislación sectorial del Estado en materia ferroviaria.

1. Se está redactando el Estudio Informativo de la Nueva Red Ferroviaria en el País Vasco. Tramo: estación de Bilbao Abando y corredor de acceso. Los trazados recogidos en el plano 05-2 Movilidad ferroviaria, portuaria y aeroportuaria se encuentran actualmente en revisión y difieren de los previstos en dicho plano.

2. Se propone eliminar la mención que se hace en el Avance del PTP como "estación de paso" a la estación de Abando ya que da lugar a confusión. Si bien el ferrocarril tendrá continuidad hacia el oeste, la estación de Bilbao Abando seguirá manteniendo la configuración actual en fondo de saco.

du.

3. Bilboko Hegoaldeko Saihesbideko Azterlan Informatiboa idazten ari dira. Lehenengo fasea Serantesko tunelaren eta Olabeagaren arteko tarteari dagokio. Gaur egun lantzen adi diren trazatuek ez dituzte aurreikusten Trenbide, portu eta aireportuetako mugikortasunaren gaineko 05-2 Planoan jasotzen diren Ortuellako eta Trapagaraneko konexioak. Halaber, Azterlan Informatiboan zabalera estandarra eta zabalera iberikoa jartzeko aukera aztertzen ari dira.

4. Plan orokorrek eta BM LPPa garatuko duten lurralde antolamenduko gainerako tresna orokorrek titulartasun estataleko trenbide sistema orokor edo baliokide moduan kalifikatuko dituzte Interes Orokorreko Trenbide Sarea osatuko duten trenbide azpiegiturek okupatu beharreko lursailak, baita xede horretarako okupatu beharko direnak ere, behin betiko onartutako azterlan informatiboen arabera, eta ez dute erabakirik sartuko trenbide azpiegituren administratzaileari emandako eskumenak baliatzea galarazi edo oztopatzen badituzte.

5. Erabakitzen baldin bada trenbideei, trenbideen zati batzuei, trenbideen azpiegiturako beste elementu batzuei edo tren zerbitzuko guneei eragiten dien hirigintzako planeamendu tresna bat idaztea, berrikustea edo aldatzea, txosten bat eskatu beharko zaio

3. Se está redactando el Estudio Informativo de la Variante Sur de Bilbao. Primera fase, que corresponde al tramo entre el túnel de Serantes y Olabeaga. Los trazados que se están considerando en la actualidad no prevén las conexiones en Ortuella ni en Trápaga que se recogen en el plano 05-2 Movilidad ferroviaria, portuaria y aeroportuaria. Asimismo, en el Estudio Informativo se está contemplando la posibilidad de implantar ancho estándar y ancho ibérico.

4. Los planes generales y demás instrumentos generales de ordenación urbanística que desarrollen el PTP BM, calificarán los terrenos que se ocupen por las infraestructuras ferroviarias que formen parte de la Red Ferroviaria de Interés General, así como aquellos que deban ocuparse a tal finalidad, de acuerdo con los estudios informativos aprobados definitivamente, como sistema general ferroviario o equivalente, de titularidad estatal, y no incluirán determinaciones que impidan o perturben el ejercicio de las competencias atribuidas al administrador de infraestructuras ferroviarias.

5. En los casos en que se acuerde la redacción, revisión o modificación de un instrumento de planeamiento urbanístico que afecte a líneas ferroviarias, a tramos de las mismas, a otros elementos de la infraestructura ferroviaria o a las zonas de servicio

Sustapen Ministerioari, hasierako onespenaren aurretik. Nahiz eta ez den horrela adierazten, testua Trenbide Sektorearen 38/2015 Legearen, irailaren 29koaren, 7.2 artikuluari dagokio literalki.

6. Plan orokorrak eta hirigintza antolamenduko gainerako tresna orokorrek jabari publikoko zona bat ezarri behar dute Estatuaren eskumenpeko trenbideetan, beste bat babespekoa, eta eraikitzeko muga bat, eta gune horietan dauden lursailen jabegoaren mugak definitu behar dituzte, hala testuetan, nola dokumentazio grafikoan. Gune horiek Trenbide Sektorearen 38/2015 Legearen 12tik 18ra arteko artikuluetan definituta daude.

7. 2012-2024 Azpiegitura, Garraio eta Etxebizitza Planaren arabera (PITVI), hiriko integrazioa hobetzera zuzendutako inbertsioak (lurperatzeak, estalkiak, zubibideak, etab). hirigintzako obrak dira, eta, horrenbestez, hirigintzako gaietan eskumena duten Toki Administrazioek edo Autonomikoek hartu beharko dituzte bere gain, eta ohikoena izaten da inplikaturiko administrazioen artean protokolo edo hitzarmen bat izenpetzea.

ferroviario se deberá solicitar informe al Ministerio de Fomento con anterioridad a la aprobación inicial. Aunque no se indica, el texto corresponde literalmente al artículo 7.2 de la Ley 38/2015, de 29 de septiembre, del sector ferroviario.

6. Los planes generales y demás instrumentos generales de ordenación urbanística deben establecer en las líneas ferroviarias de competencia estatal una zona de dominio público, otra de protección y un límite de edificación y definir las limitaciones de la propiedad de los terrenos incluidos en dichas zonas, tanto en los textos como en la documentación gráfica. Estas zonas están definidas en los artículos 12 a 18 de la Ley 38/2015 del sector ferroviario.

7. Según el Plan de Infraestructuras, Transporte y Vivienda 2012-2024 (PITVI), las inversiones vinculadas a mejoras de integración urbana (soterramientos, cubrimientos, viaductos, etc.) son obras de carácter urbanístico por lo que deberán ser asumidas directamente por las Administraciones Locales y Autonómicas competentes en materia de urbanismo, siendo lo habitual la suscripción de un protocolo o convenio entre las administraciones implicadas.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira jasotako iradokizunak, eta kontuan hartuko dira BM LLParen hasierako

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las sugerencias recibidas que serán tenidas en cuenta en la redacción del

onespenerako dokumentuaren erredakzioan.

1 eta 3. Kontuan hartuko dira arloan eskumena duten erakundeek aurkeztutako trazatuen aurreikuspenak, ahalik eta eguneratuenak.

2. Abandori buruzko aipamena zuzenduko da, pasoko geltoki moduan kentzeari buruz, iradokizunean eskatzen den bezala.

4, 5 eta 6. BM LPParen hasierako onespenerako dokumentuaren testuan, aztertu egingo da legedi sektorial aplikagarria jasotzea komeni den, bere arau aplikagarrien artean, eta hori egiteko modurik egokienarekin.

7. Aipamen bat sartuko da inplikaturiko administrazioen artean protokolo edo hitzarmen baten beharrari buruz

documento para aprobación inicial del PTP BM.

1 y 3. Se tomarán en consideración las previsiones de trazados aportados por los organismos competentes en la materia con el mayor grado de actualización posible.

2. Se corregirá la mención relativa a la estación de Abando como estación de paso, según lo indicado en la sugerencia.

4, 5 y 6. En la redacción del documento para aprobación inicial del PTP BM se analizará la conveniencia de recoger la legislación sectorial de aplicación dentro de sus normas de aplicación y la manera más adecuada para hacerlo.

7. Se incluirá una mención en relación a la necesidad de un protocolo o convenio entre las administraciones implicadas.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 7 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | BFA- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia<br>DFB – Dirección General de Agricultura |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 10/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Ez dagokio oharrik edo alegaziorik aurkeztea BMLPParen berrikuspenaren aurrerapenaren Hasierako Agiri Estrategikoari, izan ere, dagoeneko kontuan hartzen dira lurralde eta sektore planeamendua, lurralde irismena duen legedia eta Nekazaritza eta Basoko LPSa, Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko guneetako lurrak babesteari dagokionez.

Resumen de la sugerencia:

No procede efectuar observaciones o alegaciones al DIE del avance de la revisión del PTPBM puesto que ya se tiene en cuenta el planeamiento territorial y sectorial, la legislación con incidencia territorial y el PTS Agroforestal en lo que respecta a los suelos de protección de las zonas Agroganaderas y de Campiña.

Iradokizunaren erantzuna:

Jasotako txostena eskertzen da.

Contestación a la sugerencia:

Se agradece el informe recibido.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 8 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | BETSAIDE ELKARTEA |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 13/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Dokumentuak azaltzen duenez, 1997ko Lurralde Antolamenduko Gidalerroetan (LAG) bizitegietarako ezartzen zen kuantifikazioa oso polemikoa gertatzen da gaur egun, izan ere, bizitegirako lurzoruaren eskaintza harrotzearen ondorioz, planeamenduak derrigor erreproduzitu behar zuen lurzoru urbanizagarri etengabe eta mugagabearen, kontsumoaren hazkunde etengabearen edo lurzoru naturala edo landa lurra urbanizatzearen formatua, eta hori jasanezina da.

Idatzian adierazten denez, bere iritziz, Bilbo Metropolitarraren LAGen eta LPParen berrikuspenari buruzko eztabaidaren arretagunea izan beharko litzateke hirigintza berriaren jasangarritasuna, zeina etorkizuneko lurralde antolamendutik sustatu beharko litzatekeen. *"Ez dirudi lurralde antolamendu bat printzipio horrekin bat datorrenik baldin eta ez badu lurzorua baliabide natural urri moduan hartzen"*.

- Bost neurri proposatzen dira

Resumen de la sugerencia:

El documento expone que la cuantificación residencial que se establecía en las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) de 1997, resulta actualmente muy polémica pues con el esponjamiento de la oferta de suelo residencial obligaba al planeamiento a reproducir el formato insostenible del suelo permanente e indefinidamente urbanizable, del incremento continuado del consumo o urbanización del suelo natural o rústico.

En el escrito se traslada que desde su punto de vista el debate sobre la revisión de las DOT y del PTP del Bilbao Metropolitano se debería centrar en la sostenibilidad del nuevo urbanismo que se debe promover desde la futura ordenación territorial. *"No parece que se acomode a dicho principio una ordenación territorial que no esté basada en la consideración del suelo como un recurso natural escaso"*.

- Se proponen cinco medidas para

planeamendurako jarraibide lotesle moduan sartzeko, zeinek etengabe urbanizatu daitekeen lurzoruaren paradigma jasanezina iraultzen duten:

1. Lurzorua eraldatzeko baldintza moduan jartzea dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzoru guzti-guztia betetzea. Asko jota, lurzoruaren eraldaketa lurzoruaren sustapen publikoko eragiketa estrategikoetarako baino ez litzateke erreserbatu behar.

2. Dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzoruan hutsik dagoena optimizatzeko edo zeharo betetzeko aukerak zehatz-mehatz kontabilizatzea, bereziki aipatuz "zuzkitzeko jarduketak", azalera handiko etxebizitzak zatitzetik aterako liratekeen etxebizitza berriak edo beste erabilera batzuk aldatzeagatik aterako liratekeenak.

3. Garapen urbanistikoaren gutxieneko atalasea kentzea.

4. Harrotutako eraikuntzaren gaur egungo koefizienteen ordez dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzorua zeharo betetzearen eta errehabilitazio urbanistikoaren portzentajeak erabiltzea.

introducir como determinaciones vinculantes para el planeamiento que inviertan el paradigma insostenible del suelo permanentemente urbanizable:

1. Supeditación de la transformación del suelo a la colmatación del suelo ya urbanizado. Como mucho, la transformación del suelo debería quedar reservada a operaciones estratégicas de promoción pública de suelo.

2. Contabilidad exhaustiva de las posibilidades de optimización o colmatación de vacantes de suelo ya urbanizado, haciendo referencia a las "actuaciones de dotación", a las nuevas viviendas resultantes de la subdivisión de viviendas existentes de gran superficie, o por el cambio de otros usos.

3. Supresión del umbral mínimo de desarrollo urbanístico

4. Sustitución de los actuales coeficientes de esponjamiento edificatorio por porcentajes de colmatación y rehabilitación urbanística del suelo ya urbanizado.

5. Landa lurra babesteko figurak lurzoru guzti-guztiari aplikatzea, izaera loteslearekin, horien barruan sarturik eraldatu gabe dauden lurzoru urbanizagarriak ere.

5. Aplicación con carácter vinculante de las figuras de protección del suelo rural a la totalidad del suelo, incluyendo los suelos urbanizables no transformados.

Iradokizunaren erantzuna:

LPParen Berrikuspenak garapen iraunkorraren printzipioak aldarrikatzen ditu, bereziki lurzorua ondasun urria delako nozioa. Ildo horretan, BM LPParen berrikuspenaren Aurrerapenak dagoeneko ezartzen du lurzoruaren eskaintzaren baldintzetako bat dela lurralde aldapatsua, dentsoa eta oso artifizializatua (%25) eta, ez dagokionez lurzoru natural eta landa lurzoru gehiago kalifikatzea, oso urria delako eta dagoen oreka eskasa delako, etxebizitza eta jarduera ekonomikoetarako erabilgarri dagoen lurzorua jada kalifikatua dagoena da, oso neurri txikiko salbuespen batzuekin. Testuan, halaber, lurzoruak sailkapenetik ateratzeko aukera hartzen da kontuan.

Eskatu den kontabilitate xehea udal planeamenduei dagokio, eta horiek LPParen xedapen orokorretara egokitu beharko dira. Ezinezkoa da LPP baten lan eskalatik xehetasun hori ematea.

BM LPParen Berrikuspenak LAGen Berrikuspenean bizitegiak kuantifikatzeko metodoari jarraitu behar dio, baina uste dugu kuantifikazio hori ez dela bateraezina garapen iraunkorraren irizpideekin. LAGen Berrikuspenaren Hasierako Onespenaren dokumentuan dagoeneko ezabatu da etxebizitzen gutxieneko kopurua, eta 4/2016 Dekretuan ezarritako bizitegi kuantifikazioa

Contestación a la sugerencia:

La Revisión del PTP propugna los principios del desarrollo sostenible, en particular la noción de que el suelo es un bien natural escaso. En este sentido, el Avance de la Revisión del PTP BM ya establece que la oferta de suelo está condicionada por un territorio abrupto, denso y muy artificializado (25%) y que, como no procede calificar más suelo natural y rural, dada su escasez y el precario equilibrio existente, el suelo disponible para viviendas y actividades económicas que resulta es el que ya está así calificado, con escasas excepciones de reducida cuantía. En el texto se contempla también la posibilidad de desclasificar suelos.

La contabilidad exhaustiva solicitada es materia de los planeamientos municipales, que se ajustarán a las determinaciones generales del PTP. Resulta imposible esa pormenorización desde la escala de trabajo de un PTP.

La Revisión del PTP BM deberá ajustarse al método de la cuantificación residencial establecida en la Revisión de las DOT, pero creemos que no es incompatible dicha cuantificación con los principios del desarrollo sostenible. En el documento de Aprobación Inicial de la Revisión de las DOT ya se ha suprimido el número mínimo de viviendas, y se ha modificado la cuantificación residencial

beherantz doitu da. Horrez gain, kuantifikazio hori are gehiago doitu daiteke ereduaren osagaiarekin, zeina LPPen eskumena den, eta udalerriek etxebizitza hartzeko duten gaitasuna baloratzen duen.

BMLPParen Berrikuspenak lurzoruak sailkapenetik ateratzen ez dituen arren, bai proposatu daiteke jakin batzuk sailkapenetik ateratzeko, edo, modu orokorrean, udalei iradoki bakoitzaren planeamenduetan garatu gabe dauden lurzoruen sailkapenak berrikusteko.

establecida en el Decreto 4/2016, ajustándola a la baja. Por otra parte, esta cuantificación puede ajustarse aún más con el componente de modelo, que es competencia de los PTP y valora la capacidad de acogida de los términos municipales.

Aunque la Revisión del PTPBM no desclasifique suelos, sí puede proponer la desclasificación de algunos en concreto o, de manera general, sugerir a los ayuntamientos que revisen en sus respectivos planeamientos las clasificaciones de los suelos no desarrollados.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 9 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Santurtziko Udala<br>Ayuntamiento de Santurtzi |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 23/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Esaten da funtsezkoa dela Errepideen LPSak Ballontiko ardatzaren amaierako egoera definitzea, izan ere, eragin zuzena dauka eragindako udalerrietako Plan Orokorretan eta LPPan. Eragindako lurzoruen norabidea baldintzatzen du.

Hainbat ohar zehatz egiten dira BM LPPari buruz:

- Planeamenduak bateratzeko neurriak berrikustea, kontuan hartuta jada HAPOaren Aurrerapenaren fasea gainditu dela (dokumentazio idatziaren C.4 atala, lehen epigrafea). Santurtziko planeamenduaren egokitzapenaren egoera eguneratzea (47. orrialdea, bigarren epigrafea).
- Nabarmentzen da garrantzitsua dela portua eta portuko Plan Berezia eta bere ingurumen ebaluazioa bateratzea, izan ere, portuak hein handi batean baldintzatzen du udalerria. Behin-behineko salbuespen bat eskatzen da,

Resumen de la sugerencia:

Se señala que es fundamental que el PTS de Carreteras defina la situación final del eje del Ballonti, ya que incide directamente en los Planes Generales de los municipios afectados y en el PTP. Condiciona el destino de los suelos afectados.

Se realizan una serie de consideraciones concretas en relación al PTP BM:

- Revisar las medidas de compatibilización de planeamientos, teniendo en cuenta que ya se ha superado la fase de Avance del PGOU (apartado C.4. primer epígrafe documentación escrita). Actualizar el estado de adaptación del planeamiento de Santurtzi (pág. 47 segundo epígrafe).
- Se destaca la importancia de la compatibilización con el puerto y la necesidad de actualizar el Plan Especial portuario y su evaluación ambiental, ya que el puerto condiciona en gran medida el municipio. Se solicita una dispensa provisional con el fin de que la manzana

ekipamenduen eraikin saila (Kofradia ingurua) Udalari lagatzeko, horrek portuaren mugei eragingo bailieke, LPPan islatzen denez.

- Ezkerraldeko ingurunean, ados daude oinezko eta txirringentzako ibilbideen planteamenduarekin, bai itsasadarrean parean, bai Muskiz alderako bidegorriarekin konektatzeko. Hasierako onespenerako HAPOan ikus daiteke egindako planteamendua (erantsitako CDa).
- Komenigarritzat jotzen da harantzago joatea LPParen Aurrerapenean planteatutako ildo estrategikoetan, onura publikoko mendiei dagokienez (adibidez, Serantes, 19. MUP): horren defentsa berrestea, ez soilik landaketak erregulatuz, planteatzen den bezala, baizik eta administrazioen arteko koordinazio bultzatuz, legez kanpoko eraikuntzak saihesteko, etab. Serantes mendiaren planteamendua berresten da, hiri inguruko parke moduan edo ibilbide naturalistiko interesgarri moduan, eta berdin mendira ibilgailuan joateko sarbide ezabatzea, hau da, HAPOak egiten duen planteamendua (disuasio aparkalekuak jarriz, etab.).
- Planteatutako ildo estrategikoaren aldeko interesa erakusten da, enplegua hobetzeari dagokionez. Portuaren erabilera industrial tertziarioaren muga definitzeko beharra planteatzen da, ez dadin lehiatu udal lurzoru industrialekin: "El Arbol" (IV. sektorea), "Balparda" (AGI-231). Lurzoru horiek guztiak oztopatu egin dira, ez dagoelako Ballontiko korridorerako sarbiderik.

equipamental (zona de la Cofradía) se ceda al Ayuntamiento, puesto que esto supondría una afección a los límites del puerto que refleja el PTP.

- Se muestra conformidad con el planteamiento de recorridos peatonales y/o ciclables para el entorno de la margen izquierda, tanto a lo largo de la ría, como buscando la conexión con el bidegorri hacia Muskiz. En el PGOU para aprobación inicial se puede ver el planteamiento realizado (CD adjunto).
- Se considera conveniente ir más allá respecto a las líneas estratégicas planteadas en el Avance del PTP en relación a los montes de utilidad pública (por ejemplo Serantes MUP nº 19): redundar en la defensa del mismo no sólo regulando las plantaciones, tal como se plantea, sino buscando la coordinación entre administraciones para evitar construcciones ilegalizables, etc. Se reitera el planteamiento del monte Serantes como parque periurbano o itinerario naturalístico de interés, así como el planteamiento que hace el PGOU de eliminación de accesos rodados al monte (con aparcamientos disuasorios, etc.).
- Se muestra interés en la línea estratégica planteada buscando la mejora del empleo. Se plantea la necesidad de definir el límite del uso industrial terciario del puerto para que no "compita" con los suelos industriales municipales: "El Arbol" (Sector IV), "Balparda" (AGI-231). Todos estos suelos se han visto dificultados por la falta de accesos al corredor del Ballonti.

Etxe-Uliko lurzoru urbanizagarri industrialari dagokionez, garrantzitsutzat jotzen da industrial moduan birdefinitzea, eta administrazioen arteko elkarlana eskatzen da, deskutsatzeko daukan zama handiagatik.

- Desadostasuna adierazten du populazioaren joera negatiboaren inguruan, LPParen Aurrerapenean jasota dagoenaren arabera (80. orrialdea), gaur egun gauzatzen ari diren bizitegien garapenean eta HAPOan aurreikusitakoan oinarrituta.
- Eskatzen du LPPak ekintza zehatzak plantea ditzala bizitegi esparru kalteberetan proposatzeko (Nafarroa, Aurora, Vildosola eta Mendialde eta San Juan de Rompeolas auzoa: 65. eta 66. orrialdeak). Mendialderen kasua nabarmentzen da, udal etxebizitzen kopuru handiagatik, eta San Juan de Rompeolas auzoa, zeina Eusko Jaurlaritzak kudeatu eta urbanizatzeko prozesuan dagoen.
- Komenigarritzat jotzen da LPPan mantentzea Merkantzietarako Trenbidearen Hegoaldeko Saihesbidea eta bere zerbitzuko postua mantentzea, eta, horrenbestez, AOP-402 (CLH) azpian dagoen tren tunela kendu ahal izatea, aipatu trenak egiten duen barrera efektua kentzeko, eta Renfek izenpetutako konpromisoak betetzeko, aldirikoen geltoki nagusitik Porturaino doazen trenbideen zati bat lagatzeko.

2018o apirilaren 23ko iradokizunen idatziak 2017ko abuztuaren 25eko aurreko idatzi bat aipatzen du, zeina kontsultatu egin den, aipatu

Respecto al suelo urbanizable industrial de Etxe-Uli, se considera importante redefinirlo como industrial y se solicita la colaboración entre administraciones por la gran carga de descontaminación que tiene.

- Plantea su desacuerdo con la tendencia poblacional negativa para el municipio recogida en el Avance del PTP (pág. 80), en base a los desarrollos residenciales actualmente en ejecución y los previstos en el PGOU.
- Solicita que el PTP plantee acciones concretas a proponer en las áreas residenciales vulnerables (Nafarroa, Aurora, Vildósola y Mendialde y el barrio San Juan del Rompeolas: pág. 65 y 66). Se destaca el caso de Mendialde por el gran número de viviendas municipales y el barrio de San Juan del Rompeolas en proceso de gestión y urbanización por el Gobierno Vasco.
- Se considera conveniente mantener en el PTP la Variante Sur Ferroviaria de Mercancías y su puesta en servicio, posibilitando la eliminación del túnel ferroviario existente bajo el AOR-402 (CLH), evitando el efecto barrera de dicho tren y el cumplimiento de los compromisos suscritos por Renfe de cesión de la parte de las vías que van desde la estación central de cercanías al Puerto.

El escrito de sugerencias de 23 de abril de 2018 alude a un escrito anterior de fecha 25 de agosto de 2017 que ha sido consultado para

idatzian planteatzen diren hainbat gai behar bezala ulertu ahal izateko.

entender adecuadamente algunas de las cuestiones planteadas que se remiten al citado escrito.

Iradokizunaren erantzuna:

Ballontiko ardatza burutzea lehentasunezko jarduketa da, eta Errepideen LPS berrian ere mantentzen da; ondorioz, LPParen Aurrerapenean agertzen den ardatz horren tarte osatu gabea grafismoaren akatsa da, eta dokumentuaren erredakzioaren hurrengo fasean zuzenduko da.

BMLPParen Aurrerapenaren dokumentuari egindako oharrak eskertzen dira, eta, horiei dagokienez, honako hau argitu daiteke:

- Iradokizunean aipatutako epigrafeak ez datoz bat Aurrerapenaren Dokumentukoekin. Edonola ere, BM LPPan udal planeamenduari buruz jasoko diren erreferentziak soilik indarrean dagoen planeamenduari buruzkoak izango dira. LPPa eskala egoki batera jaitsi ahal izango da, dokumentazio grafiko batekin, zeinean modu zehatzagoan identifikatuko diren bateratzeko eremu zehatzak, mugaketa zehatza ezarriz, eta, are gehiago, eragindako plangintzek modu bateratuan jarraitu beharreko gidalerroak planteatuz.
- Santurtziko planeamendu urbanistikoaren eta Bilboko Portuaren antolamendu urbanistikoaren arteko erlazioa ez da sartzen planeamendua bateratzeko hipotesi orokorretan, izan ere, Bilboko Portuak bere esparru arautzaile propioa dauka. Portuko zerbitzugunearen parte den edozein espazioren desafektazioak portuaren

Contestación a la sugerencia:

La finalización del eje del Ballonti es una actuación prioritaria que se mantiene en el nuevo PTS de Carreteras, por tanto el trazado incompleto de este eje que se refleja en el Avance del PTP es un error de grafismo que será subsanado en la siguiente fase de redacción del documento.

Se agradecen las consideraciones al documento de Avance del PTPBM con respecto a las cuales se precisa aclarar lo siguiente:

- Los epígrafes citados en la sugerencia no se corresponden con los del documento de Avance. En cualquier caso, las referencias en relación al planeamiento municipal que se recojan en el PTP BM serán referidas únicamente al planeamiento vigente. El PTP podrá establecer a una escala adecuada, con una documentación gráfica en la que se identifiquen de manera más detallada, ámbitos concretos de compatibilización, estableciendo la delimitación concreta e incluso plantear las directrices a seguir de forma conjunta por los planeamientos afectados.
- La relación entre el planeamiento urbanístico de Santurtzi y la ordenación urbanística del Puerto de Bilbao no entra dentro de los supuestos generales de la compatibilización del planeamiento ya que el Puerto de Bilbao tiene su propio marco normativo. La desafectación de cualquier espacio que forme parte de la zona de servicio portuaria se tendrá que

legediari egin beharko dio men.

- Eskertzen da Santurtzi udalerrian oinezkoentzat eta bizikletentzat aurreikusita dauden ibilbideei buruz emandako dokumentazioa, eta kontuan hartuko da dokumentuaren hurrengo fasean.

- Serantesko parke periurbanoaren inguruan egindako oharrei dagokienez,ideia egokia dirudi, kontuan hartuta udal titulartasuneko Onura Publikoko Mendia dela.

- Industri lurzoruei buruz egindako iradokizunak direla eta, honako ohar hauek egin daitezke: portuko zerbitzu gunean kokatu daitezkeen erabilerak zehazten dituztenak dira portuaren legedia eta hortik portuko erabilerak eta espazioak zedarritzeko ondorioztatzen diren tresnak. Adierazitako industri lurzoruetara iristeko zailtasunak oso nabarmen hobetuko dira Ballontiko ardatza osatzen denean. Etxe-Uliko industri lurzorua garatzeko parte hartze publikoa egiteko iradokizunak arazo zabalago bat uzten du agerian, eta BM LPPak horri buruzko hausnarketa egingo du, lurraldearen gaineko ikuspegi estrategiko bati jarraituz.

- BM LPParen Berrikuspenak LAGen Berrikuspenean bizitegiak kuantifikatzeko ezarritako metodoari jarraituko dio. Horrez gain, kuantifikazio hori ereduaren osagaiarekin modulatu ahal izango da, zeina LPPen eskumena den, eta udalerriek etxebizitza hartzeko

atener a la legislación portuaria.

- Se agradece la documentación aportada acerca de los recorridos peatonales y/o ciclables previstos en el municipio de Santurtzi que se tendrán en consideración en la siguiente fase del documento.

- En lo referente a las consideraciones realizadas en relación al parque periurbano en Serantes, la idea parece adecuada teniendo en cuenta que se trata de un M.U.P. de titularidad municipal.

- En relación a las sugerencias relativas a los suelos industriales cabe hacer los siguientes comentarios: la fijación de los usos susceptibles de ser ubicados en la zona de servicio portuaria está establecida en la legislación portuaria y en los instrumentos que de ella se derivan para la delimitación de los usos y espacios portuarios. Las dificultades de accesibilidad de los suelos industriales indicados se verá mejorada de forma muy sustancial con la finalización del eje del Ballonti. La sugerencia de participación pública en el desarrollo del suelo industrial de Etxe-Uli ejemplifica una problemática más amplia sobre la que reflexionará el PTP BM desde el punto de vista de una visión estratégica sobre el territorio.

- La Revisión del PTP BM se ajustará al método de la cuantificación residencial establecido en la Revisión de las DOT. Por otra parte, esta cuantificación puede modularse con el componente de modelo, que es competencia de los PTP y valora la capacidad de acogida de los

duten gaitasuna baloratzen duen.

- Aurrerapenean ez dugu identifikatzen non hitz egiten den bizitegi gune kalteberei buruz.
- Merkantzien Hegoaldeko Saihesbideari dagokionez, BM LPPak kontuan hartuko du administrazio sektorial eskumendunek egindako planifikazioa

términos municipales.

- No identificamos en el Avance dónde se habla de zonas residenciales vulnerables.
- En relación a la Variante Sur de Mercancías el PTP BM tomará en consideración la planificación realizada por las administraciones sectoriales competentes.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

garraioak, mugikortasuna eta lurraldearen kohesioa sustatzeko saila
departamento de transportes, movilidad y cohesión del territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 10 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Real Sociedad de Golf de Neguri |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 25/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Iradokizunaren gaia da Aurrerapenak Getxoko Galeako Golf Zelaiak okupatzen dituen lurzoruei ematen dien tratamendua.

1. BFAko Lurralde Kohesiorako Zuzendaritza Nagusiari egindako kontsulta.

   Azaldu denez, indarrean dagoen BMLPPak babes kategoria batzuk ezartzen zituenez lurzoru horietarako, hala nola natur baliabideen babesa eta landa ingurunearen babesa (basozaintza), 2015eko azaroan, Getxoko Udalak berariazko pronuntziamendua eskatu zion BFAko Lurralde Kohesiorako Zuzendaritza Nagusiari, Golf Zelaiaren barruan baimendutako erabilerei zegokienez.

   BFAko Lurralde Kohesiorako Zuzendaritza Nagusiak txosten bat landu bat zuen horri buruz, 2016ko urtarrilean, eta bertan aitortzen zen akatsa egon zela BMLPParen

Resumen de la sugerencia:

La sugerencia alude al tratamiento dado por el Avance a los suelos ocupados por el Campo de Golf de La Galea (Getxo).

1. Consulta a la Dirección General de Cohesión del Territorio de la DFB

   Se explica que debido a que el vigente PTPBM establecía para estos suelos unas categorías de protección como las de protección de recursos naturales, y protección del medio rural (forestal), en noviembre de 2015 el Ayuntamiento de Getxo solicitó a la Dirección General de Cohesión del Territorio de la DFB un pronunciamiento expreso respecto a los usos permitidos dentro del Campo de Golf.

   La Dirección General de Cohesión del Territorio de la DFB elaboró en enero de 2016 un informe al respecto, en el que se reconocía un error de representación en los planos del

planoetako errepresentazioan, eta, esaten zenez, haren ondorioz, ez zen kontuan hartu behar erabileretarako bertan adierazitako araubidea, eta erabilerak Getxon indarrean zegoen HAPOan ezarritakoaren bidez arautu behar ziren (Getxoko HAPOak Galeako Golf Zelaia honela sailkatu zuen: *Lurzoru Urbanizaezina, erregimen arruntekoa, Ekipamendu Handietarako erabilera globala*).

Txostenak amaieran zioenez, *"LPPan hautemandako akatsa jaso da, eta hori zuzentzeari ekingo zaio dokumentua berrikusten denean"*.

2. Kontsultari erantzuteko egindako txostenean agindutako zuzenketa ez da egin.

   Halaber, ohartarazten da BMLPParen Berrikuspenaren Aurrerapenak ez duela aipatu txostenean agindutako zuzenketa jaso, eta zehaztu egiten da zein izan den Galeako Golf Zelaiari eman zaion tratamendua, bai lurralde antolamenduko dokumentuan bertan, bai Hasierako Dokumentu Estrategikoan. Zehazki:

   - *02 Planoa. Landa habitata* planoak lurzoru horri ematen dioan kategoria da *"Nekazaritza-abeltzaintza eta Landazabala: Trantsizioko Landa Paisaia"*, eta, Dokumentuaren Memorian jasotzen denez, Landa Habitataren helburua da sustatzea landa ingurunea eta nekazaritza eta abeltzaintza jarduera, ahalmen agrologikoa

PTPBM, y se decía que como consecuencia de ello no debía de tenerse en cuenta el régimen de usos determinado en él, y que los usos debían regularse según lo establecido por el PGOU vigente de Getxo (el PGOU de Getxo ordena el Campo de Golf de La Galea como *Suelo No Urbanizable calificado de régimen común, uso global de Grandes Equipamientos*).

El informe concluía diciendo que *"Se toma nota del error detectado en el PTP, y se procederá a su corrección cuando se proceda a la revisión del documento"*.

2. No se ha realizado la corrección comprometida en el informe de contestación a la Consulta.

   Se advierte que el Avance de la Revisión del PTPBM no ha incorporado esa corrección comprometida en dicho informe, y se detalla cuál ha sido el tratamiento dado al Campo de Golf de La Galea, tanto en el propio documento de ordenación territorial, como en el Documento Inicial Estratégico. En concreto:

   - El *Plano 02. Hábitat Rural*, categoriza este suelo como *"Agroganadero y Campiña: Paisaje Rural de Transición"*, y según se recoge en la Memoria del documento, el objetivo del Habitat Rural es el del fomento del medio rural y de la actividad agroganadera, suelos con capacidad agrológica y mayor potencialidad de usos

duten eta erabilera agropekuariorako ahalmen handiagoa duten lurzoruak, ekoizpen ahalmen txikiagoko zonalde kultibatuak..., eta horiek ez dute zerikusirik Golf Zelaiko lurzoruaren kirol ekipamenduarekin.

- *07 Planoa. Ekipamenduak* planoan esaten da lurzoru hori *"Natura Intereseko Eremu"* moduan aipatzen da, eta espazio bat sartzen du *"Udalez gaindiko Kirol Ekipamendu (06)"* moduan, zeinean Golf Zelaiko eraikina baino ez dagoen.

- Hasierako Dokumentu Estrategikoari dagokionez, lurzoru hori *Nekazaritza: Trantsizioko Landa Paisaia"* moduan definitzen da *2. Planoa. Nekazaritza-abeltzaintza unitatea eta baso unitatea"* delakoan. Horrez gain, HSEaren Memorian, Nekazaritza-abeltzaintza Unitatea antolatzeko proposamenean, Trantsizioko Landa Paisaiako lurzoruak *"Bateragarriak diren babes eremu"* moduan sailkatzen dira, hau da, berezko erabilera nekazaritza eta abeltzaintzarakoa izanik, bestelako erabileretarako baimena emanez gero, proposatzen den erabileratik erator litekeen inpaktuaren analisia txertatu beharko zaio. Eta, aitzitik, *5. Planoa.*

agropecuarios, zonas cultivadas de menor capacidad productiva,...que carecen de relación alguna con el equipamiento deportivo del suelo del Campo de Golf.

- El Plano 07. Equipamientos, se señala dicho suelo como *"Área de Interés Naturalístico"*, e incluye como *"Equipamiento Supramunicipal Deportivo (06)"* un espacio en el que se localiza exclusivamente el edificio del Campo de Golf.

- En lo que se refiere al Documento Inicial Estratégico este suelo se define como *"Agroganadero: Paisaje Rural de Transición"* en su *Plano 2. Unidad Agroganadera y Unidad Forestal*. Por otra parte, en la Memoria del DIE en su propuesta de ordenación para la Unidad Agroganadera, los suelos de Paisaje Rural de Transición aparecen como de *"Protección Compatible"*, es decir, que la autorización de usos distintos a los agropecuarios que es su vocación natural, deberá de ir acompañada de un análisis de impacto que del uso propuesto se pudiera derivar. Y sin embargo en el *Plano 5. Propuesta de Diagnóstico General en Suelo No Urbanizable*, dicho suelo se

*Diagnostiko orokorraren proposamena lurzoru ez urbanizagarrian* delakoan, lurzoru hori Babes Eremu moduan sailkatzen da, eta ez Bateragarria den Babes Eremu moduan.

Galeako Golf Zelaiaren eremua, *3.1* eta *3.2 Interes Bereziko Baliabide Naturalak dituzten Espazioen Unitatea* delakoan, *EAEko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Ireki* moduan (3.1 Planoa) eta *Interes Geologikoko Toki* moduan (3.2 Planoa) agertzen da.

3. Ulertzen da BMLPParen Berrikuspenaren Aurrerapenean ez direla sartu "*Galeako Golfeko lursailen kirol erabilerari buruzko kontsulta*"-ren txostenean exijitutako zuzenketak, eta, gainera, planoetan izen okerrak sartu direla; ondorioz, **eskatzen da akats horiek zuzentzeko eta Aurrerapen berria** Lurralde Kohesiorako Zuzendaritza Nagusiak 2016ko urtarrilean landutako **txosteneko irizpideetara egokitzeko**, kontuan hartuta Getxoko HAPOaren erabakiak (Araubide Erkidegoko Lurzoru Urbanizaezina, eta Kirol kategoriako Ekipamendua espazio osoarekiko).

cataloga como Zona de Protección, y no como Zona de Protección Compatible.

El área del Campo de Golf de La Galea se señala en los Planos *3.1 y 3.2 Unidad de Espacios con Recursos Naturales de Interés*, como *Catálogo abierto de espacios de interés de la CAPV* (Plano 3.1) y como *Lugar de interés geológico* (Plano 3.2).

3. Se entiende que el Avance de la Revisión del PTPBM no ha incorporado las correcciones exigidas en el Informe de *"Consulta sobre los usos deportivos en terrenos de Golf La Galea"*, además de haber integrado determinaciones erróneas en sus planos, por lo que se **solicita que se corrijan tales incorrecciones y se adapte el Avance a los criterios incorporados en el informe** elaborado por la Dirección General de Cohesión del Territorio en enero de 2016, considerando las determinaciones del PGOU de Getxo (Suelo No Urbanizable en régimen Común, y Equipamiento de categoría Deportiva sobre el total del conjunto del espacio)

Iradokizunaren erantzuna:

Egiazki, ekipamendu hori EAEko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekian

Contestación a la sugerencia:

En efecto el hecho de que este equipamiento esté incluido en el Catálogo Abierto de Espacios

egotearen ondorioz, eta ezaugarri hori Hasierako Dokumentu Estrategikoan sartzearen ondorioz, beharbada gertatu da BMLPParen Aurrerapenaren dokumentuak 2016ko urtarrileko txostenean konprometitu ziren zuzenketak egin ez izana; dokumentua BFAko Lurralde Kohesioaren Zuzendaritza Nagusiak garatu zuen, *"La Galeako Golfeko lurzoruen kirol erabilerei buruzko kontsulta"*-ri erantzunez.

Zehazki, BMLPParen Aurrerapenaren aurretik egin zen diagnostikoaren fasean, eremu funtzionalean zeuden ingurumen aldagai guztien inbentarioa egin zen, eta, horrenbestez, Diagnostiko horrek hiru zona desberdinetan kategorizatu zuen lurraldea (Babes eremuak, Babes bateragarriko eremuak eta Hobetu eta lehengoratzeko eremuak), lurzorua antolatzeko lehendabiziko irizpideak ezartzeko, ondoren BMLPParen Aurrerapenaren euskarri izan zitezen. Ondoren, kategoria horiek Ingurumen Dokumentu Estrategikoan jaso ziren, baina nagusitu direnak BMLPParen Aurrerapenean daudenak dira, eta horien araudi espezifikoa hasierako onespenaren dokumentuan definitu eta zehaztuko da, diagnostikoan jaso diren lurzoru babestuen eta lurzoru bakoitzaren gaur egungo egoeraren (fisikoa zein urbanistikoa izan) artean egon daitekeen interakzioa berrikusiz (Getxoko HAPOa).

Ondorioz, akatsa aitortzen da, eta, horrenbestez, hasierako onarpenerako dokumentua prestatzeko fasean Neguriko "REAL SOCIEDAD DE GOLF" elkarteak okupatzen duen lurzoruaren berezitasuna analizatuko da, eta lurzoruak gaur egun garatzen duen funtzioaren arabera tratatuko dira, aipatu 2016ko urtarrileko txostenarekin

Naturales Relevantes de la CAPV, y la incorporación de tal atributo en el Documento Inicial Estratégico, ha podido provocar que el documento de Avance del PTPBM no haya realizado las correcciones comprometidas en el informe de enero de 2006 que la Dirección General de Cohesión del Territorio de la DFB elaboró en respuesta a la *"Consulta sobre los usos deportivos en terrenos de Golf La Galea"*.

En concreto en fase de diagnóstico, previo a la realización del Avance del PTPBM, se inventariaron todas las variables ambientales presentes en el ámbito del área funcional, de tal manera que este Diagnóstico categorizó el territorio en tres zonas diferentes (Zonas de protección, Zonas de protección compatible, y Zonas de mejora y recuperación) con intención de establecer los primeros criterios de ordenación del suelo que sirviesen de apoyo al posterior Avance del PTPBM. Estas categorías fueron recogidas después en el Documento Ambiental Estratégico, sin embargo las que prevalecen son las del Avance del PTPBM, y su normativa específica se definirá y concretará en el documento de aprobación inicial, revisando la posible interacción entre los suelos protegidos que recoge el diagnóstico y las características de cada suelo en su estado actual, físico y urbanístico (PGOU de Getxo).

Se reconoce por tanto el equívoco, de tal forma que en la fase de elaboración del documento para aprobación inicial se analizará la particularidad del suelo ocupado por la "REAL SOCIEDAD DE GOLF DE NEGURI", y los suelos se tratarán en adecuación con la función que desarrollan en la actualidad de acuerdo al referido informe de enero de 2016.

bat eginda.

Horrez gain, BMLPParen Aurrerapenak lurzoru hori "Udalerriz *gaindiko Kirol Ekipamendutzat (06)*" hartzen du lurzoru hori eta, ondorioz, Getxoko HAPOaren kalifikazioa jasotzen du. 07 Planoak Golf Zelaiko eraikina baino hartzen ez duen espazio bat jotzen du Ekipamendutzat, eta, horri dagokionez, horretarako arrazoia da errepresentatzeko modu huts bat dela, non ekipamenduak sinbolo baten bidez adierazten diren.

Por otra parte el Avance del PTPBM considera este suelo como de *"Equipamiento Supramunicipal Deportivo (06)"* y por tanto recoge la calificación del PGOU de Getxo. Con respecto al hecho de que el Plano 07 recoge como Equipamiento un espacio en el que se localiza exclusivamente el edificio del Campo de Golf, esto se debe a una mera forma de representación en la que los equipamientos se señalan con un símbolo.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 11 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | BILBAOPORT |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 25/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

LPParen esparruan, nahitaez, Bilboko Portu Agintaritzaren erabateko eskumenpeko lurralde eremuaren berezko arau bereziak nabarmendu behar dira, horien artean Bilboko Portuaren gaur egungo jarduerak mantentzea eta etorkizunekoak garatzea ahalbidetuko duten kontsiderazioak.

- Kontsiderazioak portuaren araudi sektorial aplikagarriari buruz:

Bilboko Portuaren araudi sektorial aplikagarria deskribatzen da, baita ere Bilboko Portuko espazioen mugak eta portu erabilerak definitzen dituen tresna ere.

Portuko zerbitzu guneari buruz hirigintzako planteamenduak egin behar duen tratamenduan deskribatzen da, eta "Portu Sistema Orokor" moduan sailkatzen da, adieraziz aipatu jabari publikoko ondasun horien antolamendua eta erabilerak nagusitzen direla, TRLPEMMren 56 artikulua eta Auzitegi

Resumen de la sugerencia:

En el marco del PTP deben necesariamente significarse las singularidades normativas propias del ámbito territorial de plena competencia de la Autoridad Portuaria de Bilbao, incluyendo las consideraciones que permitan preservar las actividades actuales y las necesidades de desarrollo futuro del Puerto de Bilbao.

- Consideraciones sobre la normativa sectorial portuaria de aplicación:

Se describe la normativa sectorial portuaria de aplicación en el ámbito del Puerto de Bilbao y el instrumento que define la delimitación de los espacios y usos portuarios del Puerto de Bilbao.

Se describe el tratamiento que el planeamiento urbanístico tiene que hacer sobre la zona de servicio portuaria calificándola como "Sistema General Portuario", determinando el carácter prevalente de la ordenación y usos portuarios de los citados bienes demaniales, en cumplimiento del artículo 56 el TRLPEMM y de la sentencia del Tribunal Constitucional

Konstituzionalaren 77/1984 epaia betez.

BM LPPak Bilboko Portuak interes orokorreko postu moduan duen izaera hartu beharko du kontuan, lehen mailako azpiegitura delarik, zeinak Euskadirentzat interes estrategikoa duen, eta etengabe eboluzionatzen eta garatzen ari den; aduanetako esparrua da, eta intermodalitate egokia behar du garraio mota desberdinen artean, eta, konexio egokia behar duelarik errepide eta trenbideen ahalmen handiko bideekin, ezin da eraldatu hiri diseinuko irizpideengatik eta portutik kanpoko irizpideengatik, trafiko horien operatiba desitxuratu dezaketelako.

- LPP plana eta Bilboko Portuaren lurralde eta eskumenen esparruarekin duen harremanari buruzko gogoetak:

BPAk bat egiten du Bilboko Itsasadarra berrantolatzeko eta aukerako espazioak bultzatzeko helburuekin, eta azken hamarkadetan nabarmen lagundu du xede horretan.

Aukerako espazio horiek zehazteko, kontuan hartu behar da portuaren errealitatea eta Itsasadarraren bi aldeetan dauden instalazio industrialak daudela, portuaren emakida administratiboetan oinarrituta. Instalazio horiek itsasotik zein lurretik egoki iristeko modua behar dute, izan ere, gaur egungo kokapenean mantentzeko arrazoia da interes orokorreko jarduerak egiten direla, aberastasuna eta enplegua sortzeari dagokionez. Hori guztia kontuan hartu beharko da LPParen proposamenak definitzeko eta denboran programatzeko garaian, paisaiaren baldintzak hobetzeko lortu nahi diren jokalekuei dagokienez, azpiegitura edo sare

77/1984).

El PTP BM deberá tener en cuenta la condición del Puerto de Bilbao como puerto de interés general, que constituye una infraestructura de primer orden y de interés estratégico para Euskadi, en constante evolución y desarrollo, que tiene la condición de recinto aduanero y que requiere de una adecuada intermodalidad entre los diferentes modos de transporte y una conexión adecuada con viarios de alta capacidad terrestre y ferroviaria que no puede verse alterada por consideraciones de diseño urbano, ajenas a criterios estrictamente portuarios, que pudieran distorsionar la operativa de estos tráficos.

- Consideraciones sobre el PTP y su relación con el ámbito territorial y competencial del Puerto de Bilbao:

La APB comparte los objetivos de reordenar el entorno de la Ría de Bilbao y potenciar los espacios de oportunidad, habiendo contribuido sustancialmente en las últimas décadas a este objetivo.

Para la determinación de estos espacios de oportunidad hay que tener en cuenta la realidad portuaria y la existencia de diversas instalaciones industriales en ambas márgenes de la Ría, amparadas en concesiones administrativas portuarias. Estas instalaciones requieren de una adecuada accesibilidad marítima y terrestre, dado que su permanencia en los actuales emplazamientos responde al ejercicio de actividades de interés general, en términos de riqueza y empleo. Esto deberá considerarse en orden a la definición y programación en el tiempo de las propuestas del PTP respecto a los escenarios deseables para la mejora de las condiciones del paisaje, la

berdea delakoari jarraipena emateari dagokionez, eta herritarren eta ur laminaren arteko oztopo fisikoak kentzeari dagokionez.

LPPak portuan dagoen muga fisikoa hartu beharko du kontuan, baita ere portuaren etorkizuneko garapena zaintzeko beharra, eta indarrean dagoen Portuko Espazio eta Erabileren Mugaketan aurretiaz definitutako instalazioak errentabilizatzeko beharra. Kontuan hartu behar da ibaiertzeko udalerrietan jarduera ekonomikoetarako lurzoru gutxi dagoela, eta, horren ondorioz, Bilboko Portuak espazio handia behar duten enpresak hartu behar izan ditu, zeinak oso baldintzatuta dauden itsas garraioagatik eta garraio intermodalagatik; horregatik, itsasoari irabazitako lur azaleren lagapena egin behar izan da, ustiatzeko, oso kostu handiko eraikuntza proiektuak gauzatu behar izan direlarik.

LPPak kontuan hartu beharko du portuan dauden azalerak portuko ustiapenerako erabili beharko direla, baita etorkizuneko garapenetarako erreserbatuta daudenak ere, portu zerbitzuko mugetan kokatuta daudenak, kasu batzuetan aisialdi eta jolas esparruetarako aurreikusten diren espazioetako mugetan edo horietatik oso hurbil, eta, horrenbestez, portuaren interesa errespetatu eta nagusiarazi beharko da, LPParen helburuak eta portuaren errealitatea koherenteak izan daitezen, aurreikusita dauden zabalkundeei kalterik egin gabe (Kai Mutur Nagusiko proiektua).

LPParen Aurrerapenak egoki jasotzen ditu BPAren kezkak mugikortasunari, kanpokoarekiko konektibitateari eta logistikari dagokienez, alderdi horiek oso garrantzitsu eta interesgarriak direlarik Portuarentzat, Bilboko

continuidad de la denominada infraestructura o malla verde y la eliminación de barreras físicas entre la ciudadanía y la lámina de agua.

El PTP debe considerar la limitación física del espacio portuario existente y la necesidad de preservar el desarrollo futuro del puerto y la rentabilización de las instalaciones preexistentes definidas en la Delimitación de Espacios y Usos portuarios vigente. Hay que tener en cuenta que la escasez de suelo para actividades económicas en los municipios ribereños, ha llevado a acoger en el Puerto de Bilbao empresas con demandas importantes de espacio, muy condicionadas por el transporte marítimo e intermodal, lo que ha requerido la cesión para su explotación de superficies ganadas al mar mediante la ejecución de costosos proyectos constructivos.

El PTP deberá considerar la sujeción a la explotación portuaria de las superficies portuarias existentes, así como las destinadas a reserva para futuros desarrollos, ubicadas en los límites de la zona de servicio portuaria, en algunos casos en colindancia o proximidad con previsibles espacios de esparcimiento y áreas recreativas, debiendo respetar y considerar el prevalente interés portuario, con el fin de que los objetivos del PTP resulten coherentes con la realidad portuaria, sin menoscabo de las ampliaciones previstas (proyecto de Espigón Central).

El Avance del PTP recoge satisfactoriamente las inquietudes de la APB en relación a la movilidad, conectividad con el exterior y la logística, aspectos de gran relevancia e interés portuario, al objeto de mejorar el

Portua eta lurraldea lehen mailako plataforma logistiko moduan hobeto posizionatzeko xedearekin.

- <u>BM LPParen Aurrerapena eta Bilboko Portua:</u>

Lehenengo, bigarren eta bosgarren helburu estrategikoek –ingurune fisikoari eta azpiegitura berdeari, hiri habitata eta paisaia hobetzeari buruzkoak– hainbat jarduera ildo dituzte, aurreko puntuetan adierazitako alderdiak kontuan hartu beharko lituzketenak, Portuaren zerbitzuaren gunearen barruan dauden espazioei eragin diezaieketelako.

Helburu operatiboen matrizeak aurkezten dituen jarduera ildoak garatzeko erakundeen arteko hitzarmena beharko da aurrez, Portuan eragindako jabari publikoko espazioei dagokienez. Proposatutako jarduketak bat etorri beharko dira sektorearen legediarekin, eta erakundeek adostu beharko dituzte denboran zehar, LPParen interes orokorrak eta Bilboko Portu Agintaritzaren beraren interesak bateratu ahal izateko.

Iradokizunaren erantzuna:

Bilboko Portu Agintaritzak egindako ekarpenak eskertzen dira, eta dokumentua idazteko hurrengo faseetan kontuan hartuko dira.

Pentsatzekoa da portuaren esparruan aplika daitekeen legedi sektorialak BM LPParen hasierako onarpenaren dokumentuan aireportu, trenbide eta abarretarako ezartzen denaren antzeko tratamendua izango duela.

posicionamiento del Puerto de Bilbao y del territorio como plataforma logística de primer orden.

- <u>Avance del PTP BM en relación con el Puerto de Bilbao:</u>

Los objetivos estratégicos primero, segundo y quinto, relativos al medio físico e infraestructura verde, mejora del hábitat urbano y del paisaje, contienen líneas de actuación que, en cuanto podrían afectar a espacios comprendidos dentro de la zona de servicio portuario, deberán tener en consideración los aspectos indicados en los puntos anteriores.

La matriz de objetivos operativos contiene líneas de actuación para cuya ejecución se requerirá, en su caso, la previa concertación institucional en lo concerniente a aquellos espacios demaniales portuarios afectados. Las actuaciones propuestas deberán ajustarse a la legalidad sectorial y ser concertadas institucionalmente en el tiempo a fin de compatibilizar los intereses generales del PTP y los propios de la Autoridad Portuaria de Bilbao.

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las aportaciones realizadas por la Autoridad Portuaria de Bilbao que serán tenidas en cuenta en las siguientes fases de redacción del documento.

Cabe pensar que la legislación sectorial de aplicación en el ámbito portuario tenga un tratamiento similar en el documento para aprobación inicial del PTP BM, que las referentes a los ámbitos aeroportuario,

ferrocarriles, etc.

BM LPPak proposatzen duen jarduketa orok kontuan hartuko du portuko zerbitzu guneari eragiten dion ala ez.

Cualquier actuación propuesta por parte del PTP BM tendrá en cuenta si afecta a la zona de servicio portuaria.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 12 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Euskadiko Geologoen Elkargo Ofiziala<br>Ilustre Colegio Oficial de Geólogos del País Vasco |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 24/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Eskatzen da LPPak IGLak (Interes Geologikoko Lekuak) Babes Bereziko eremutzat har ditzan, Baldintzatzaile Gainjarri moduan jasota.

Halaber, eskatzen da antolamendu planetan arrisku geologikoko azterketak egin daitezela, aurrez dagoen legediarekin bat eginda.

Adierazten du LPPan modu zehatzagoan agertu behar direla arrisku geologiko nagusiak (ez soilik uholdeak gertatzekoa), "Baldintzatzaile Gainjarrien" atalaren barruan, baita horiei buruz aurretiazko azterketa egiteko derrigortasuna ere.

Resumen de la sugerencia:

Solicita que el PTP recoja como zonas de Especial Protección los LIGs (lugares de interés geológico), recogidos como Condicionante Superpuesto.

Asimismo que se establezca la obligatoriedad de realización de estudios de riesgo geológicos dentro de los planes de ordenación, de acuerdo a la legislación previa.

Señala que en el PTP debe figurar de forma más concreta los principales riesgos geológicos (no solo el de inundación) dentro del apartado de "Condicionantes Superpuestos" así como la obligatoriedad de efectuar estudios previos sobre los mismos.

Iradokizunaren erantzuna:

Egindako ekarpenak eskertzen dira.

Baloratuko da iradokizunean adierazitako alderdiak BMLPParen Hasierako Onespenaren fasean eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoan

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las aportaciones realizadas.

Se valorará la inclusión de los aspectos señalados en la sugerencia en la fase de Aprobación Inicial del PTPBM y del EAE, de

sartzea, araudi espezifikoak ezartzen duenaren arabera, edo bestela, gomendio moduan.

acuerdo a lo que establezca la normativa específica, o en su caso de forma recomendatoria.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 13 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | BETSAIDE ELKARTEA |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 27/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Analisi historikoa egiten da "Bilbo Haundia" Korporazio Administratiboaren gainean, Eremu Metropolitarren araubide juridikoaren gainean eta Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren deszentralizazio administratiboaren gainean. Proposatzen da Bilbo Metropolitarreko Esparru Funtzionalaren udalez gaindiko gobernantza instituzionalizatzea, bere burua Bilbon kokatuta, eta, ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiaren transferentziak egitea edo eskumenak delegatzea, Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partziala esparrua osatzen duten 35 udalerriekin batera planeatzeko eta garatzeko, Eremu Funtzional horretan Lurralde Historikoaren deszentralizazio administratiboa eginez.

Resumen de la sugerencia:

Se realiza un análisis histórico de la corporación administrativa "Gran Bilbao", del régimen jurídico de las Áreas Metropolitanas y de la descentralización administrativa del Área Funcional de Bilbao Metropolitano. Se propone iniciar la institucionalización de la gobernanza supramunicipal del Área Funcional de Bilbao Metropolitano, con la instauración de su cabecera en Bilbao, con las consiguientes transferencias o delegación de competencias de la Diputación Foral de Bizkaia, para el planeamiento y desarrollo del Plan Territorial Parcial de Bilbao Metropolitano, en cogobernanza con los 35 Ayuntamientos que la componen, mediante la descentralización administrativa del Territorio Histórico en esa Área Funcional.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen da jasotako iradokizuna, baina egitasmo horrek ez dauka lekurik lurraldea antolatzeko BM LPParen Berrikuspena

Contestación a la sugerencia:

Se agradece la sugerencia recibida, sin embargo esta iniciativa no tiene cabida en la formulación de un documento de ordenación territorial

bezalako dokumentu baten formulazioan, EAEko lurralde antolamenduaren eskumenen esparrutik kanpo dagoelako.

como es la Revisión del PTP de BM, dado que excede el marco competencial de la ordenación territorial en la CAPV.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 14 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Eusko Jaurlaritza- Lurralde Plangintza Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza<br>G. Vasco – Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 26/04/2018 |

GAIA: **Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna**

ASUNTO: **Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano**

Iradokizunaren laburpena:

INDARREAN DAGOEN LPP-REN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA.

Txostenak dioenez, egindako diagnostikoa bat dator LAGen berrikuspenak egin duen diagnostikoarekin, Bilbo Metropolitarrari dagokion zatian.

BILBO METROPOLITARRAREN EREMU FUNTZIONALEAN GARATU BEHARREKO HELBURU ESTRATEGIKOAK.

Planteamenduaren balorazioa aldekoa da, helburuak bat datozelako LAGen berrikuspenean planteatutako helburuekin.

DOKUMENTUAREN AZTERKETA. GOGOETA TEKNIKOAK:

1. INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

Resumen de la sugerencia:

SÍNTESIS DEL DIAGNÓSTICO DEL PTP VIGENTE.

El informe señala que el diagnóstico realizado está en consonancia con el diagnóstico realizado que ha efectuado la revisión de las DOT en la parte que afecta al Bilbao Metropolitano.

OBJETIVOS ESTRATÉGICOS A DESARROLLAR EN EL ÁREA FUNCIONAL DEL BILBAO METROPOLITANO.

La valoración del planteamiento es favorable ya que los objetivos son acordes con los planteados en la revisión de las DOT.

ANÁLISIS DEL DOCUMENTO. CONSIDERACIONES TÉCNICAS:

1. MEDIO FÍSICO E INFRAESTRUCTURA VERDE

- **Dokumentuaren inguruko hausnarketak Ingurune Fisikoari dagokionez:**

  Oro har, edukiaren gaineko aldeko balorazioa egiten da, eta LAGen berrikuspeneko helburuekin bat datorrela adierazten da.

  Halere, dibergentzia puntual batzuk atzematen dira:

  i) Antolamendu Kategoriek eta Baldintzatzaile Gainjarriek LAGetan ezarritakoa bete behar dute:

  -Antolamendu Kategoriak: izan behar dira *Babes Berezia, Ingurumen Hobekuntza, Basoa, Nekazaritza nahiz Abeltzaintza eta Landazabala, Mendi Larreak eta Gainazaleko Uren Babesa.*

  Nekazaritza nahiz Abeltzaintzako kategoria "Balio Estrategiko Handia" eta "Trantsizioko Landa Paisaia" kategorietan banatu daitezke, baina, txostenak dioenez, LPPak berariaz markatuko du bere araudian Nekazaritza eta Basoko LPSko kategorien banaketan egon daitekeen edozein aldaketak ez duela LPP hau aldatzea eragingo, eta aldaketa horretara egokitu daitekeela ala ez.

  -Baldintzatzaile Gainjarriak: definitzen diren baldintzatzaileak sakon eta kontu handiz aztertu

- **Reflexiones al documento en materia de Medio Físico:**

  En general se valora favorablemente el contenido y se menciona la correspondencia con los objetivos de la revisión de las DOT.

  No obstante se detectan divergencias puntuales:

  i) Las Categorías de Ordenación y Condicionantes Superpuestos deben ajustarse a lo establecido en las DOT:

  -Categorías de Ordenación: deberá ser *Especial Protección, Mejora Ambiental, Forestal, Agroganadera y Campiña, Pastos Montanos y Protección de Aguas Superficiales.*

  *La* categoría Agroganadera podrá subdividirse en "Alto Valor Estratégico" y "Paisaje Rural de Transición", pero el informe señala que de forma expresa el PTP señalará en su normativa que "*cualquier modificación que pudiera darse respecto a la subdivisión de las categorías del PTP Agroforestal, no conllevará la modificación de este PTP, pudiendo adecuar o no a dicha modificación*".

  -Condicionantes Superpuestos: se deberán analizar en profundidad y con cuidado los condicionantes

beharko dira.

- **Espazio Libreen Sistema Orokorrak** Baldintzatzaile Gainjarri moduan definitzeak gatazkak eragin ditzake.

- **Hiri baratzeak** jar daitezkeen eremuak kategorietan tratatu beharreko erabilera moduan hartu beharko lirateke, eta ez Baldintzatzaile Gainjarri moduan.

- Azpiegitura berdearen eta grisaren arteko gatazka eremuetako eta nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoetako Baldintzatzaile Gainjarriak zalantzan jartzen dira.

ii) LPPak ez ditu aztertzen lurzoru urbanizaezineko erabilera onargarriak eta debekatutakoak, LAGen Ingurune Fisikoaren Erabilera Matrizearen berariazko aipamena egin behar delarik.<0}

➢ **Dokumentuaren gaineko hausnarketak Azpiegitura Berdeari dagokionez**

Oro har, edukiaren aldeko balorazioa egiten da, eta aipatzen da LPPak aurrera egin beharko duela azpiegitura berdeen eta grisen arteko garazka puntuetan gertatzen diren

que se definen.

- La definición de los **SGEL** como Condicionante Superpuesto puede generar conflictos.

- Las Áreas potenciales para **huertos urbanos** debieran contemplarse como un uso a tratar en las categorías más que como un Condicionante Superpuesto.

- Se ponen en duda los CS de áreas de conflicto entre la infraestructura verde y la gris, y las áreas agropecuarias estratégicas.

ii) El PTP no hace un análisis de los usos admisibles y prohibidos en el suelo no urbanizable, debiendo hacer una remisión expresa a la Matriz de Usos del Medio Físico de las DOT.

➢ **Reflexiones al documento en materia de Infraestructura Verde**

En general se valora favorablemente el contenido y se menciona que el PTP deberá avanzar en establecer medidas para la gestión de las interacciones y conflictos que se producen en los

interakzioak eta gatazkak kudeatzeko neurriak ezartzeko.

puntos de conflicto entre las infraestructuras verdes y grises.

2. LANDA HABITATA

Gai honetan ez dago inongo eragozpenik, testuan dagoen akats bat zuzentzea izan ezik.

2. HÁBITAT RURAL

No hay nada que objetar en esta materia, salvo la subsanación de una errata en el texto.

3. HIRI HABITATA

Dokumentuan adierazten diren helburuak eta jarduera ildoak bat datoz LAGen berrikuspenean jasotako gidalerroekin eta jarduteko politikekin.

3. HÁBITAT URBANO

Los objetivos y líneas de actuación manifestados en el documento son acordes a las directrices y políticas de actuación recogidas en la revisión de las DOT.

Bizitegien kuantifikazioari dagokionez

LPPan egindako azterketei dagokienez, esaten da ulertzen zailak direla eta amaierako emaitza ez datorrela bat LAGetan kuantifikatzeko ezarritako irizpideekin.

Koadro bat aurkezten da 8 urtera begirako bizitegien kuantifikazioaren datuekin, LAGen berrikuspenaren Hasierako Onespenaren testuinguruan egindako azterketa batean oinarrituta, eta datuak 2015ean eguneratuta. Koadro horren gainean, LPPAk modu selektibo eta mugatuan ezarri ahal izango du Ereduaren osagaia.

Dioenez, LAGen irizpidea aplikatu beharko da, 8 urtera kuantifikatuta, hirigintzako planeamenduari erantzuteko.

Bizitegien kuantifikazioaren Lurralde Ereduaren kontzeptua udalerri jakin

Respecto a la cuantificación residencial

Sobre los estudios realizados en el PTP se indica lo complicado de entender y que el resultado último no encaja con los criterios de cuantificación ya establecidos en las DOT.

Se presenta una tabla con los datos de cuantificación residencial a 8 años obtenida tras el análisis efectuado en el contexto de la Aprobación Inicial de la revisión de las DOT, con los datos actualizados de 2015. Sobre esta tabla el PTP podrá aplicar de manera selectiva y limitada la componente de Modelo.

Apunta que será necesario aplicar el criterio de las DOT cuantificado a 8 años para dar respuesta al planeamiento urbanístico.

El concepto del Modelo Territorial en la cuantificación residencial debe

batzuei aplikatu behar zaie modu "selektiboan" eta "mugatuan".

Ados daude "lurzoru berriak ez birkalifikatzeko" planteamenduarekin (egoera puntualetan izan ezik), batzuen defizita konpentsatzeko besteen superabita erabiliz, eremuak birdentsifikatuz, ahal denean.

### Jarduera ekonomikoari dagokionez

Guztiz bat datoz LPPak Lurralde Eredurako planteatutako estrategiekin.

Lurzoruak Jarduera Ekonomikoetarako kuantifikatzeari dagokionez: Kalkuluko hainbat akats markatzen dira (esaterako, Aparkabisa dagoeneko JEko lurzoru moduan hartzen da, okupatutako azaleratik deskontatuta, eta, berez, Udalplanen Sistema Orokor moduan hartzen da); halaber, hutsik dagoen azalera, hektareatan, 2016ko zerrendan dagoena da, baina azken urteetan lurzoru berriak gehitu zaizkio.

> Horren arabera, txostenak kalkulatzen ditu datozen 16 urteetarako proiektatu den bilakaera (222,40 ha) eta Azalera Librea (802,35 ha), eta, eraginengatik egindako zuzenketaren ondoren (urak hartzeko arriskua, maldak, eragin geoteknikoak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak...), 209,14 ha geratzen dira. Hau da, beharrak asetzeko behar denaren azpitik (%6).

aplicarse de manera "selectiva" y "limitada" a determinados municipios.

Se comparte el planeamiento de "no recalificar nuevos suelos" (salvo casos puntuales) compensando el déficit de unos con el superávit de otros, redensificando aquellos ámbitos en los que esto sea posible.

### Respecto a la actividad económica

Se comparte plenamente las estrategias planteadas en el PTP para el Modelo Territorial.

Sobre la cuantificación de los Suelos para AAEE: Se señalan algunos errores en el cálculo (como la consideración de Aparkabisa como suelo de AAEE existente que se descuenta de la superficie ocupada, cuando en realidad es considerado en Udalplan como SG).;y que la superficie vacante en Has es la que reza en el listado de 2016, ya que se han ido incorporando nuevos suelos estos últimos años.

> Con ello el informe calcula la evolución proyectada para los próximos 16 años (222,40Ha) y la Superficie Vacante (802,35Has) que tras la corrección por afecciones (inundabilidad, pendientes, geotécnicas, suelos potencialmente contaminados....) queda en 209,14Has. Es decir, por debajo (un 6%) de lo necesario para cubrir las necesidades.

Halaber, adierazten da LPPak ez dituela baztertu behar kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak erabili daitezkeen lurzoruen sailkapenetik, eta urak hartzeko arriskua dutenak LPSaren arabera tratatu behar direla.

También señala que el PTP no debe excluir los suelos potencialmente contaminados de la consideración de suelos con potencial de utilización, y que los inundables deben ser tratados de acuerdo al PTS.

Industrialdeak solairu bat baino gehiagoko eraikuntzekin birdentsifikatzea proposatzen da.

Se aboga por la redensificación de polígonos con edificaciones en más de una planta.

Ez dadila Jarduera Ekonomikoen LPSko udalerrien kategorizazioa ahaztu: “lehentasunezko interesa”, “hazkunde moderatua” eta “garapen txikia”, JErako lurzorua antolatzeko politika orokorrak ezartzeko.

Que no se olvide la categorización de municipios del PTS de AAEE en “interés preferente”, “crecimiento moderado” y “bajo desarrollo”, para establecer las políticas generales de ordenación del suelo para AAEE.

Jerako lurzoruari buruzko azterketa eskasa dela jotzen da, Kanpoko Portuari atxikitako lurzoruari buruz edo horrek eragindakoari buruz, eta berdin aireportuari lotutako lurzoru logistikoari dagokionez.

Se considera insuficiente el análisis de suelo de AAEE relativo o afectante al suelo adscrito al Puerto Exterior así como al suelo logístico vinculado al aeropuerto.

Periferiako saltoki handien azalera mugatzeko proposamena azpimarratzen da, gaur egun tramitatzen ari den JE eta Saltoki Handietarako LPSaren Berrikuspen Partzialean proposatzen denaren arabera.

Se incide en la propuesta de limitación de la superficie de los grandes centros comerciales de periferia propuesta por la Revisión Parcial del PTS de AAEE y Grandes Centros Comerciales actualmente en tramitación.

Plangintzak bateratzeari dagokionez

Respecto a la compatibilización de planeamientos:

LPPa eskala egoki batera jaitsi beharko da, dokumentazio grafiko batekin,

El PTP deberá descender a una escala adecuada, con una documentación

zeinean modu zehatzagoan identifikatuko diren bateratzeko eremu zehatzak, mugaketa zehatza ezarriz, eta, are gehiago, eragindako plangintzek modu bateratuan jarraitu beharreko gidalerroak planteatuz.

Aipamen berezia egiten zaio itsasadarraren eremuari, eta esaten da LPPak gehitu eta osatu egin beharko duela etorkizuneko Bateratze Planerako irizpideekin egindako azterketa.

Iradokizunaren erantzuna:

Dokumentua idazteko hurrengo fasean iradokizun horiek kontuan hartuko dira.

Zehazki:

- Ingurune Fisikoari eta Azpiegitura Berdeari buruzko hausnarketak direla eta, LAGetan ezarritako Antolamendu Kategorietara egokituko dira, eta aipatzen diren Baldintzatzaile Gainjarriak berraztertuko dira.

  Dokumentuaren erredakzioaren hurrengo faseetan sakonduko dira azpiegitura berdearen eta grisaren arteko gatazkak kudeatzeko neurriak.

- Bizitegi kuantifikazioa dela eta, beharrezkoa izango da LAGen berrikuspeneko bizitegi kuantifikazioaren arabera berrikustea, eta ondoren LEZ

gráfica en la que se identifiquen de manera más detallada, ámbitos concretos de compatibilización, estableciendo la delimitación concreta e incluso plantear las directrices a seguir de forma conjunta por los planeamientos afectados.

Con mención especial sobre el ámbito de la ría, señala que el PTP deberá incorporar y completar el análisis efectuado con criterios para el futuro Plan de Compatibilización

Contestación a la sugerencia:

Se tendrán en cuenta estas observaciones para la siguiente fase de redacción del documento.

En concreto:

- respecto a las reflexiones acerca del Medio Físico y la Infraestructura Verde, se ajustarán las Categorías de Ordenación a las establecidas por las DOT y reconsiderarán los Condicionantes Superpuestos que se mencionan.

  En posteriores fases en la redacción del documento se profundizará en la definición de medidas para la gestión de los conflictos entre la infraestructura verde y la gris.

- Respecto a la cuantificación residencial, será necesario revisarla de acuerdo a la cuantificación residencial establecida en la revisión de las

ereduko osagaiaren arabera modulatuko da, zeina LPPen eskumena den, eta udalerriek etxebizitza hartzeko duten gaitasuna baloratzen duen.

- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruen kuantifikazioa dela eta, beharrezkoa izango da txostenean adierazitako irizpideen arabera berrikustea. Halaber, beharrezkoa izango da urteko okupazioaren ratioa berrikustea, izan ere, 2004 eta 2016 artean, lurzoruaren okupazioaren erritmoa aurreko urteetan baino askoz txikiagoa da.

- Planeamenduak bateratzeari dagokionez, dokumentuaren erredakzioaren hurrengo faseetan horixe izango da gehien azpimarratuko den alderdietako bat, bereziki Itsasadarraren inguruan.

DOT, que posteriormente se modulará con el componente de modelo CMT que es competencia de los PTP y valora la capacidad de acogida de los términos municipales.

- Respecto a la cuantificación de los suelos para actividades económicas, será necesario revisarla de acuerdo a los criterios señalados en el informe. También será necesario revisar el ratio de ocupación anual, ya que el ritmo de ocupación de suelo entre 2004 y 2016 es mucho menor que el de los años anteriores.

- Respecto a la compatibilización de planeamientos, en las siguientes fases en la redacción del documento este será uno de los aspectos en los que más se incida, en especial en el entorno de la Ría.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 15 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 07/02/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Iradokitzen da BMLPPtik lan egin behar dela "udalerriek ez diezaioten elkarri bizkarra eman". Esaten da udalerri askok industrialdeak erabiltzen dituztela ondoko beste udalerrietatik bereizteko edo bakartzeko, eta hainbat adibide jartzen dira, hala nola: Sestao-Barakaldo, Zorrotza-Barakaldo, Leioa-Getxo, Erandio-Bilbo eta Bilbo-Etxabarri. Eta esaten da horrela ez dagoela metropoli kohesionatu bat eratzerik.

Aitzitik, adibide positibo moduan aipatzen dira: Sestao Abatxolorekin, eta Potugalete Santurtzirekin

Resumen de la sugerencia:

Se sugiere que se trabaje desde el PTPBM para conseguir *"que los municipios no se den la espalda unos a otros"*. Indica que bastantes municipios utilizan las zonas industriales para delimitarse o aislarse de los otros municipios aledaños, y pone algunos ejemplos como: Sestao-Barakaldo, Zorroza-Barakaldo, Leioa-Getxo, Erandio-Bilbao, y Bilbao-Etxabarri. Y se apunta que de esta forma no puede conformarse una *urbe cohesionada.*

Por otro lado, como ejemplos positivos se apuntan: Sestao con Abatxolo, y Potugalete con Santurtzi.

Iradokizunaren erantzuna:

LPParen Berrikuspenaren nahia da lurraldea udalerriz gaindiko ikuspegiarekin antolatzea, gai guztietan kohesio eta koherentzia handiagoa lortzeko, batez ere udalerrien bateragarritasunaren atalean.

Bateragarritasuna da BMLPParen Berrikuspenaren Aurrerapen honetan identifikatu diren 10 Helburu Estrategikoetako

Contestación a la sugerencia:

La Revisión del PTP pretende ordenar el territorio con una visión supramunicipal, para lograr una mayor cohesión y coherencia en todos los aspectos, sobre todo en el capítulo de compatibilización de municipios.

La Compatibilización es uno de los 10 Objetivos Estratégicos que se han identificado en este Avance de la Revisión del PTPBM. Se pretende

bat. Horrekin, lurralde estrategiaren koherentzia bultzatu nahi da lurralde osoan, bai udal mailan, bai Bilbo Metropolitarraren mailan.

Horretarako, hainbat irizpide, jarraibide eta jarduketa ildo ezarri dira, iradokitzen denaren ildoan doazenak, eta ez soilik industriarako edo jarduera ekonomikoetarako lurzoruetan, baizik eta planeamendu integratu bat behar duten egoera guztietan ere, udal esparruaren mugaketa administratiboa gainditzen badute.

con ello favorecer la coherencia de la estrategia territorial en el conjunto del territorio, tanto a nivel municipal como a nivel de Bilbao Metropolitano.

Se han establecido para ello diferentes criterios, directrices y líneas de actuación, que van en la línea de lo que se sugiere, y no solo en el ámbito de los suelos industriales o de actividad económica, sino en todos aquellos casos que requieran un planeamiento integrado que supere la delimitación administrativa del término municipal.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 16 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 09/02/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Bilbotik Balmasedarako trenbidearen trazatu alternatibo bat planteatzen du, Cadaguako bidegurutzearen, Iraurgi eta Kastrexanako geltokien artean, eta metroaren etorkizuneko 4. linearen artean  2 km-ko tunel bat eginez, Feveko lineari Bilboko erdigunerako sarrera emateko eta metrora zuzenean aldatu ahal izateko.

Resumen de la sugerencia:

Plantea una propuesta de trazado alternativo al ferrocarril de Bilbao hacia Balmaseda, en base a un túnel de 2 km. entre el cruce del Cadagua entre las estaciones de Iraurgi y Castrejana y el inicio de la futura línea 4 de metro, con el objeto de dar a la línea de Feve entrada al centro de Bilbao y transbordo directo al metro.

Iradokizunaren erantzuna:

Egindako ekarpenak eta ahalegina eskertzen dira. Egindako proposamena ez dator bat gaian eskumena duten administrazioen planifikazio sektorialarekin. LPPak planeamendu alternatibo bat egin lezake aurrez administrazio sektorialekin adostuta, baina horretarako lurralde entitate eta eskaletan oinarritu beharko litzateke. Kasu honetan badirudi ez dagoela horrelako ingurumaririk, eta gainera, beste zailtasun bat dago, eta hori da inplikaturiko lineen kudeatzaileen titulartasuna, Feve eta Metroa, lurralde

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las aportaciones realizadas y el esfuerzo realizado. La propuesta realizada no coincide con la planificación sectorial de las administraciones competentes en la materia. El PTP podría hacer un planteamiento alternativo previamente acordado con las administraciones sectoriales, si bien éste debería estar fundado en razones de entidad y escala territorial. En el caso presente no parece que se den estas circunstancias y cuenta con la dificultad añadida de que la titularidad de los gestores de las líneas implicadas, Feve y Metro, dependen de

aldetiko maila desberdineko administrazioen menpe dagoela, autonomiko eta estatala, hain zuzen.

administraciones de distinto rango territorial, esto es, autonómico y estatal.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 17 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 12/03/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak onartutako HAPOak behin eta berriro baliogabetu dituelarik, Lezama udalerria ezin izan da garatu Txorierriko gainerako udalerrien plangintzen baldintza berdinetan. Horrek galarazi egin du bizitegietarako lurzoruak zein industriakoak garatzea, eta, ondorioz, Lezamako hainbat belaunaldi herritik kanpora joan behar izan dira bizitzera eta lan egitera. Iradokitzen da Lezamaren egoera kontuan hartzeko LPParen barruan.

Resumen de la sugerencia:

Las sucesivas anulaciones del TSJPV de los PGOU aprobados han impedido el desarrollo del municipio de Lezama en las mismas condiciones que los planeamientos del resto de municipios del Txorierri. Esto ha impedido el desarrollo de suelos tanto residenciales como industriales, con lo que varias generaciones de Lezama han tenido que ir a vivir y trabajar fuera del pueblo. Se sugiere que se tenga en consideración la situación de Lezama dentro del PTP.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen da jasotako ekarpena, baina iradokizunean egiten diren eskakizunak ezin dira BM LPParen Berrikuspenean ebatzi, Lezamako Udala izan behar delako bertan behera utzitako HAPOa gauzatu ahal izateko egin beharreko zuzenketak bultzatu behar dituena.

Contestación a la sugerencia:

Se agradece la aportación recibida, sin embargo las demandas de la sugerencia no se pueden resolver en la revisión del PTP BM sino que debe ser el Ayuntamiento de Lezama el que promueva las correcciones necesarias para llevar adelante el PGOU anulado.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 18 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 15/03/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Abiapuntua Erandio udalerriaren egoera kaskarra da, hirigintzako planeamenduaren ikuspegitik, eta hainbat iradokizun planteatzen dira:

1. Ibilgailu eta oinezkoen konexioa hiru herriguneen artean (Altzaga, Astrabudua eta Goikoa), udalerria egituratzen laguntzeko, alderdi hori ez baita kontuan hartzen ez BM LPPan ez HAPOan.

2. Sestaoko biribilguneen eta Altzaga-Erandion aurreikusten denaren arteko zubiaren aurreikuspena kentzea. Ulertzen da zubi horrek oztopatu egiten duela Bilboko itsasadarreko ur lamina lehengoratzea. Zubia eraikitzen bada iradokizun hauek bideraezinak izango lirateke: 1, 3, 6 eta 7.

3. Txurruka pasealekua berreskuratzea. Oinezkoentzako erabilera ahalbidetzea itsasadarraren ondoan, 50eko urteetan erabilera publikoa debekatu zen arte egin zitekeen bezala. Herritarrak ur laminara

Resumen de la sugerencia:

Se parte de la deficiente situación del municipio de Erandio desde el punto de vista del planeamiento urbanístico y se plantean diversas sugerencias:

1. Conexión rodada y peatonal entre los tres núcleos de población (Altzaga, Astrabudua y Goikoa) para contribuir a estructurar el municipio, aspecto que no se tiene en cuenta ni en el PTP BM ni en el PGOU.

2. Eliminación de la previsión del puente entre las rotondas de Sestao y la que se prevé en Altzaga-Erandio. Se entiende que este puente dificulta la recuperación de la lámina de agua de la ría de Bilbao. La construcción de este puente haría inviable las sugerencias: 1ª, 3ª, 6ª y 7ª.

3. Recuperación del Paseo Txurruka. Posibilitar el uso peatonal junto a la ría, que se podría efectuar hasta que en los años 50 se prohibió el uso público. Se busca un acercamiento de la población a la lámina de agua como se está

hurbiltzea nahi da, Zorrotzaurren eta beste leku batzuetan egiten ari diren bezala.

4. Metroa lurperatzea Erandioko geltokitik Deliciaseraino. Hezkuntza gunearen parean kutsadura akustikoaren arazoa konpondu nahi da, eta Altzagako nukleoko erdigunean bulebar handi bat egitea, nukleoa barrutik egituratu ahal izateko.

5. Udal parkea Altzaga nukleoan. Aipatzen da hirigintzako garapenak zeuden espazio libre guztiak kontsumitu dituela eta 20 ha baino ez direla geratzen, zeinak desagertu egingo dira, 420 etxebizitza egiteko aurreikuspenarekin. Hainbat aukera planteatzen dira etxebizitzak eraikitzea eta espazio librea mantentzea bateratzeko.

6. Itsas Bulebarra zirga bidean. Itsas bulebar modu bat aztertzea planteatzen da, Ategorriko Bidea kalearen eta Cable y Alambres enpresaren artean.

7. Altzaga eta Astrabudua lotzeko espaloia eta bidegorria. Erandio-Barakaldo gasolinoaren ontziralekutik Axpe-Astrabuduraino.

Halaber, martxoaren 13an Sondikan egin zen bileran dagoeneko planteatu ziren hainbat gai ere aipatzen dira:

8. BM LPPan etxebizitza jasangarriko irizpideak sartzea, dentsitate handiko etxebizitzak sustatuz.

9. Lurzoru berrien erabilera murriztea

haciendo en otros puntos como Zorrozaurre.

4. Soterramiento del Metro desde la estación de Erandio hasta Las Delicias. Se busca solucionar el problema de contaminación acústica a la altura de la zona educativa y la ejecución de un gran boulevard en el centro del núcleo de Altzaga, que permitiría articular internamente dicho núcleo.

5. Parque Municipal en el núcleo de Altzaga. Se comenta que el desarrollo urbanístico ha consumido todos los espacios libres existentes y que únicamente quedan 20 has. que van a desaparecer por la previsión de 420 viviendas. Se plantean opciones para compatibilizar la construcción de viviendas y el mantenimiento de espacio libre.

6. Boulevard Marítimo en la carretera de sirga. Se plantea el estudio de una especie de boulevard marítimo entre la calle Ategorriko bidea y la empresa Cables y Alambres.

7. Acera de conexión entre Altzaga y Astrabudua y bidegorri. Desde el embarcadero del gasolino Erandio-Barkaldo, hasta Axpe-Astrabudua.

Se apuntan también diversas cuestiones ya planteadas en la reunión celebrada en Sondika el día 13 de marzo:

8. Incluir en el PTP BM criterios de vivienda sostenible fomentando la vivienda con una densidad importante.

9. Reducir la utilización de nuevos suelos

eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen erabilera lehenestea.

10. Trorierrirako metro linea berri bat planteatzea, Lutxana-Erandio artean Larrabetzuraino.
11. Dagoen kultur ondarea berreskuratzea, zehazki, Martiartuko Dorrea eta errotak, suntsitzeko prozesuan baitaude.
12. Dauden zabortegiak identifikatzea, eta Enekurin dagoen industri hondakinen zabortegia aprobetxatzea, Sakoniranzko beheko ibarrean, zementuaren industriarako.

Iradokizunaren erantzuna:

1. BM LPParen irizpideetako bat udalerrien arteko artikulazioa da, oinezkoen eta bizikleten moduan bitartez, besteak beste. Aitzitik, egindako proposamenak udalerriko eskala garbia dauka, gehienbat HAPOari dagokiona.

2, 4, 10: garraio eta komunikazioetarako azpiegituren planifikazioak bere mekanismo propioak dituen arren, LPPak aurreikuspen sektorialak bideratu behar ditu, asentamenduekin, paisaiarekin, ingurunearekin eta abarrekin duen interakzioaren arabera. 2. puntuari dagokionez, zubia eraikitzeari dagokionez, betiere saiatu behar litzateke Altzaga eta uraren planoaren artean barrera efekturik ez sortzen. 4. puntuan, metroa lurperatzeari dagokionean,

y priorizar la utilización de suelos potencialmente contaminados.

10. Plantear una nueva línea de Metro para el Txorierri entre Lutxana-Erandio hasta Larrabetzu.
11. Recuperar el patrimonio cultural existente, específicamente la Torre de Martiartu y los molinos, que están en proceso de destrucción.
12. Identificar los vertederos existentes y aprovechar el vertedero de residuos industriales en Enekuri, vaguada hacia Sakoni, para la industria cementera.

Contestación a la sugerencia:

1. La articulación intermunicipal, a través de los modos peatonal y ciclista, entre otros, es un criterio del PTP BM. Sin embargo, la propuesta realizada tiene una escala netamente municipal más propia del PGOU.

2, 4, 10: Si bien la planificación de las infraestructuras de transportes y comunicaciones tiene sus propios mecanismos de planificación, el PTP debe encauzar las previsiones sectoriales en función de su interacción con los asentamientos, el paisaje, el medio, etc. En relación al punto 2, la construcción del puente, en su caso, debería siempre evitar crear un efecto barrera entre Alzaga y el plano de agua. El soterramiento del metro, punto 4, es una reivindicación local. En relación al

erreibindikazio lokala da. 10. puntuari dagokion, logikoa dirudi Txorierri eta Itsasadarraren arteko konexio efizienteago batean pentsatzea, irtenbidea Metroaren linea berri bat izan beharrik gabe.

1, 3, 5, 6 eta 7: eskala lokaleko proposamenak dira, HAPOari dagokionak.

8 eta 9. BM LPPak bat egiten du irizpide horiekin.

11. Ondarea berreskuratzeko irizpide orokorra bat dator LPParekin, baina jarduketa zehatzak gauzatzea beste eskala eta organismo batzuei dagokie.

12. Aztertu beharreko gai bat da, izan ere, LPPak ingurumena hobetzeko zonak detektatu behar ditu, zabortegi potentzialak... dagokien administrazioei planteatzeko.

punto 10, parece lógico pensar en una conexión más eficiente entre el Txorierri y la Ría, sin que la solución tenga que ser una nueva línea de Metro.

1, 3, 5, 6 y 7: Se trata de propuestas de escala local, propias del PGOU.

8 y 9. Estos criterios son compartidos por el PTP BM.

11. El criterio general de recuperación del patrimonio es coherente con el PTP, sin embargo la ejecución de las actuaciones concretas depende de otras escalas y organismos.

12. Se trata de una cuestión a analizar, ya que el PTP debe detectar zonas de mejora ambiental, potenciales vertederos... para su planteamiento a las administraciones responsables.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 19 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 16/03/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Iradokizuna da LPPan, Osasunaren atalean, airearen kalitateari edo airearen kutsadurari buruzko irizpideak edo gomendioak sartzea.

Eta, horren bitartez, udalerriak kontzientzia eta saiatzea planeamendu orokorraren bitartez airearen kalitateari buruzko azterketak egitea, baita prebentzio planak eta jarraipen planak ere.

Kezka adierazi da Superportuan enpresa berriak kokatu direnetik Getxon nabaritzen den usain txarragatik. Hainbesteraino, ezen batzuetan ibilgailuetan hauts horixka bat dagoela ikusten baita.

Hirigintzako tresnen bitartez kutsadura kontrolatu ahal izateko nahia adierazten da.

Resumen de la sugerencia:

Se sugiere que se incorporen en el PTP criterios o recomendaciones de la calidad del aire o de la contaminación del aire en el apartado de Salud.

Y con ello concienciar a los municipios e intentar que a través del planeamiento general se hagan estudios de calidad del aire, y planes de prevención y seguimiento.

Se muestra preocupación por el mal olor que se siente en Getxo desde que se han instalado empresas nuevas en el Superpuerto. Hasta tal punto que en ocasiones se advierte la existencia de un polvo amarillo posado en los coches.

Se muestra el deseo de que por medio de las herramientas urbanísticas se pueda llevar un control de la contaminación..

Iradokizunaren erantzuna:

Hasierako Dokumentuaren aurretik egin zen Diagnostikoan eremu funtzionaleko airearen kalitateari buruzko analisi bat dago.

BMLPParen Aurrerapenean, Osasunari eskainitako atalean (zeharkako alderdi moduan integratuta), helburu operatibo moduan markatzen da eraikitako espazioaren eta libre dagoenaren arteko oreka sustatzea, espazio

Contestación a la sugerencia:

El diagnóstico que se realizó previo al Documento Inicial lleva un análisis de la calidad del aire en el área funcional.

El Avance del PTPBM, dentro del capítulo dedicado a la Salud (integrado como aspecto transversal), se marca como objetivo operativo impulsar un modelo territorial que fomente el equilibrio entre el espacio edificado y libre, que

publiko integratu, askotariko, seguru eta unibertsalki irisgarrien sare moduan eratuta, eta mugikortasun aktibo eta jarrera osasungarriak erraztea, komunikazioa eta kohesio soziala sustatzeaz gain.

se configure con una red de espacios públicos integrados, diversos, seguros y universalmente accesibles que favorezca la movilidad activa y las conductas saludables además de promover la comunicación y la cohesión social.

Baina, lurralde fisikoaren diseinutik eta antolamendutik lantzen diren ikuspegiez gain, BMLPParen Aurrerapenak jasotzen du beharrezkoa dela klima aldaketara egokitzeko eta arintzeko neurriak ezartzea, osasunean eta ingurumenean gerta daitezkeen kalteak murrizten laguntzeko. Horretarako, Aurrerapenak aurreikusten du beharrezkoa izango dela jatorri naturaleko zein antropogeniko arriskuak identifikatzea, eta horiek minimizatzeko planak ezartzea, eragiten dituzten heriotza eta gaixotasunak gutxiagotzeko.

Pero además de los enfoques desde el diseño y la ordenación del territorio físico, el Avance del PTPBM recoge la necesidad de implantar medidas de adaptación y mitigación al cambio climático, que ayuden a disminuir posibles daños en la salud y en el medio ambiente. Para ello el Avance estima que será necesario identificar los diversos peligros de origen natural o antropogénico, y establecer planes para minimizarlos disminuyendo la mortalidad y las enfermedades asociadas.

Kutsadura Osasunarekin eta Klima Aldaketarekin zerikusi zuzena duen alderdi bat da, eta, ondorioz, BMLPPak eskaini ditzakeen aukerak baloratuko dira, gaiaren jarraipena eta kontrola egiteko. Horregatik, positibo baloratzen da hirigintzako planeamenduei horrelako irizpideak gehitzeko proposamena, airearen kalitateari buruzko azterketak eta prebentzio eta jarraipen planak egitearen garrantzia azpimarratuz.

La contaminación es un aspecto directamente relacionado con la Salud y con el Cambio Climático, por lo que se valorarán las posibilidades que este PTPBM tiene, para incidir en el seguimiento y control del mismo. Por ello se valora positivamente la propuesta de incorporar criterios a los planeamientos urbanísticos para incidir en la realización de estudios de la calidad del aire y planes de prevención y seguimiento.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 20 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 11/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Proposatzen du LPPan hainbat alderdi sartzeko, orokorrak badira ere, Hiri Paisaiari buruz (irizpideak, estrategia orokorrak, etab.). LPPan paisaia lantzen da, baina hiri paisaiari oro gutxian erreparatzen zaio, eta ingurune horretantxe ematen dute Bilbo Metropolitarreko biztanleek denborarik gehiena.

Resumen de la sugerencia:

Sugiere que en el PTP se incluyan consideraciones, aunque sean generales sobre el Paisaje Urbano (criterios, estrategias generales, etc.). En el PTP se trata sobre paisaje, pero al paisaje urbano rara vez se le presta atención y constituye el entorno en el que los habitantes del Bilbao Metropolitano pasan la mayor parte de su vida.

Iradokizunaren erantzuna:

Iradokizuna kontuan hartuko da, Bilboko Metropolitarreko Paisaiaren Katalogoa BM LPParen hurrengo faseekin batera eta modu koordinatuan idatziko baita.

Contestación a la sugerencia:

Se tendrá en cuenta la sugerencia, dado que el Catálogo del Paisaje del Bilbao metropolitano se va a redactar de forma simultánea y coordinada con las siguientes fases del PTP BM.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 21 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 19/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Aizkorriko pinudien balioa azaleratzen du: Goienetxekoa eta Sopelako mugan dagoena, paisaiaren parte diren basoak direlako.

Resumen de la sugerencia:

Poner en valor los pinares de Azkorri: el de Goienetxe y el que linda con Sopelana, ya que son bosques que forman parte del paisaje.

Iradokizunaren erantzuna:

Berez, kokatuta dauden kosta eremua hainbat figuraren bidez babestuta dago, eta Aurrerapenean azpiegitura berderako egiten den proposamenean sartuta daude.

Contestación a la sugerencia:

En principio, la zona de costa en la que se sitúan, está protegida por diferentes figuras e incluidos en la propuesta de infraestructura verde que propone el Avance..

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 22 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 22/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

1. Mendi magalak babestea, zehazki, Eskurtotik Uriosteraino doana, Sakanetik igarota bai bidegorriraino iristen den iparraldeko magala bai errepide nazionalarekin mugan dagoen hegoaldeko magala.
2. Ibarbide eta isurbide naturalak babestea.
3. Banales auzoan abandonatuta, zaharkituta eta erorita dauden industri guneak deskalifikatzea (zehazki, garai bateko AFER ingurua eta Otxartaga Berri futbol zelaiaren ondoko gunea, Barguilla auzoan

Resumen de la sugerencia:

1. Proteger las laderas de los montes, concretamente el que va desde Eskurto hasta Urioste pasando por el Barranco tanto la ladera Norte que llega hasta el bidegorri como la ladera sur que limita con carretera nacional.
2. Proteger vaguadas y escorrentías naturales
3. Descalificar las zonas industriales abandonadas, obsoletas y en ruinas del Barrio de Banales (en concreto la zona de la antigua AFER y la zona contigua al campo de fútbol Otxartaga Berri en el barrio de Barguilla.

Iradokizunaren erantzuna:

1-2.Egindako proposamena positibo baloratzen da, mendi hegalak, ibarrak eta isurbideak babesteari dagokionez, izan ere, alderdi hori bat dator BMLPParen helburu estrategikoekin. Dokumentuaren erredakzioaren hurrengo faseei begira, kontuan hartu beharko da paisaiak baloratzeko eta tratatzeko euskarri eta perspektiba emaile moduan duen

Contestación a la sugerencia:

1-2. Se valora favorablemente la aportación realizada en cuanto a la protección de las laderas de los montes, vaguadas y escorrentías, ya que es una cuestión que va en la línea con los objetivos estratégicos del PTPBM. De cara a las fases posteriores en la redacción del documento habrá que tener en cuenta su valor como soporte y como fondo de perspectiva en la valoración y

garrantziagatik.

3. Abandonatu, zaharkitu edo erorita dauden industrialdeak sailkapenetik ateratzeko proposamenari dagokionez, baztertu egiten da, oso ondo justifikatuta egoeretan izan ezik, lurraldean jarduera ekonomikoetarako lurzoru gutxi dagoelako, izan ere, LPPak, oro har, horiek lehengoratzea aldarrikatzen du, dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzoruaren balioa agerian jartzeko eta lurzoru berriaren kontsumoa mugatzeko filosofiarekin.

Aitzitik, beharrezkoa izan daiteke zehazten diren guneetan dauden egoerak aztertzea, proposamena baloratu ahal izateko.

tratamiento de los paisajes

3. La propuesta sobre la desclasificación de las zonas industriales abandonadas, obsoletas y en ruinas se estima desfavorable salvo en excepciones muy justificadas, debido a la escasez de suelos de actividades económicas que hay en el territorio, ya que el PTP propugna en general su regeneración con la filosofía de poner en valor el suelo ya urbanizado y limitar el consumo de nuevo suelo.

Sin embargo podría considerarse la necesidad de analizar las circunstancias que concurren en las dos zonas que se señalan con el objeto de valorar la propuesta.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 23 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 24/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Getxo udalerriaren testuinguruan proposatzen da:

- Kostalde osoa eta ondoko Aixerrota eta Aizkorriko pinudiak naturagune moduan kalifikatzea.
- Andra Marin garatu gabe geratu diren lurzoruak sailkapenetik kanpo uztea.
- Estratetako zirkulazioa arautu eta ahal dela murriztea (gaur egun bide natural horiek aisialdirako eta kirolerako erabiltzen dira, eta dauden bezala mantendu beharko lirateke).

Resumen de la sugerencia:

En el contexto del municipio de Getxo se propone:

- Calificar como espacio natural todo el espacio costero y los pinares adyacentes de Aixerrota y Aizkorri.
- Desclasificar los suelos de Andra Mari que no han sido desarrollados.
- Regular y reducir en lo posible el tráfico de las estradas (caminos naturales que en la actualidad sirven de zonas de ocio y deporte y deberían mantenerse como están).

Iradokizunaren erantzuna:

Berez, kostalde osoa hainbat babes figuraren bitartez babestuta dago. Hasierako onespenaren fasean berriro analizatuko dira ingurune fisikoko elementuak, eta pinudi horien kokapena eta interesa berrikusiko da.

LPParen Aurrerapenak irizpide moduan ezartzen du lurzorua sailkapenetik atera daitekeela, eta hori analizatzen eta aztertzen jarraituko da hasierako onespenaren dokumentua prestatzeko fase honetan, Udalei

Contestación a la sugerencia:

En principio toda la zona costera queda protegida por diferentes figuras de protección. En la fase de aprobación inicial se analizarán de nuevo los elementos del medio físico, y revisará la ubicación e interés de estos pinares.

El Avance del PTP establece como criterio la posibilidad de desclasificación de suelo, que se seguirá analizando y estudiando en esta fase de elaboración del documento de aprobación inicial con la intención de sugerir a los

eskatzeko euren planeamenduetan garatu gabeko lurzoruen sailkapenak berrikusi ditzaten.

Estraten erregulazioak gehiago planeamendu urbanistikoari dagokion eskala dauka..

Ayuntamientos que revisen sus respectivos planeamientos las clasificaciones de los suelos no desarrollados.

La regulación de las estradas tiene una escala más propia del planeamiento urbanístico.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 24 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 30/04/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

2006ko LPPari dagokionez, uste du oso modu irregularrean garatu dela, etxebizitzak eta industria hazteko aurreikuspenak perspektiba sozioekonomiko okerrarekin egin zirela.

Lezamari buruz, aipatzen da nola Lezamako HAPOa egintza erabat deuseztzat jo zela 2018ko otsailean, eta Lezamako Udalak Auzitegi Gorenean aurkeztutako errekurtsoaren ebazpenaren zain dagoela.

LPParen Aurrerapenak dio Lezamako HAPOa behin betiko onartuta dagoela, eta bi lurzoruren birkalifikazioa jasotzen du, zeinak balio handiko landa lurrak ziren, Ugarten eta Kurtzen, bertan bi harizti daudelarik.

Aurrekoa kontuan hartuta, eskatzen du:

*-"Lezamari buruzko informazioa zuzentzea eta argitzea HAPOa egintza erabat deuseztzat jota dagoela eta errekurtsoaren zain dagoela".*

*-"Ugarteko eta Kurtzeko 'orban industrialak'*

Resumen de la sugerencia:

En relación al PTP de 2006 opina que se ha desarrollado de manera muy irregular, que las previsiones de crecimiento residencial e industrial se realizaron con una perspectiva socioeconómica equivocada.

En relación a Lezama se menciona como el PGOU de Lezama fue declarado nulo de pleno derecho en febrero de 2018, y está pendiente la resolución del recurso interpuesto por el Ayuntamiento de Lezama ante el Tribunal Supremo.

El Avance del PTP señala que el PGOU de Lezama está aprobado definitivamente, y recoge la recalificación de dos suelos que eran tierras rurales de gran valor en Ugarte y Kurtze donde se localizan dos robledales.

Teniendo en cuenta lo anterior se solicita:

*-"Que se rectifique la información sobre Lezama y que se aclare que el PGOU está declarado nulo de pleno derecho y pendiente de recurso".*

*-"Que sean eliminadas las "manchas*

*ezabatzea, eta aurreko kalifikazioa berreskuratzea".*

Etxebizitzen eskaintza:

Adierazten du *"eraikitzeko baimendutako etxebizitza kopurua guztiz neurrigabea"* dela. Dioenez, 2017an erositako etxebizitzen %80 bigarren eskukoak izan ziren, eta Lezaman 200 etxebizitza daude hutsik. Gainera, argudiatzen du Zamudioko berrikuspenaren Aurrerapenean esaten dela etxebizitza parke bat hutsik dutela. Horregatik, eskatzen du:

*-"LPP berrian eskaintzen den etxebizitza kopurua 2006ko LPPan eskainitakoa baino nabarmen txikiagoa izatea eta gaur egungo egoera eta etor daitezkeen egoerak kontuan hartzea".*

1. helburua: -Baso autoktonoak lehengoratzea, eta, horretarako, hainbat neurri proposatzen ditu: *"Diputazioaren baso eredua guztiz aldatzea, pinuen eta eukaliptoen ordez bertako espezieak jartzea, espezie haien monokultiboa debekatzea, diru laguntzak kentzea eta diru laguntzak espezie autoktonoak landatzea bultzatzeko erabiltzea".*

2. helburua: -Txirringen mugikortasunari buruz eskatzen da:

- LPParen Aurrerapenean aipatzen den Larrabetzu-Derio-Lutxana ardatza gauzatzea
- Bidegorri arriskutsurik ez egitea
- Txirringetarako ardatzak kontuan hartzea, derrigor, garapen urbanistiko guztietan.

3. helburua: -Txorierrirako txartel bakarra eta 3. linea martxan jartzea eskatzen da.

*industriales" de Ugarte y Kurtze", así como que se recupere la anterior calificación".*

Oferta de Viviendas:

Se expone que *"el número de viviendas autorizado a construir es absolutamente exagerado"*. Apunta que en 2017 el 80% de la compra de vivienda fue de segunda mano, que en Lezama existen casi 200 viviendas vacías. Además argumenta que en el Avance de la revisión de Zamudio se dice que tienen un parque residencial vacante. Por ello solicita:

*-"Que el número de viviendas que se oferten en el nuevo PTP sea sustancialmente menor que el ofertado en el PTP de 2006 y que se tenga en cuenta el escenario real y los posibles escenarios".*

Objetivo 1: -Que se recuperen los bosques autóctonos y propone diversas medidas: *"Modificar totalmente el modelo forestal de la Diputación, sustituir los pinos y los eucaliptos con especies autóctonas, prohibir el monocultivo de dichas especies, retirarles las subvenciones y utilizar las subvenciones para impulsar la planta de especies autóctonas".*

Objetivo 2: -Sobre movilidad ciclable se solicita:

- Que se lleve a cabo el eje Larrabetzu-Derio-Lutxana mencionado en el Avance del PTP
- Que no se realicen bidegorris peligrosos.
- Que se tengan en cuenta los ejes ciclables en todos los desarrollos urbanísticos obligatoriamente.

Objetivo 3: -Se solicita para Txorierri la tarjeta única y la puesta en marcha de la línea 3.

Iradokizunaren erantzuna:

Lezamako plangintzaren errepresentazioari dagokionez, kontuan hartu da egindako oharra.

Ekonomia-jardueretarako lurzoru urbanizagarrien mugapena lurralde planean (LPP) eta hirigintzakoan (HAPO) ezarritakoarekin bat etorrita egingo da. Plan biak egiten ari dira orain.

Etxebizitzen eskaintzari dagokionez, LPPak LAGen berrikuspenean ezarritako metodoaren arabera egokituko du kalkulua, izan ere, indarrean dagoen LPParen eskaintzan baino askoz etxebizitza gutxiago aurreikusten du.

Basogintzaren inguruan egindako iradokizunari dagokionez (1. Helburua), argitu behar da baso politika Mendien gaian indarrean dagoen legediak arautzen duela, baita EAEko Nekazaritza eta Basoko LPSak ere. Edonola ere, LPParen Aurrerapenak hainbat irizpide jasotzen ditu basoko praktiketan erabilera jasangarriagoak bultzatzeko, eta dokumentuaren hurrengo fasearen erredakzioan ere ildo horretan jarraituko du.

Bizikleten mugikortasunaren inguruan egindako iradokizunari dagokionez (2. Helburua), LPPak sare jarraitu bat sartzeko lan egingo du, eta, ahal den heinean, sarea interkomunikatuta egon dadin, jarraibideak emanez hori diseinatzeko eta gauzatzeko, nahiz eta exekuzio hori beste erakunde eta administrazio sektorial batzuei dagokien.

Garraio kolektiboko sareen eta txartel bakarraren inguruko proposamena (3. Helburua) bat datoz LPPak garraio kolektiboa sustatzeko eta horretara iristen laguntzeko

Contestación a la sugerencia:

Respecto a la representación del planeamiento de Lezama se toma nota de la observación aportada.

La delimitación de los suelos urbanizables de actividades económicas se realizará en coherencia con lo recogido en las planificaciones territorial (PTP) y urbanística (PGOU), ambas actualmente en periodo de elaboración.

En cuanto a la oferta de viviendas el PTP ajustará el cálculo realizado de acuerdo al método establecido en la revisión de las DOT, que prevé un número de viviendas sustancialmente menor al de la oferta del PTP vigente.

Respecto a la sugerencia realizada en materia forestal (Objetivo 1), hay que aclarar que la política forestal está regulada por la legislación vigente en materia de Montes así como en el PTS Agroforestal de la CAPV. En todo caso el Avance del PTP recoge criterios para el impulso de usos más sostenibles en las prácticas forestales y se seguirá en esa línea en la redacción de la siguiente fase del documento.

Respecto a la sugerencia realizada en materia de movilidad ciclable (Objetivo 2), el PTP trabajará en la inclusión de una red continua y en lo posible intercomunicada estableciendo orientaciones para su diseño y ejecución, toda vez que dicha ejecución depende de otros organismos y administraciones sectoriales.

Las propuestas relativas a las redes de transporte colectivo y a la tarjeta única (Objetivo 3), son coincidentes con el objetivo

daukan helburuarekin.

del PTP de potenciar el transporte colectivo y facilitar el acceso al mismo.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

Bizkaia
garraioak, mugikortasuna eta lurraldearen kohesioa sustatzeko saila
departamento de transportes, movilidad y cohesión del territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 25 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 01/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

1. Biodibertsitatea eta balio naturalak

- Ingurumena lehengoratzeko interbentzioak egitea, ingurune naturalaren berezko ahalmena errespetatuz (Balsa, Barracon, Orconera).
- Inguruan bizi eta hazten diren espezieen azterketa bat egitea eta ugaltzeko guneak babestea.
- Erreka eta erriberak eta horiek zabaltzeko mugak babestea.
- Granada ibaia lurpetik atera eta lehengoratzea Abando eta Ortuella artean, eta ibilgua eta gune ureztagarriak etxebizitza eta industri okupazioetatik salbuestea.
- Granada ibaiaren inguruan korridore berde bat diseinatzea Trapagarango berdeguneak konektatzeko, eta berdin Abando alderantz (Gallarta).
- Mendi kotak eta gailurrak babestea, bai erdiguneko hiri kaskoan zein urruneko auzoetan, eta berdin beraien

Resumen de la sugerencia:

1. Biodiversidad y valores naturales

- Realizar intervenciones de recuperación ambiental respetando la capacidad propia del medio natural (La Balsa, El Barracón, la Orconera).
- Realizar un estudio de las especies que habitan y crían en la zona y proteger las zonas de cría.
- Proteger arroyos y riberas y sus límites de expansión.
- Revertir el soterramiento del río Granada entre Abando y Ortuella y liberar el cauce y las zonas inundables de ocupaciones residenciales e industriales.
- Diseñar un corredor verde alrededor del rio Granada que conecte con el espacios verde de Trapaga e igualmente en dirección a Abando (Gallarta).
- Proteger las cotas y cimas de monte tanto del casco urbano más céntrico como de los barrios alejados al igual

magalak.

- EHUko GPACek (Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldea) lehengoratzeko diseinatutako "Ortuellako Lehioa" plana sartzea (Paisaiaren Ekintza Plana).

2. Hiri eredu orekatua. Etxebizitza eta jarduera ekonomikoko beharrak eta eskaintza

- Dauden etxebizitza eta auzoak errehabilitatzearen alde egitea.
- Alokairu merkatuaren alde egitea, izan soziala zein librea.
- Mugikortasun jasangarriaren alde egitea.
- Etxebizitza eraikuntzarako okupazioa mugatzea, batez ere dentsitate baxukoa.
- Ez erabiltzea etxebizitza erabilerarako ibaietatik edo komunikazio sistema orokorretatik gertuko lurzoruak.
- Hiri inguruetatik gertuko industrialde zaharkituak erabilera mistoetarako berreskuratzea.
- Mendi edo mendiaurreko inguruetan erabilera industrialak saihestea.

3. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoru estrategikoak lehengoratzea

- Beharrezkotzat jotzen da horiek berreskuratzea eta berrerabiltzea. Hiri baratzeak sortzea ea da egokitzat jotzen.

4. Garraio motordunak, garraio publikoa eta intermodalitatea

- Horrelako mugikortasuna erraztea, bai

que sus laderas adyacentes.

- Incluir el plan de regeneración "Ortuellako Lehioa" (Plan de Acción del Paisaje) diseñado por GPAC de la UPV.

2. Modelo urbano equilibrado. Necesidades y oferta de vivienda y actividades económicas

- Apostar por la rehabilitación de las viviendas y barrios existentes.
- Apostar por el mercado de alquiler tanto social como libre
- Apostar por la movilidad sostenible
- Limitar la ocupación en edificación residencial, especialmente en baja densidad.
- No ocupar como uso residencial suelo cercano a ríos o a sistemas de comunicaciones generales.
- Recuperar zonas industriales obsoletas próximas a entornos urbanos para usos mixtos.
- Evitar usos industriales en zonas de montaña o premontaña

3. Regeneración de suelos estratégicos potencialmente contaminados

- Se considera necesario su recuperación y reutilización. No se considera adecuado la creación de huertos urbanos.

4. Modos de transporte motorizados, transporte público e intermodalidad

- Que se facilite este tipo de movilidad tanto a nivel local como entre

herri barruan bai herrien artean.

- Konexio gehiago jartzea aztertzea garraio publikoko sareetan.

- Itsasadarra gurutzatzeko guneak handitzea proposatzen da, ibilgailu edo autobusen beharrik gabe.
- ADIFen linea lurperatzea aztertzea proposatzen da, Santurtzitik Bilbora.

- Hegoaldeko saihesbideko errepidea erabiltzea bultzatzea.

5. Ondare materiala eta immateriala eta paisaia, nortasun, aberastasun eta enpleguaren adierazpen gisa.

- Meategietako industri paisaia berreskuratzea.
- Meategietako trenbide zaharrak bultzatzea bide berde moduan eta horiekin loturak jartzea.
- Ortuellako ondasun eta espazio babestuen Ondare Katalogoaren balioa agerian jartzea, EHUko GPACek idatzitakoaren arabera.
- Enpresei azpimarratzea beharrezkoa dela okupatzen eta ustiatzen dituzten espazio naturalak berreskuratzeko plan bat egitea, jarduera amaitutakoan.

- Ortuellan: ustiapenaren amaieran Encartaciones harrobiak okupatzen dituen lursailak birkalifikatzea eta espazioak errehabilitatzeko plan bat egitea, erabilera publikorako.
- Auzo eta herrien arteko komunikazioa erraztea erabilera anitzeko guneen bitartez, horien artean egonik parkeak eta bidegorrietako eta gainerako

municipios

- Estudiar el incremento de conexiones en las diversas redes de transporte público.

- Se propone incrementar las zonas de cruce de la ría sin necesidad de coche o autobús.
- Se propone realizar el estudio de soterramiento de la línea ADIF de Santurtzi a Bilbao.

- Incentivar el uso de la variante sur rodada.

5. Patrimonio material e inmaterial y paisaje como expresión de identidad, riqueza y empleo.

- Recuperar el paisaje industrial minero

- Potenciar las antiguas líneas ferroviarias mineras como vías verdes y dotarlas de enlaces.

- Poner en valor el Catálogo Patrimonial de bienes y espacios protegidos de Ortuella redactado por GPAC de la UPV.

- Incidir en la necesidad de exigir a las empresas un plan de recuperación de los espacios naturales que ocupan y explotan una vez finalizadas estas últimas.

- En Ortuella: recalificar a final de explotación los terrenos que ocupa la cantera Encartaciones y realizar un plan de rehabilitación de los espacios para uso público.

- Facilitar la comunicación entre barrios y pueblos mediante zonas de usos múltiples como parques, creación de zonas de descanso de bidegorris y demás vías ciclistas.

txirringa bideetako atsedenguneak.

6. Oraingo hiri bilbeekin jarraipenik ez duten ekipamendu berriak eta erabilera masiboko guneak mugatzea.
   - Ekipamendu handiak inguruko udalerrien artean partekatzea erraztea.
   - Udalerriak inguratu eta kapsulatuko dituzten industri erabilerak saihestea, batzuetan aisiarako guneetako sarbidea galarazten baitute.

7. Udalez gaindiko estrategia lurralde osoan.

   - Kostaldeko mugak errespetatzea Legeak ezarritakoaz haratago.
   - Nekazaritza erabilerako espazioak eta abeltzaintzako ustiategiak errespetatzea.
   - Udalerrien arteko komunikazioa erraztea bide berdeen edo txirringa bideen bitartez.
   - Garraio publikoko bitartekoen arteko loturak erraztea eta lineak eta maiztasunak handitzea.
   - Industria kutsatzaileak bezalako erabilera erasokorrak saihestea, eta gaur egun zerbitzuetan dauden desorekak konpentsatzea.

8. Zeharkako gaiak esplizituki integratzea: generoa, haurtzaroa, osasuna, irisgarritasuna, euskara, klima aldaketa.
   - Garraio publiko irisgarria edozein industri eta zerbitzu gunetan eta edozein txandatan.
   - Industrialdeetako sarbideak

6. Restringir nuevos equipamientos y áreas de uso masivo sin continuidad con las tramas urbanas existentes.
   - Facilitar el compartir grandes equipamientos entre los distintos municipios cercanos.
   - Evitar usos industriales que rodeen y encapsulen los municipios impidiendo en ocasiones el acceso a zonas de esparcimiento.

7. Estrategia supramunicipal en el conjunto del territorio.
   - Respetar el límite de costas más allá del establecido por la Ley.
   - Respetar los espacios de uso agrario y explotaciones ganaderas

   - Facilitar la comunicación entre municipios por vías verdes o de circulación ciclable
   - Facilitar los enlaces entre medios de transporte público e incrementar líneas y frecuencias
   - Evitar usos agresivos como industrias contaminantes y compensar las desigualdades de servicios que existen actualmente.

8. Integrar explícitamente las cuestiones transversales: género, infancia, salud, accesibilidad, euskera, cambio climático.
   - Transporte público accesible en cualquier zona industrial y de servicios y a cualquier turno.
   - Accesos a zonas industriales como buena visibilidad

ikusgarritasun onarekin.

- Jolas guneak (gazteentzat zein haurrentzat) garraio bitartekoetatik hurbil.
- Garraio publikoaren erabilera lehenestea oinezkoentzat.
- Euskararen dibulgazioa eta erabilera sustatzea eta topografia euskaldunaren balioa agerian jartzea.

9. Ortuellarako proposamen planoa.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira jasotako iradokizunak, zeinak guztiz bat datozez LPParen irizpideekin gai hauei dagokienez: Biodibertsitatea eta balio naturalak, hiri eredu orekatua, lurzoruak lehengoratzea, garraio motak, ondarea eta paisaia, zeharkako gaiak integratzea (generoa, osasuna, klima aldaketa…), etab.
Horiek kontuan hartuko dira dokumentuaren erredakzioaren hurrengo faseetan, baina argituz, kasu batzuetan, horien irismena, eta batez ere iradokizunaren eskala, oro har, gehiago dagozkiola gaur egun udal planeamenduari, gaur egunean Ortuellako Udalerrian berrikusten ari dena.
Zehazki:
Azterketa espezifikoak egitea bere lan eskalatik kanpo geratzen dira, nahiz ea aurrerapenaren fasean dagoeneko kontuan hartu diren fauna espezie horien habitaten kontserbazioa eta, ahal den heinean, hobekuntza segurtatzeko irizpideak, eta dokumentuaren hurrengo faseetan garatzen joango dira.

Gainera, horrekin batera eta LPParen hasierako onespenerako dokumentazioaren erredakzioarekin koordinatuta, eremu horretako paisaiaren Katalogo bat landuko da,

- Zonas de recreo (tanto para jóvenes como para niños) cerca de los medios de transporte.
- Priorizar el uso del espacio público para el peatón
- Fomentar la divulgación y el uso del euskera y poner en valor la topografía euskaldun.

9. Plano de propuestas para Ortuella.

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las sugerencias recibidas, que coinciden totalmente con los criterios del PTP en cuanto a: Biodiversidad y valores naturales, modelo urbano equilibrado, regeneración de suelos, modos de transporte, patrimonio y paisaje, integración de cuestiones transversales (genero, salud, cambio climático…), etc.

Estas se tendrán en cuenta para fases posteriores en la redacción del documento, puntualizando que en algunos casos el alcance y sobre todo la escala de la sugerencia son más propias, en general, del planeamiento municipal, en Ortuella actualmente en revisión.

En particular sobre las mismas:

La realización de estudios específicos quedan fuera de su escala de trabajo, aunque ya en la fase de avance se han considerado criterios que aseguren la conservación y en lo posible la mejora de los hábitats de estas especies de fauna, que serán desarrollados en las siguientes fases del documento.

Además de forma paralela y coordinada a la redacción del documento para la aprobación inicial del PTP, se elaborará un Catálogo de paisaje de esta área que analizará las zonas con mayor problemática y establecerá las

arazo gehien dituzten guneak aztertzeko, eta lehentasunezkotzat jotzen diren guneak lehengoratzeko jarraibideak zehaztuko ditu, edonola ere, Balsa, Barracon eta Orconerako proposamena analizatuko da.

Horrez gain, LPPak, aurrerapenaren fasean, ingurunean dauden elementu garrantzitsuenak analizatu ditu, eta fase horretan analizatzen jarraituko du, kontserbatzea eta/edo lehengoratzea behar duten gune guztien babes kategoriak ezartzeko.

Ur ibilguen aipamenari dagokionez, guztiak sartu dira Azaleko Urak Babesteko kategorian, kontserbazioa ziurtatzeko eta, edonola ere, hobetzeko jarduketak egiteko.en Lurpeko ibilguei dagokienez, LPPak kontuan hartuko du iradokizuna, hurrengo faseetan lantzeko.

"Ortuellako Leihoa" lana ere hartuko da kontuan.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak lehengoratzea eta berrerabiltzea izan da hasieratik LPParen berrikuspenaren helburuetako bat, eta funtsezkotzat jotzen da eremu funtzionaleko lurzoruak lehengoratzeko proposamenean.
LPParen hurrengo faseetan lurzoruak lehengoratzeko arazo horri aurre egiten lagunduko duten irizpideak ezarriko dira, eta, oro har, lurzoru horien erabilerak aurrez izan duen kalifikazioaren barruan egoten jarraituko du.

Oro har, ekarpenena koherentea da LPPak planteatutako ereduarekin, baina kontuan hartu behar da garraio publikoko lineak eta nodoak ezartzeko baldintza izango dela erabileran zentzuzko aurreikuspenak egotea.

LPParekin batera, eta modu koordinatuan, eremu funtzionalaren Katalogo bat idatziko da,

determinaciones de regeneración en aquellas zonas que se consideren prioritarias, de todos modos se analizará la propuesta de La Balsa, El Barracón, la Orconera.

Por otro lado el PTP ya en fase de avance ha analizado los elementos del medio más reseñables y se seguirá en el análisis en esta fase, establecido categorías de protección en todas aquellas zonas cuya conservación y/o rehabilitación sean necesarias.

Con referencia a los cursos de agua, todos ellos han sido incluidos en una categoría de Protección de Aguas Superficiales, que asegura su conservación y en todo caso las actuaciones de mejora. Respecto a la situación de cursos soterrados el PTP lo tendrá en cuenta para las fases posteriores.

Igualmente se tendrá en cuenta el trabajo "Ortuellako Lehioa".

La recuperación y reutilización de los suelos potencialmente contaminados ha sido desde el principio uno de los objetivos de la revisión del PTP y se considera fundamental en la propuesta de regeneración de suelos del área funcional.

En fases posteriores del PTP se establecerán los criterios que ayuden a hacer frente a esta problemática en la regeneración de suelos, donde en general el uso de estos suelos seguirá siendo aquel para el que haya sido previamente calificado.

En general la aportación es coherente con el modelo planteado por el PTP, si bien se debe tener en cuenta que el establecimiento de líneas y nodos de transporte público está condicionado a unas expectativas razonables de uso.

En paralelo al PTP y de forma coordinada se redactará un Catálogo de paisaje del área funcional que podría recoger todos los criterios

paisaiari buruz proposatzen diren irizpide guztiak jaso ahal izango dituena.

Oro har, proposamena koherentea da LPPak planteatutako ereduarekin, izan ere, zeharkako gaiak jada kontuan hartzen dira, eta horretan sakonduko da dokumentuaren hurrengo fasean.

sobre paisaje que se proponen.

En general la propuesta es coherente con el modelo planteado por el PTP, que ya contempla estas cuestiones transversales y que profundizará en ella en la siguiente fase del documento.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 26 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 01/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Aretxaldeko nekazaritza lurzorua ez aldatzea, balio agrologiko handiko lurzoru moduan sailkatuta egonik. Industrial moduan sailkatzeko proposamena aldatzea eta ezabatzea, hutsik dagoen lurzorua babesteko. Nekazaritza balio handiko lurzorutzat jotzen jarraitzeko eskatzen da.

Planifikatutako etxebizitzen kopuruari buruzko aurreikuspenak behar errealetara egokitzea, kontuan hartuta orain arteko eskaria ez dela bat etorri planifikatutakoarekin (ulertzen da neurrigabea dela). Eta eraikitzen diren etxebizitzak etxebizitza sozialak izan daitezela.

Eskatzen da paisaia aldatzen duen basoetako alde bakarreko ustiapena gelditzeko, eta eskatzen da LPPAk ildo zehatz batzuk ezar ditzala mendiak babesteko eta gaur egun monokultiborako erabiltzen diren espezie kaltegarriak debekatzeko.

Resumen de la sugerencia:

No modificar el suelo agrícola de Aretxalde que está calificado como suelo de gran valor agrológico. Modificar y eliminar la propuesta de calificarlo como industrial, con el objeto de preservar el suelo vacante. Se solicita que sigan siendo suelos de alto valor agrario.

Que se adapte las previsiones sobre el número de viviendas planificadas a las necesidades reales, teniendo en cuenta que la demanda hasta la fecha no se ha correspondido a lo planificado (que se entiende exagerado). También que las viviendas que se construyan sean sociales.

Se solicita que se paralice la explotación forestal unidireccional que transforma el paisaje, por lo que se solicita que el PTP establezca líneas concretas para proteger los montes y prohibir las especies perjudiciales que se utilizan actualmente para el monocultivo.

Iradokizunaren erantzuna:

Indarrean dagoen LPPko Aretxaldeko Erreserba Estrategikoko eremua berrikusiko

Contestación a la sugerencia:

Se revisará el ámbito de Reserva estratégica de Aretxalde del PTP vigente. La delimitación de

da. Ekonomia-jarduueretarako lurzoru urbanizagarrien mugapena lurralde planean (LPP) eta hirigintzakoan (HAPO) ezarritakoarekin bat etorrita egingo da. Plan biak egiten ari dira orain.

los suelos urbanizables de actividades económicas se realizará en coherencia con lo recogido en las planificaciones territorial (PTP) y urbanística (PGOU), ambas actualmente en periodo de elaboración.

Etxebizitzen eskaintzari dagokionez, LPPak LAGen berrikuspenean ezarritako metodoaren arabera egokituko du kalkulua, izan ere, indarrean dagoen LPParen eskaintzan baino askoz etxebizitza gutxiago aurreikusten du.

En cuanto a la oferta de viviendas el PTP ajustará el cálculo realizado de acuerdo al método establecido en la revisión de las DOT, que prevé un número de viviendas sustancialmente menor al de la oferta del PTP vigente.

Basoei buruz egindako iradokizunari dagokionez, argitu behar da baso politika Mendiak arautzeko indarrean dagoen legediak eta EAEko Nekazaritza eta Basoko LPSak arautzen dutela. Edonola ere, LPParen Aurrerapenak hainbat irizpide jasotzen ditu basoko praktiketan erabilera jasangarriagoak bultzatzeko, eta dokumentuaren hurrengo fasearen erredakzioan ere ildo horretan jarraituko du.

Respecto a la sugerencia realizada en materia forestal, hay que aclarar que la política forestal está regulada por la legislación vigente en materia de Montes así como en el PTS Agroforestal de la CAPV. En todo caso el Avance del PTP recoge criterios para el impulso de usos más sostenibles en las prácticas forestales y se seguirá en esa línea en la redacción de la siguiente fase del documento.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 27 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 02/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

2006ko LPPari dagokionez, uste du oso modu irregularrean garatu dela, etxebizitzak eta industria hazteko aurreikuspenak perspektiba sozioekonomiko okerrarekin egin zirela.

Lezamari buruz, aipatzen da nola Lezamako HAPOa egintza erabat deuseztzat jo zela 2018ko otsailean, eta Lezamako Udalak Auzitegi Gorenean aurkeztutako errekurtsoaren ebazpenaren zain dagoela. Eskatzen da LPPak egoera hori jasotzeko, eta jasota geratzeko 2006ko LPPan kartografiatu zen guztitik ez dela ezer gauzatu.

Beraz, eskatzen da LPParen Aurrerapenean grafiatuta dauden lurzoru urbanizagarriko bi orbanak ezabatzeko, indargabetutako HAPOaren arabera (Ugarte eta Kurtze), eta aurreko kalifikazioa berreskuratzeko (balio estrategiko handiko landa lurrak), legearen arabera, kalifikazio hori loteslea izan beharko delarik plangintzaren etorkizuneko garapenetan.

Etxebizitza eskaintzari dagokionez, eskatzen da LPP berrian eskaintzen den etxebizitza kopurua 2006ko LPPan eskainitakoa baino

Resumen de la sugerencia:

En relación al PTP de 2006 opina que se ha desarrollado de manera muy irregular, que las previsiones de crecimiento residencial e industrial se realizaron con una perspectiva socioeconómica equivocada.

En relación a Lezama se menciona como el PGOU de Lezama fue declarado nulo de pleno derecho en febrero de 2018, y está pendiente la resolución del recurso interpuesto por el Ayuntamiento de Lezama ante el Tribunal Supremo. Se solicita que el PTP recoja esta situación y que conste que nada de lo cartografiado en el PTP de 2006 se ha realizado.

Se solicita por tanto que se eliminen las dos manchas de suelo urbanizable de actividades económicas que se grafía en el Avance del PTP, de acuerdo al PGOU anulado (Ugarte y Kurtze) y que se recupere su anterior calificación (terrenos rurales de gran valor estratégico), y que según la ley, dicha calificación sea vinculante en los futuros desarrollos de la planificación.

En cuanto a la oferta residencial se solicita que el número de viviendas que se oferten en el nuevo PTP sea sustancialmente menor que el

nabarmen txikiagoa izatea eta gaur egungo egoera eta etor daitezkeen egoerak kontuan hartzea.

ofertado en el PTP de 2006 y que se tenga en cuenta el escenario real y los posibles escenarios".

Iradokizunaren erantzuna:

Lezamako planeamenduaren errepresentazioari dagokionez, kontuan hartzen da egindako oharra eta indarrean dagoen Lezamako HAPOa kontsultatuko da, LPPan eskuragarri dagoen informazioa eguneratzeko.

Jarduera ekonomikoetarako aipatzen diren lurzoru urbanizagarrien mugaketari dagokionez, Ekonomia-jardueretarako lurzoru urbanizagarrien mugapena lurralde planean (LPP) eta hirigintzakoan (HAPO) ezarritakoarekin bat etorrita egingo da. Plan biak egiten ari dira orain.

Etxebizitzen eskaintzari dagokionez, LPPak LAGen berrikuspenean ezarritako metodoaren arabera egokituko du kalkulua, izan ere, indarrean dagoen LPParen eskaintzan baino askoz etxebizitza gutxiago aurreikusten du.

Contestación a la sugerencia:

Respecto a la representación del planeamiento de Lezama se toma nota de la observación aportada y se consultará el PGOU de Lezama vigente, para actualizar en el PTP la información disponible.

En cuanto a la delimitación de los suelos urbanizables de actividades económicas que se mencionan, La delimitación de los suelos urbanizables de actividades económicas se realizará en coherencia con lo recogido en las planificaciones territorial (PTP) y urbanística (PGOU), ambas actualmente en periodo de elaboración.

En cuanto a la oferta de viviendas el PTP ajustará el cálculo realizado de acuerdo al método establecido en la revisión de las DOT, que prevé un número de viviendas sustancialmente menor al de la oferta del PTP vigente.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 28 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 02/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Aretxaldeko nekazaritza lurzorua ez aldatzea, balio agrologiko handiko lurzoru moduan sailkatuta egonik. Industrial moduan sailkatzeko proposamena aldatzea eta ezabatzea, hutsik dagoen lurzorua babesteko. Nekazaritza balio handiko lurzorutzat jotzen jarraitzeko eskatzen da.

Planifikatutako etxebizitzen kopuruari buruzko aurreikuspenak behar errealetara egokitzea, kontuan hartuta orain arteko eskaria ez dela bat etorri planifikatutakoarekin (ulertzen da neurrigabea dela). Eta eraikitzen diren etxebizitzak etxebizitza sozialak izan daitezela.

Eskatzen da paisaia aldatzen duen basoetako alde bakarreko ustiapena gelditzeko, eta eskatzen da LPPak ildo zehatz batzuk ezar ditzala mendiak babesteko eta gaur egun monokultiborako erabiltzen diren espezie kaltegarriak debekatzeko.

Resumen de la sugerencia:

No modificar el suelo agrícola de Aretxalde que está calificado como suelo de gran valor agrológico. Modificar y eliminar la propuesta de calificarlo como industrial, con el objeto de preservar el suelo vacante. Se solicita que sigan siendo suelos de alto valor agrario.

Que se adapte las previsiones sobre el número de viviendas planificadas a las necesidades reales, teniendo en cuenta que la demanda hasta la fecha no se ha correspondido a lo planificado (que se entiende exagerado). También que las viviendas que se construyan sean sociales.

Se solicita que se paralice la explotación forestal unidireccional que transforma el paisaje, por lo que se solicita que el PTP establezca líneas concretas para proteger los montes y prohibir las especies perjudiciales que se utilizan actualmente para el monocultivo.

Iradokizunaren erantzuna:

Indarrean dagoen LPPko Aretxaldeko Erreserba Estrategikoko eremua berrikusiko

Contestación a la sugerencia:

Se revisará el ámbito de Reserva estratégica de Aretxalde del PTP vigente. La delimitación de

da. Ekonomia-jardueretarako lurzoru urbanizagarrien mugapena lurralde planean (LPP) eta hirigintzakoan (HAPO) ezarritakoarekin bat etorrita egingo da. Plan biak egiten ari dira orain.

Etxebizitzen eskaintzari dagokionez, LPPak LAGen berrikuspenean ezarritako metodoaren arabera egokituko du kalkulua, izan ere, indarrean dagoen LPParen eskaintzan baino askoz etxebizitza gutxiago aurreikusten du.

Basoei buruz egindako iradokizunari dagokionez, argitu behar da baso politika Mendiak arautzeko indarrean dagoen legediak eta EAEko Nekazaritza eta Basoko LPSak arautzen dutela. Edonola ere, LPParen Aurrerapenak hainbat irizpide jasotzen ditu basoko praktiketan erabilera jasangarriagoak bultzatzeko, eta dokumentuaren hurrengo fasearen erredakzioan ere ildo horretan jarraituko du.

los suelos urbanizables de actividades económicas se realizará en coherencia con lo recogido en las planificaciones territorial (PTP) y urbanística (PGOU), ambas actualmente en periodo de elaboración.

En cuanto a la oferta de viviendas el PTP ajustará el cálculo realizado de acuerdo al método establecido en la revisión de las DOT, que prevé un número de viviendas sustancialmente menor al de la oferta del PTP vigente.

Respecto a la sugerencia realizada en materia forestal, hay que aclarar que la política forestal está regulada por la legislación vigente en materia de Montes así como en el PTS Agroforestal de la CAPV. En todo caso el Avance del PTP recoge criterios para el impulso de usos más sostenibles en las prácticas forestales y se seguirá en esa línea en la redacción de la siguiente fase del documento.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 29 |
|---|---|
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | EH BILDU Erandio |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 02/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Udal taldeak 6 iradokizun aurkeztu ditu:

1. Sestao eta Erandio artean Arrontegiko zubiaren “bikia” den zubia kentzeko eskatzen da, udalerrian eragin larria izango lukeelakoan. Zirkulazioa nabarmen handitzea ekarriko luke, bai itsasadarreko errepidean bai Astrabuduko saihesbidean, eta bateraezina litzateke Txurrukako pasealekua berreskuratzearekin eta itsasadarra aisialdirako gune moduan berreskuratzearekin.

2. Itsasadarra aisialdirako gune eta pasealeku moduan berreskuratzeak kontuan hartu behar du agoen jarduera industriala. Beharrezkotzat jotzen da hainbat enpresa udalerrian lekualdatzeko plan bat zehaztea, eta, horretarako, beharrezkotzat jotzen da administrazio desberdinak, Vicinay taldea eta langileak inplikatzea.

3. Esplizituki markatu beharko litzateke jarduera ekonomiko lokalaren aldeko apustua eta azalera komertzial handi berriak instalatzea debekatzea.

Resumen de la sugerencia:

El grupo municipal presenta 6 sugerencias:

1. Se solicita la eliminación del puente “gemelo” a Rontegi entre Sestao y Erandio, por considerar que tendría graves repercusiones en el municipio. Supondría un aumento considerable del tráfico tanto en la carretera de la ría como en la Variante de Astrabudua y sería incompatible con la recuperación del paseo de Txurruka y la recuperación de la ría como zona de ocio.

2. La recuperación de la ría como zona de ocio y paseo debe tener en cuenta la actividad industrial existente. Se considera preciso la concreción de un plan de traslado de ciertas empresas en el municipio, para lo que entienden necesario la implicación de las distintas administraciones, el grupo Vicinay y los trabajadores.

3. Debería marcarse de forma explícita su apuesta por la actividad económica local y la prohibición de instalaciones de nuevas grandes superficies comerciales.

4. Erandiok bere auzoen sakabanaketa handia sufritzen du, besteak beste, errepide sarearen supraazpiegitura handi bategatik. Ildo horretan, landa ingurunea zeharkatzen duen Beheko Saihesbidearen eta Iparraldeko Saihesbidearen aurka agertzen dira. Halaber, Astrabuduko saihesbidea lurperatzea proposatzen dute, oinezkoak pasatzeko zatian, Astrabuduko metro geltokirantz, eta funtsezkotzat jotzen dute Artatzako errepidea lurperatzea Erandio Goikotik igarotzean.

5. Udalerriaren etxebizitza ahalmena murriztea proposatzen dute, hainbat arrazoirengatik: populazioa jaitsiko dela aurreikusten da, 1.000 etxebizitza inguru hutsik, Arau Subsidiarioetan 1.700 etxebizitza proiektatuta daude egin gabe, berdeguneen eta aisialdirako guneen erabateko gabezia.

6. Administrazio desberdinak inplikatzearen alde egiten dute oinezkoentzako bideak eta pasealekuak berreskuratzeko Asua ibaiaren ertzean. Halaber, uste dute funtsezkoa dela erabilera publikorako espazio librea berreskuratzea, Astrabuduko garai bateko DOWeko lursailen zati handi batean, eta Tartanga-Altzagako 20.000 m2 berdegune moduan mantentzea, etxebizitza erabilerarako aldatu gabe.

4. Erandio sufre una importante disgregación de sus barrios motivada entre otros aspectos por una gran suprainfraestructura de la red viaria. En este sentido muestran su oposición a la Variante Baja y a la Variante Norte que atraviesan la zona rural. Asimismo proponen el soterramiento de la Variante de Astrabudua en el tramo de paso peatonal hacia la estación del Metro de Astrabudua, y consideran fundamental el soterramiento del tramo de la Avanzada a su paso por Erandio Goikoa.

5. Sugieren disminuir la capacidad residencial del municipio por varias razones: previsión de descenso de población, cerca de 1.000 viviendas vacías, sobre 1.700 viviendas proyectadas en las NN.SS. sin ejecutar, déficit absoluto de zonas verdes y de esparcimiento.

6. Apuestan por la implicación de las diferentes administraciones en la recuperación peatonal y de paseo de los cauces del río Asua. Asímismo les parece fundamental la recuperación como espacio libre para el uso público y ciudadano de buena parte de los terrenos de la antigua DOW en Astrabudua, así como el mantenimiento como zona verde de los 20.000 m2 en Tartanga–Altzaga reconvertidos en residencial.

Iradokizunaren erantzuna:

Egindako ekarpenak eskertzen dira, eta dokumentua idazteko hurrengo fasean kontuan hartuko dira. Ondoren, egindako iradokizunen gaineko hainbat ohar jasotzen dira, nahiz eta

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las aportaciones realizadas, que serán tenidas en cuenta en la siguiente fase de tramitación del documento. Se incluyen a continuación algunos comentarios a las

proposamenen zati handi bat udal mailako eskumenekoa den, BM LPPak lurralderako nahi duen antolamenduarekin nekez lotu daitezkeenak.

1. Aipatzen den zubia errepideen plangintza sektorialeko aurreikuspena bada ere, LPPak aurreikuspen sektorial horiek bideratu egin behar ditu, asentamenduekin, paisaiarekin, ingurunearekin eta abarrekin duten interakzioaren arabera. Zubia eraikitzeari dagokionez, betiere saiatu behar litzateke Altzaga eta uraren planoaren artean barrera efekturik ez sortzen.
2. Enpresak lekualdatzearen gaia udalen eskumena den arren, beste eragile batzuen inplikazioarekin, BM LPPak hainbat ildo estrategiko ezarri litzake operazio horiek hobekuntza nabarmenak ekartzen badituzte hiri zein lurralde egituran.
3. BM LPParen aurrerapenak apustu bat jasotzen du dagoeneko herriko eta hurbileko merkataritzari lehentasuna emateko, hirietako periferietan kokatutako ekipamendu komertzial handien aurrean.
4. LPPak aurreikuspen sektorialak bideratu behar ditu, asentamenduekin, paisaiarekin, ingurunearekin eta abarrekin duten interakzioaren arabera.
   - Beheko Saihesbideak eta Artatzako erepidea lurperatzeko aukera errepide arazo bati erantzuteko aukerak dira, Erandio Goikoaren arazoa udal mailakoa baino ez delarik.
   - Badirudi Iparraldeko Saihesbidearen aukera dagoeneko baztertuta dagoela.

sugerencias realizadas, si bien buena parte de las propuestas tienen un ámbito competencial de escala municipal, de difícil encaje con la ordenación territorial perseguida por el PTP BM.

1. Si bien el puente indicado es una previsión de la planificación sectorial de carreteras, el PTP debe encauzar las previsiones sectoriales en función de su interacción con los asentamientos, el paisaje, el medio... La construcción del puente, en su caso, debería siempre evitar crear un efecto barrera entre Alzaga y el plano de agua.
2. Aunque el traslado de empresas es un tema de gestión municipal con implicación de otros agentes, el PTP BM podría incluir líneas estratégicas en aquellos casos en los que estas operaciones dan lugar a mejoras significativas en la estructura urbana y territorial.
3. El Avance del PTP BM ya incluye una apuesta por dar preferencia al comercio urbano y de proximidad sobre los grandes equipamientos comerciales situados en las periferias urbanas.
4. El PTP debe encauzar las previsiones sectoriales en función de su interacción con los asentamientos, el paisaje, el medio...
   - La Variante Baja y el posible soterramiento de La Avanzada son opciones alternativas de solución a un problema viario de carácter estrictamente municipal, el paso por Erandio Goikoa.
   - La Variante Norte es una opción que

- Oinezkoen eta Astrabuduko Errepideen Foru Sareko zirkulazioaren arteko interakzioak bai behar duela irtenbide bat, eta planteamendu hori LPPan sartu beharko litzateke.

5. BM LPParen Berrikuspena LAGen Berrikuspenean ezarritako bizitegi kuantifikaziora egokitu beharko da. LAGen Berrikuspenaren Hasierako Onespenaren dokumentuan dagoeneko ezabatu da etxebizitzen gutxieneko kopurua, eta 4/2016 Dekretuan ezarritako bizitegi kuantifikazioa beherantz doitu da. Horrez gain, kuantifikazio hori are gehiago doitu daiteke ereduaren osagaiarekin, zeina LPPen eskumena den, eta udalerriek etxebizitza hartzeko duten gaitasuna baloratzen duen.

6. Erabileren zehaztapena lurralde planean (LPP) eta hirigintzakoan (HAPO) bere eskumenen esparru barruan ezarritakoarekin bat etorrita egingo da. Plan biak egiten ari dira orain.

parece haberse ya desechado.

- La interacción entre peatones y tráfico de la Red Foral de Carreteras en Astrabudua sí que precisa una solución cuyo planteamiento debería ser incluído en el PTP.

5. La Revisión del PTP BM deberá ajustarse al método de la cuantificación residencial establecida en la Revisión de las DOT. En el documento de Aprobación Inicial de la Revisión de las DOT se ha suprimido el número mínimo de viviendas, y se ha modificado la cuantificación residencial establecida en el Decreto 4/2016, ajustándola a la baja. Por otra parte, esta cuantificación puede ajustarse aún más con el componente de modelo, que es competencia de los PTP y valora la capacidad de acogida de los términos municipales.

6. La definición de los usos se realizará en coherencia con lo recogido en las planificaciones territorial (PTP) y urbanística (PGOU), en el marco de sus respectivas competencias, ambas actualmente en periodo de elaboración.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 30 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Etxebarriko Udala<br>Ayuntamiento de Etxebarri |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 2/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Udal Bulego Teknikoko Arkitekto buruak emandako txoten bat gehitzen da, zeinean esaten den LPParen dokumentuak honako alderdi hauek berraztertu beharko lituzkeela:

1. Etxebarri Behe Nerbioko Ibai Parkean sartzea Basauritik Laudioraino, edo Ibai Parke berri bat planteatzea Bilbo, Etxebarri eta Basauri udalerrien artean.

2. Etxebarri Donejakue bidean sartzea, eta Artxanda-Ganguren sistema erabiltzea bultzatzea, baita Montefuerteko espazioekin duen konexioa ere.

3. Kukuiaga erreka kontuan hartzea (tutu barruan dago) ibaietan espazioak berreskuratzeko egin beharreko lehengoratze eta hiri birmoldaketa lanen barruan.

4. Dagoeneko sarean ez dauden

Resumen de la sugerencia:

Se incorpora un informe evacuado por el Arquitecto-Jefe de la Oficina Técnica Municipal que considera que el documento del PTP debería reestudiar los siguientes aspectos:

1. Incorporar a Etxebarri en el Parque Fluvial en el Bajo Nervión desde Basauri hasta Laudio, o plantear un nuevo Parque Fluvial entre los municipios de Bilbao, Etxebarri y Basauri.

2. Incorporar a Etxebarri en el Camino de Santiago y potenciar el uso del sistema Artxanda-Ganguren, así como su conexión con los espacios de Montefuerte.

3. Tener presente el arroyo de Kukuiaga (entubado) dentro de las operaciones de regeneración y reconversión urbana para recuperar espacios en los ríos.

4. Estudiar la posibilidad de rehabilitar

hornidura instalazioak beste erabilera batzuetarako birgaitzeko aukera aztertzea (ureztapena, baldeatzea), sareko ur tratatuaren erabilera murrizteko, eta bide publikoan jasotako euri urak ureztatzeko berrerabiltzea. Ponpatzeko behar den elektrizitatea bitarteko jasangarrien bidez lortu daiteke, hala nola plaka fotovoltaikoen bidez edo miniairesorgailu eolikoen bidez, parkeetako urbanizazioan integratuta.

5. Sarean ez dauden hornidura sistemen minisorkuntza hidraulikoa sartzeko aukera aztertzea.

6. Jarduerarik ez duten lurzoru urbanizaezinetarako soluzioak aztertzea.

7. Nerbioi ibaiaren aukerak aztertzea aisialdirako gune moduan.

8. 03.Hiri Habitataren planoan, Bekosoloko partzela etxebizitza erabilerarekin agertzen da, laranjaz grafiatuta, eta hori akatsa dela uste da.

9. 05. 01 Bide Azpiegituren planoan akastzat jotzen da Euskotreneko geltokia intermodal moduan grafiatzea, L2MBri baitagokio.

10. 05. 01 Trenbide azpiegituren planoan, ez da agertzen ETSren aurreikuspena etorkizunean tranbia Etxebarrira iristeko.

para otros usos (riego, baldeo) instalaciones de abastecimiento que ya no están en red, que pueden reducir el empleo de agua tratada de la red, así como la reutilización de las aguas pluviales recogidas en la vía pública y que puedan ser reutilizadas para el riego. La electricidad necesaria para el bombeo se puede obtener con medios sostenibles como placas fotovoltaicas, o miniaerogeneradores eólicos, integrados en urbanización de los parques.

5. Estudiar la posibilidad de incluir la minigeneración hidráulica de sistemas de abastecimiento que no ser encentran en red.

6. Estudiar soluciones al pasto de parcelas de suelo no urbanizable sin actividad.

7. Estudiar las posibilidades del río Nervión como un espacio de esparcimiento.

8. En el plano 03.Hábitat urbano, aparece grafiado en naranja, residencial la parcela de equipamiento de Bekosolo, lo que se considera un error.

9. En el plano 05. 01 Infraestructuras viarias se considera un error el que se grafíe como intermodalidad la estación de Euskotren, en vez de la correspondiente a la L2MB.

10. En el plano 05. 01 Infraestructuras ferroviarias, no se indica la previsión de ETS de que en el futuro llegue el tranvía a Etxebarri.

11. 05.03 Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunaren planoan sare egituratzaile bat identifikatzen da Etxebarri-Bolueta lineako tren trazatuaren gainean proposatuta, eta intermodalitate moduan identifikatzen da Euskotreneko geltokia, zeinak ez daukan aparkalekurik lotuta. Euskotrenen datuen arabera, gaur egungo plataformak ez dauka behar besteko lekurik etorkizunean tranbiaren trazatua eta bizikletetarako bide bat jartzeko, eta, ondorioz, proposamena berriro aztertu behar dela uste dute.

11. En el plano 05.03 Movilidad peatonal/ciclable, se identifica una red estructurante propuesta sobre el trazado ferroviario de la línea Etxebarri-Bolueta, identificando como intermodalidad la estación de Euskotren, que carece de aparcamiento asociado. Según los datos de Euskotren, la plataforma actual no tiene espacio suficiente para implantar el trazado del futuro tranvía y una vía ciclable, por lo que se considera necesario un nuevo estudio de la propuesta.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzern dira egindako ekarpenak, eta, oro har, oso interesgarritzat jotzen dira dokumentuaren erredakzioari begira. Ondoren, atal bakoitzaren erantzuna zehaztuko dugu:

1-2). Lehengo bi puntuetan zerrendatutako proposamenak kontuan hartuko dira dokumentuaren erredakzioaren hurrengo faserako.

3). Kukuiaga errekari buruzko proposamena bat dator LPPak ibai sarea lehengoratzeko proposamen integralarekin, izan ere, kartografian tutuan sartuta doazen ibilguak zehatz xehatu gabe ere, hainbat irizpide ezartzen dira degradatuta dauden ur arroak lehengoratzeko. Horrez gain, Paisaiaren Katalogoa, zeina BM LPParekin batera eta koordinatuta erredaktatzen den, baldintza berezi eta zehatzak eduki ahal izango ditu, ahal den heinean, garai batean tutuan sartu ziren ibaia azaleratzeko jarduketak egiteko.

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las aportaciones realizadas, que en general se consideran de gran interés para la redacción del documento. A continuación pasamos a detallar la respuesta sobre cada apartado:

1-2). Las propuestas enumeradas en los dos primeros puntos se tendrán en cuenta para la siguiente fase de redacción del documento.

3). La propuesta sobre el arroyo Kukuiaga coincide con el objetivo de regeneración integral de la red fluvial que establece el PTP, que sin entrar a cartografiar detalladamente cada uno de los cauces entubados, establece una serie de criterios de regeneración de aquellos cursos de agua que estén en situación degradada. Por otro lado, el Catálogo del Paisaje, que se redacta de forma paralela y coordinada con el PTPBM podrá contener especificaciones claras para en la medida de los posible llevar a cabo actuaciones de

descubrimiento de ríos antiguamente entubados.

4-5-6). Sarean ez dauden hornidura-hodiak aprobetxatzeari buruz aipatzen diren oharrak, edo jarduerarik ez duten lurzoru urbanizaezineko larreei buruzkoak planeamendu orokorraren esparruan geratzen diren gaiak dira, nahiz eta egia den LPPak hainbat irizpide ezar ditzakeela jarduera horiek udalen aldetik garatzeko. Beraz, dokumentua idazteko hurrengo fasean iradokizun horiek kontuan hartuko dira.

4-5-6). Las cuestiones apuntadas sobre el aprovechamiento de las conducciones de abastecimiento que no están en la red, o la de los pastos en suelo no urbanizable sin actividad son cuestiones que quedan en el ámbito del planeamiento general, si bien es cierto el PTP puede establecer criterios para que estas actividades se desarrollen de cara a su desarrollo por los municipios. Por tanto se tendrán en cuenta para la siguiente fase de redacción del documento.

7). Nerbioi ibaiaren aukerei buruzko proposamena kontuan hartuko da dokumentuaren erredakzioaren hurrengo faseari begira.

7). La propuesta sobre las posibilidades del río Nervión se tendrá en cuenta de cara a la siguiente fase en la redacción del documento.

8-9-10-11). Dokumentazio grafikoan detektatu eta azken lau puntuetan adierazitako okerrak zuzenduko dira, eta ETSrekin kontrastatuko dira trenbideari buruzko gaiak.

8-9-10-11). Se subsanarán los errores detectados en la documentación gráfica reseñados en los últimos cuatro puntos, contrastándose con ETS las cuestiones ferroviarias apuntadas.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 31 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | BFA- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendatitza Nagusia<br>DFB- Dirección General de Infraestructuras y Desarrollo Territorial |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 04/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

A.- Bilbo Metropolitarraren LPParen Helburu Estrategikoei dagokienez:

BM LPParen Aurrerapenaren helburu orokorrekin bat datoz, batez ere hiri eredu trinko bati buruz dagokionez, hiri berriztapenean, erabileren nahasketan eta mugikortasun jasangarrian oinarrituta. Bereziki aipatzen dira mugikortasun behartu gutxiago behar duen hiri eredu bat, garraio kolektiboko sareen bilbe antolatu batekin (1. Helburua); mugikortasunaren piramidean inbertitzea, intermodalitatean, garraio publikoan eta motorrik gabeko moduetan oinarrituta (4. Helburua), eta dauden bilbeekin loturarik ez duten erabilera masiboko ekipamenduak eta aisia eremuak murriztea (6. Helburua).

Helburu eta irizpide orokorretan beste urrats bat gehiago egitea planteatzean da, honako mekanismo hauen bitartez:

1. LPParen erredakzioan zehar aztertzea aurreikusi diren garapen poltsa berriek ea bermatu ditzaketen mugikortasun jasangarriko moduak onartzeko

Resumen de la sugerencia:

A.- En relación a los Objetivos Estratégicos del PTP de Bilbao Metropolitano:

Se comparten los objetivos generales del Avance del PTP BM, especialmente en lo que se refiere a un modelo urbano compacto, denso, basado en la renovación urbana, la mezcla de usos y la movilidad sostenible. Singularmente un modelo urbano que requiera menos movilidad forzada y con una trama de redes de transporte colectivo ordenados (Objetivo 1); invertir la pirámide de movilidad en base a la intermodalidad, el transporte público y los modos no motorizados (Objetivo 4) y restricción de equipamientos y áreas de ocio de uso masivo sin continuidad con las tramas existentes (Objetivo 6).

Se plantea dar un paso más allá de los objetivos y criterios generales, mediante los siguientes mecanismos:

1. Analizar durante la redacción del PTP si las nuevas bolsas previstas de desarrollo pueden garantizar las cuotas mínimas de aceptación de modos de movilidad

gutxieneko kuotak: garraio publikoko sareak, txirringetarako ibilbide sarea eta oinekoentzako sarea.

2. Gai hori udal planeamenduaren eskalara eramatea proposatzen da, LPParen araudian sartuz beharrezko ebaluazio mekanismoak, asentamendu berriak sailkatu ahal izateko (hori funtsezkoa da lurzoru urbanizagarrietarako), LPPan proposatzen den mugikortasun eredua derrigortasunez bermatzeko. Bi proposamen aipatzen dira, zeinak Eusko Jaurlaritzari ere helarazi zaizkion, Jarduera Ekonomikoetarako LPSaren Berrikuspen Partziala idaztearekin batera, Saltoki Handiei dagokienez:

   a) Garraio jasangarrian iristeari buruzko azterketa: garraio publikoa, oinezkoa, bizikleta... mugikortasuna eragingo duten elementu berrietan. Araudian jarraibide batzuk sartzea irisgarritasun azterketa horiek egiteko: Mugikortasun jasangarriko moduak lortzeko gutxieneko kuota, garraio publikoko sareak (maiztasunak, edukierak, dauden lineak, sustatzaileek eta, horrelakorik egon ezean, enpresek egin beharreko kudeaketa), oinezkoek eta bizikletek erabiltzeko ibilbideak (eremuen barruan eta kanpoan), azpiegituren kudeaketa, finantzaketa sistemak...

   b) Zirkulazioaren azterketa, inguruko errepideen egoera ebaluatu ahal izateko, udalerrian dagokion

sostenible: redes de transporte público, red de itinerarios ciclistas y peatonales.

2. Se propone trasladar esta cuestión a escala del planeamiento municipal, incorporando en la normativa del PTP aquellos mecanismos de evaluación necesarios para poder clasificar los nuevos asentamientos (fundamental para los suelos urbanizables), garantizando de forma preceptiva el modelo de movilidad que se propone en el PTP. Se apuntan dos propuestas que han sido trasladadas también al Gobierno Vasco en el marco de la redacción de la Revisión Parcial del PTS para Actividades Económicas en lo relativo a los Grandes Centros Comerciales:

   a) Estudio de accesibilidad en transporte sostenible: transporte público, peatón, bicicleta... a los nuevos generadores de movilidad. Incluir en la normativa unas directrices para la realización de estos estudios de accesibilidad: cuota mínima de captación de modos de movilidad sostenible, redes de transporte público (frecuencias, capacidades, líneas existentes, gestión por parte de promotores y empresas si no existieran), itinerarios para los usos peatonales y ciclables (dentro y fuera de los ámbitos), gestión de las infraestructuras, sistemas de financiación...

   b) Estudio de Tráfico que permita evaluar la situación de las

sarera zabalduta, eta jarduera berriak horietan izan dezakeen eragina ere aztertzea, egoera indartzeko egin daitezkeen jarduerak zehazteko edo daudenak hobetzeko, edo, bestela, sailkatzeko ezintasuna, dagokion bide motak daukan egoeragatik. Azpiegiturak egotea edo egongo direla aurreikustea beti ez da izaten egingarritasunaren sinonimo.

carreteras de su entorno, con extensión a la red municipal afectada, y el potencial impacto de la nueva actividad en éstas, de cara a delimitar las posibles actuaciones de refuerzo o mejora sobre las mismas, o en su defecto la imposibilidad de clasificación por la situación en que se encuentre la vialidad afectada. La existencia o previsión de infraestructuras no siempre es sinónimo de disponibilidad.

<u>B.- Diagnostikoaren Fasean jasotako Bide Azpiegituren Sareari dagokionez</u>:
Hainbat zehaztapen sartzen dira Diagnostikoaren dokumentuan jasotako bide sareari buruz: Errepideen LPSan baztertutzat jotzen diren hainbat jarduketa, mantentzen jarraitzen den hainbat jarduketa, eta 04-01 "Bide azpiegituren" planoari egindako hainbat zuzenketa.

<u>B.- En relación con la Red de Infraestructuras Viarias recogida en la Fase de Diagnóstico:</u>
Se incluyen una serie de puntualizaciones en relación a la red viaria recogida en el documento de Diagnóstico: actuaciones que pueden considerarse descartadas en el PTS de Carreteras, actuaciones que se siguen manteniendo y algunas correcciones al plano 04-01 "infraestructuras viarias".

<u>C.- Aurrerapen Fasean jasotako Bide Azpiegituren Sareari dagokionez:</u>
Desberdintasun batzuk hauteman dira BM LPParen Aurrerapenean jasotako bideen eskemaren eta Sail hau Bizkaiko Errepideen LPSaren Berrikuspenean baloratzen ari denaren artean, hala nola:

a) <u>Eskuinaldea:</u>

- <u>Iparraldeko Ardatza: Bolue-Loiu-Aireportua-Parke Teknologikoa</u>: Aurreko LPSaren ardatza mantentzen da, Unibertsitatearen eta Aireportuaren artean konektatzeko arku berri bat gehituta, gehi Derio-Parke Teknologikoaren tarte berri bat,

<u>C.- En relación con la Red de Infraestructuras Viarias recogida en la Fase de Avance</u>:
Se han identificado algunas diferencias entre el esquema viario recogido en el Avance del PTP BM y el que está valorando este Departamento en la Revisión del PTS de Carreteras de Bizkaia., que son las siguientes:

a) <u>Margen Derecha</u>:

- <u>Eje Norte: Bolue-Loiu-Aeropuerto-Parque Tecnológico</u>: Se mantiene el eje del PTS anterior, incorporando un nuevo arco de conectividad entre la Universidad y el Aeropuerto, más un nuevo tramo Derio-Parque Tecnológico, que garantice una

Parkerako irisgarritasuna bermatzeko. Tarte horretan laguntzeko, zati batean Aireporturako Ekialdeko Sarbidea egiteko aurreikusita dagoen iparraldeko trazatua erabil daiteke (LPSaren Berrikuspenean hori kentzea proposatzen da). Azpiegitura hori "ekobulebar" motako soluzioekin diseinatuko da, norabide bakoitzean bi errailekin, eta oinezkoentzako eta bizikletetarako espazioekin. Ardatz hori zeharka lotuko beharko da Itsasadarrerantz, bi bide azpiegitura hauen bitartez:

- Unibertsitatea-Artatzako errepidea-Astrabudua-Axpe: BI-647aren galtzada bikoiztea Unibertsitatearen biribilgunearen eta Artatzako errepideko loturaren artean (zeina indartu egin beharko den). Azpiegitura berri bat, "tunela, Artatzako loturatik Altzaga auzoraino", Astrabuduko saihesbidearen ordez, Ballontiko Korridorearekin konektatzeko, Axpeko Zubiaren bitartez.

- Sakoni-Katea-Loiu ardatza: Arrontegiko Zubiaren eta BI-735aren arteko zirkulazioa antolatuko du, Kukularrako lotunean biribilgune berri batekin. Asuako eskuin ertzetik jarraituko du, Kateako biribilguneraino. BI-2704tik jarraituko du, Iparraldeko Ardatza topatu arte, Loiu parean. Zatirik gehiena

accesibilidad redundante al Parque. Este tramo podría apoyarse en parte en el trazado norte previsto para la actuación del Acceso Este al Aeropuerto (que se propone eliminar en la Revisión del PTS). Esta infraestructura se diseñará con soluciones tipo de "ecobulevard" con dos carriles por sentido y espacios para peatones y ciclistas. Este eje deberá coserse transversalmente hacia la Ría por las dos infraestructuras viarias siguientes:

- Eje Universidad-La Avanzada-Astrabudua-Axpe: duplicar la calzada de la BI-647 entre la rotonda de la Universidad y el enlace de la carretera de La Avanzada (que deberá reforzarse). Nueva infraestructura "túnel desde el enlace La Avanzada hasta el barrio de Altzaga", en sustitución de la variante de Astrabudua, para conectar con el Corredor del Ballonti a través del Puente de Axpe.

- Eje Sakoni-Las Cadenas-Loiu: articulará el tráfico entre el Puente de Rontegi y la BI-735 con una nueva rotonda en el nudo de Kukularra. Continuará por la margen derecha del Asua hasta la rotonda de La Cadena. Continuará por la BI-2704 hasta interceptar con el Eje Norte a la altura de Loiu. Podría diseñarse en

"ekobulebar" moduko irtenbideekin diseinatu liteke.

b) Bilbo Metropolitarreko Ekialdeko Zona:

- Ekialdeko saihesbidea: Indarrean dagoen LPSak aurreikusitako trazatua aldatzen da, Santo Domingoko tunelaren ordez, Txurdinagaren eta Derioko Loturaren artean beste bat jarriz.

c) Erdialdeko Zona:

- Errekaldeko saihesbidea: LPSaren proposamena mantentzen da, Udalarekin adostutako irtenbide batekin, eta gaur egun tramitatzen ari den HAPOaren Aurrerapenean jasotzen da.

d) Ezkerraldea/Meatze Eremua:

- Ballontiko ardatza: Diagnostikoaren fasean Portugalete-Balparda tartea amaitzea sartzen zen, baina Aurrerapenean desagertu egin da. Ballontiko ardatza amaitzea lehentasunezkoa da, bai Karmen-Kueto tarterako, bai Portugalete-Balparda tarterako.

- Superportuko Mendebaldeko Sarbidea: Errepideen LPSan mantentzen da.

- Enkarterriko Eskualdearen irisgarritasuna A-8 autobidetik. Las Carreras-Muskiz-Sopuerta

su mayor parte con soluciones de tipo "ecobulevard".

b) Zona Este Bilbao Metropolitano:

- Variante Este: Se modifica el trazado previsto en el PTS vigente, sustituyéndose el túnel de Santo Domingo por otro entre Txurdinaga y el Enlace de Derio.

c) Zona Centro:

- Variante de Rekalde: Se mantiene la propuesta del PTS con una solución consensuada con el Ayuntamiento que se recoge en el Avance del PGOU actualmente en tramitación.

d) Margen Izquierda/Zona Minera:

- Eje del Ballonti: Si bien en la fase de Diagnóstico se incluida la finalización del tramo Portugalete-Balparda, en el Avance se ha obviado. La finalización del eje del Ballonti es una actuación prioritaria tanto para el tramo Carmen-Kueto como para el Portugalete-Balparda.

- Accesibilidad Oeste al Superpuerto: Se mantiene en el PTS de Carreteras.

- Accesibilidad Comarca Encartaciones desde Autovía A-8. Eje Las Carreras-Muskiz-

ardatza Ardatz berri bat proposatzen da Baoko lotunean A-8an (Parke Teknologikoa), iparraldetik inguratuz Las Carreras auzoa eta ekialdetik Muskiz, BI-2701era jotzeko.

- N-634 Bilbo eta Muskiz artean: Errepide horrek hasierako funtzionalitatea galdu du eta, ondorioz, Intereseko Lehentasunezko Sarean egoteari utziko dio, Errepide Sare Lokalaren barruan sartzeko. Hainbat udalek (Bilbo, Barakaldo eta Trapagaran) bere gain hartu dute titulartasuna, izaera urbanoagoa duen bide bihurtzeko helburuarekin.

e) Nerbioi:

- Nerbioiren ardatza: BI-625a bitan banatzeko lana egiteke dago Zaratamo eta Arrigorriaga artean (AP-68 lotura), eta, halaber, errepide horretan tunel bat ezartzea falta da, Arrigorriaga Ugao-Miravallesekin lotzeko, mendebaldetik, bi udalerrietako mugan.

D.- Bizikleten Mugikortasun Sareari dagokionez:
Aurrerapenean, bizikleten mugikortasunerako proposamenaren oinarrian EAEko 2003-2016 Bizikleta Plan Nagusia dago. Bizkaiko Bizikleta Bideen LPSa hasierako fasean dago, eta aurreikusita dago aurreko dokumentuetan jasotako tarte batzuetan aldaketak egotea, batez ere Ezkerraldean-Meatze Eremuan.

Sopuerta: Se propone un nuevo eje entre el enlace de Bao en la A-8 (Parque Tecnológico), circunvalando por el norte el barrio de Las Carreras y por el Este a Muskiz, hasta dirigirse a la BI-2701.

- N-634 entre Bilbao y Muskiz: Este vial ha perdido su funcionalidad inicial por lo que dejará de pertenecer a la Red de Interés Preferente, para englobarse dentro de la Red Local de Carreteras. Varios ayuntamientos (Bilbao, Barakaldo y Trápaga) han asumido su titularidad al objeto de transformarla en una vía con un carácter más urbano.

e) Nerbioi:

- Eje del Nerbioi: Falta por ejecutar el desdoblamiento de la BI-625 entre Zarátamo y Arrigorriaga (enlace AP-68) y por implementar un túnel en dicha carretera que comunicaría Arrigorriaga con Ugao-Miraballes por la zona oeste el límite entre ambos municipios.

D.- En relación con la Red de Movilidad Ciclista:

La propuesta para la movilidad ciclista del Avance se basa en el Plan Director de Itinerarios Ciclistas de la CAPV y el Plan Director Ciclable 2003-2016. El PTS de Vías Ciclistas de Bizkaia está en fase de inicio y se prevé que haya modificaciones en parte de los tramos recogidos en los documentos

Eskatzen dute Aurrerapeneko bizikleten mugikortasunaren geruza bidaltzeko (word eta shape formatuak), eta beharrezkotzat jotzen da sailen arteko koordinazioa, BM LPPa eta Bizkaiko Bizikleta Bideen LPSa idazteko prozesuan.

anteriores, principalmente en la Margen Izquierda-Zona Minera. Solicitan se les remita la capa de movilidad ciclista del Avance (formatos word y shape) y se considera necesario la coordinación entre departamentos en el proceso de redacción del PTP BM y del PTS de Vías Ciclistas de Bizkaia.

Iradokizunaren erantzuna:

Jasotako iradokizunak eskertzen dira; horiek bi foru sailen artean dagoen lankidetza sakonaren prozesuaren baitan kokatzen dira, eta kontuan hartuko dira BM LPParen hasierako onespenerako dokumentua idazteko orduan.

<u>A.- Bilbo Metropolitarraren LPParen Helburu Estrategikoei dagokienez</u>:

1. Hurrengo garapenak mugikortasun jasangarriko sistemen bitartez garatzeari dagokionez, iritzia da oso irizpide garrantzitsua dela edozein garapen berri planifikatzeko garaian, ea BM LPParen erredakzioan aztertuko da gaia integratzeko modua.

2. Halaber, gai horiek udal planeamenduaren eskalara eramateko modua aztertuko da. Esan daiteke 2/2006ko Legearen premiazko neurriak garatzeko 105/2008 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, 31 artikuluak ezartzen duela edozein plan urbanistikoren iraunkortasun txostenak aurrez dauden errepide eta azpiegituren gaietan eskumena duen administrazioaren txosten bat eraman beharko duela, jakiteko planean

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las sugerencias recibidas que se enmarcan dentro del proceso de intensa colaboración que se viene manteniendo entre ambos departamentos forales y que serán tenidas en cuenta en la redacción del documento para aprobación inicial del PTP BM.

<u>A.- En relación a los Objetivos Estratégicos del PTP de Bilbao Metropolitano</u>:

1. En relación a que los futuros desarrollos puedan ser servidos por sistemas de movilidad sostenible, se considera que es un criterio importante a la hora de planificar cualquier nuevo desarrollo y en la redacción del PTP BM se estudiará la manera de integrar esta cuestión.

2. Igualmente se estudiará la manera de trasladar estas cuestiones a escala del planeamiento municipal. Cabe señalar que el artículo 31 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, establece que el informe de sostenibilidad de cualquier plan urbanístico deberá incluir un informe de la administración competente en materia de carreteras y demás infraestructuras preexistentes acerca de la afección previsible de las previsiones contenidas

aurreikusten diren jarduketek zein eragin izango dutela aurreikusten den; gainera, sareko trafikoaren eta intzidentziaren gaineko azterketak ohiko mekanismoa dira ezarpen jakin batzuk baztertzeko edo neurri zuzentzailek eta konpentsatzaileak ezartzeko. Halere, kontuan hartuko da LPPan horri buruzko aipamena egitea egokia dela, udalen eskalan jarduteko irizpide moduan.

C.- Aurrerapen Fasean jasotako Bide Azpiegituren Sareari dagokionez:

Iradokizunen idatzian aipatutako jarduketa zehatz guztiak kontuan hartuko dira, eta Errepideen LPSaren eta BM LPParen artean ahalik eta koordinaziorik handiena bilatuko da, baina beharrezkoa da kontuan hartzea izaera eta irismen desberdineko instrumentuak direla eta, ondorioz, desberdintasun batzuk egon daitezkeela dokumentu bat edo beste formalizatzeko garaian. BM LPPa izaera estrategikoko dokumentu bat da, lurraldearen ikuspegi integralarekin, eta daukan horizonte tenporala programazio sektorialarena baino luzeagoa izan daiteke, eta bere proposamenek ez dute izango aipatu programazio sektorialarena bezain zehaztapen maila.

D. Bizikletetarako bideei dagokienez:

Errepideen kasuan bezala, ahalik eta koordinaziorik handiena bilatuko Bizikleta Bideen LPSarekin, bi dokumentuen izaeraren berezko desberdintasunen barruan.

en el plan y que los estudios de tráfico y de incidencia sobre la red constituyen un mecanismo habitual para descartar determinadas implantaciones o para establecer medidas correctoras y/o compensatorias. No obstante se tendrá en cuenta la pertinencia de hacer referencia a ello en el PTP como criterio de actuación en la escala municipal.

C.- En relación con la Red de Infraestructuras Viarias recogida en la Fase de Avance:

Se tendrán en consideración todas las actuaciones concretas apuntadas en el escrito de sugerencias, buscando la mayor coordinación posible entre el PTS de Carreteras y el PTP BM, si bien es necesario tener en cuenta que se trata de instrumentos de diferente naturaleza y alcance, con lo que puede haber algunas diferencias entre la formalización de uno u otro documento. El PTP BM es un documento de carácter estratégico, con una visión integral del territorio y un horizonte temporal que bien puede superar el de la programación sectorial, si bien sus propuestas carecerán del grado de concreción de dicha programación.

D. En relación a las vías ciclistas:

Al igual que en el caso de las carreteras, se buscará la máxima coordinación con el PTS de Vías Ciclistas, dentro de las diferencias propias del carácter y naturaleza de ambos documentos.

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 32 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | BFA- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia<br>DFB – Dirección General de Agricultura |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 04/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Iradokizuna hiru zatitan antolatuta dago: Aurrekariak, Analisia eta Proposamenak.

Analisiaren atalean hainbat alderdi aipatzen dira, hala nola:

– Hasierako Agiri Estrategikoak (HAE) bi aukera baino ez ditu, O Alternatiba edo Jarduketa Gabea, eta 1 Alternatiba, gaur egungo egoerara egokiago moldatzen den lurrlade bat planteatzen duena.

– Lurralde eredu egokituaren proposamen berrian HAEan jasotako hainbat alderdi deskribatzen dira, eta "azaleko urak babesteko esparruen" kategoriari erreparatzen dio, baldintzatzaile gainjarri moduan adierazitako korridore ekologikoen bi motak (bost korridore berde eta lau korridore urdin).

– Ehizari buruzko 2/2011 Legean, martxoaren 17koan, ezarritako sailkapena aipatzen da, zera

Resumen de la sugerencia:

La sugerencia se estructura en tres partes: Antecedentes, Análisis y Propuesta.

En el apartado de Análisis, se apuntan cuestiones como:

– El Documento Inicial Estratégico (DIE) contiene únicamente dos alternativas, la Alternativa 0 de No Actuación y la Alternativa 1 que plantea un modelo territorial nuevo adecuado a la situación actual.

– Se describen aspectos recogidos por el DIE en esta nueva propuesta de modelo territorial adaptado, deteniéndose en la categorización de las "áreas de protección de aguas superficiales", los dos tipos de corredores ecológicos señalados como condicionantes superpuestos (cinco corredores verdes y cuatro corredores azules).

– Se hace referencia a la clasificación establecida en la Ley 2/2011 de 17 de

azpimarratuz:

- Zeberio udalerriko lursailak Zeberioko Ehiza Kontrolatuko Eremuan sartuta daude.

- BMko eremu funtzionalaren barruan Serantes Mendiko faunaren gordelekua (ehiza) eta Gorlizeko Abeletxea daude, eta azaleko ur masak ere faunaren gordelekutzat hartzen dira 2/2011 Lege horren arabera.

- BMko eremu funtzionalaren barruan araudi berezia duten paseko lerro hauek daude: Akerre, Arandio, Artebakarra, Gaztelumendi, Goikogane, Irumugarrieta, Juanarraga, Lauromendi, Mandoia, Markio, Portume, Pozozabale, Trauku, Txatxamintxa, Upo-makintza, Urresti, Zarandea.

– Azkenik, ibaietako uretako arrantza aprobetxamendua arautuko duen arautegia garatzen duen 1559/2018 Foru Aginduan, martxoaren 7koan, jasotako hainbat alderdi aipatzen dira (arrantzarako erregulazioa).

  - Ziprinidoen ur tartetzat jotzen diren ibai tarteek jasotzen dira (9. artikulua).
  - Arrantza Eskola moduan deklaratuta dauden tarteak adierazten dira (19. artikulua).
  - Adierazten denez, 122. Artikuluan eta V. Eranskinean ezarritakoaren arabera,

marzo, de Caza, remarcando que:

- Los terrenos del TM de Zeberio están incluidos en la Zona de Caza Controlada de Zeberio
- Dentro del área funcional del BM se encuentran los refugios de fauna (caza) del Monte Serantes y de la Granja de Gorliz, además de que las masas de agua superficiales se consideran también refugio de fauna según esta Ley 2/2011.
- Dentro del área funcional del BM se encuentran las siguientes líneas de pase con reglamentación especial: Akerre, Arandio, Artebakarra, Gaztelumendi, Goikogane, Irumugarrieta, Juanarraga, Lauromendi, Mandoia, Markio, Portume, Pozozabale, Trauku, Txatxamintxa, Upo-makintza, Urresti, Zarandea.

– Se hace referencia por último a varias cuestiones recogidas en la Orden Foral 1559/2018, de 7 de marzo, por la que se desarrolla la normativa que regulará el aprovechamiento de la pesca continental (regulación piscícola).

  - Se señalan los tramos de ríos considerados como de Tramos de ciprínidos y Otros (art. 9).
  - Se señalan los tramos que están declarados como Escuela de Pesca (art. 19).
  - Se señala que según lo dispuesto en el artículo 122 y en el Anexo V, queda

debekatuta dago galarazitako tarteetan edonolako arrainak edozein modutan arrantzatzea, eta horietako batzuk nabarmentzen dira.

Proposamenen atalean, positibotzat jotzen da dokumentuan lurraldearen konektibitate ekologikoaren irizpideak integratzea, lurzoru urbanizaezinean korridore ekologikoen sare bat ezarriz baldintzatzaile gainjarri moduan.

Eta azaleko uren ibilguak babesteko tarteak zabaltzea proposatzen da, erriberako landaredia sartzeko, bereziki haltzadi kantauriarraren lehentasunezko habitata.

Gomendatzen da antolamenduaren kategoriaren zabalera handitzea, behar den lekuetan, lurzoru urbanizaezineko "azaleko urak babesteko eremuei" dagokienez, kategoria horren barruan sartuta gera daitezen Batasunaren Intereseko Lehentasunezko habitatak: Habitaten Gidalerroko 91EO* Haltzadiak eta Lizardiak.

Iradokizunaren erantzuna:

Sailak dokumentua lantzeari begira egindako ekarpenak eta jarraibideak eskertzen dira, eta kontuan hartuko dira hurrengo faseari begira, non derrigor bete beharrekoa izango den Ehiza eta Arrantzari buruzko araudi berezia, nahiz eta ez de berariaz aipatzen LPParen Aurrerapenean adierazitako helburu eta irizpideen artean.

Gomendatzen da antolamenduaren kategoriaren zabalera handitzea, behar den lekuetan, lurzoru urbanizaezineko "azaleko urak babesteko eremuei" dagokienez, kategoria

prohibida la práctica de todo tipo de pesca de cualquier especie en los tramos vedados, destacando algunos de ellos.

En el apartado de propuestas se considera positiva la integración de criterios de conectividad ecológica territorial en el documento, al establecer una red de corredores ecológicos como condicionante superpuesto en el suelo no urbanizable.

Y se propone ampliar las franjas de protección de los cursos de agua superficial para incluir la vegetación de ribera, especialmente el hábitat prioritario de la aliseda cantábrica.

Se recomienda ampliar la anchura de categoría de ordenación de "áreas de protección de aguas superficiales" del suelo no urbanizable, allí donde sea necesario, para que queden incluidas dentro de dicha categoría las manchas del hábitat prioritario de interés comunitario 91EO*Alisedas y fresnedas de la Directiva Hábitats.

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las aportaciones e indicaciones facilitadas por este Departamento de cara a la elaboración del documento, que se tendrán en cuenta de cara a la siguiente fase, donde la normativa específica sobre Caza y Pesca se entiende de obligado cumplimiento, aunque no se cite expresamente entre los objetivos y criterios señalados en el Avance del PTP.

Asimismo se tomará en consideración la recomendación realizada sobre la posibilidad de ampliar la categoría de ordenación de "áreas de protección de aguas superficiales" del suelo no

horren barruan sartuta gera daitezen Batasunaren Intereseko Lehentasunezko habitatak: Habitaten Gidalerroko 91EO* Haltzadiak eta Lizardiak.

urbanizable, allí donde sea necesario, para que queden incluidas dentro de dicha categoría las manchas del hábitat prioritario de interés comunitario 91EO*Alisedas y fresnedas de la Directiva Hábitats

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 33 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Ekologistak Martxan Bizkaia |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 15/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Hainbat proposamen orokor egiten dira:

– Planak berrikusteko prestatzen diren dokumentuetan (LPP, HAPO, LAGak, NBAP) balorazio bat sartzea egindakoari buruz, egiteko geratzen denari buruz eta proposamen berriei buruz, horiek egiteko denborak barne.

– Gauzatu ez diren proposamenak eta planak premiaz prestatu eta martxan jartzea.

– Planen berrikuspenak eta azterketa denboran eta modu egokian sekuentziatzea.

– Dokumentuak eta proposamenak berrikustea, datu batzuk zaharkituta daudelako (adibidez, Bolintxuko urtegia aipatzen jarraitzen da (EB6), hura zeharo bete eta murrua apurtu egin baitzen 1983ko uholdeetan).

Ingurune Fisikoaren Antolamenduari

Resumen de la sugerencia:

Se hace una serie de propuestas Generales:

– Incorporar en los documentos que se elaboran para la revisión de los diferentes planes (PTP, PGOU, DOTs, PORN) una valoración de lo realizado, de lo que queda pendiente, las nuevas propuestas y una temporalización para realizarlas.

– Que se elaboren y se pongan en marcha de manera urgente las propuestas y planes propuestas que no se han elaborado.

– Secuenciar de manera adecuada en el tiempo la revisión y análisis de los diferentes planes.

– Revisar los documentos propuestas ya que existen datos desfasados (ej: se sigue nombrando el embalse de Bolintxu (EB6) que se colmató y su muro se rompió en 1983 con las inundaciones).

Sobre la Ordenación del Medio Físico:

dagokionez:

– Babes Bereziaren kategorian:

  o Barrikatik Bakiorainoko eremu guztia, Butroeko arroa barne, Ingurumen Eremu Sentiberatzat jotzea, eta ingurua antolatu, babestu eta hobetzeko planak egin eta bitartekoak jartzea.

  o Astrabuduko ibarreko hezeguneari bertan dagoen hezegunea babestu, hobetu, lehengoratu eta berreskuratzeko proiektu bat ematea.

  o Etxerreko urmaelerako, Basauri udalerrian, proiektu bat egitea bertako balio naturalak babestu, hobetu, lehengoratu eta berreskuratzeko, ura garbitzeko, eta bertan dagoen hezegunea lehengoratzeko. Halaber, esparru hori bere inguruneareki8n integratzea, 2006tik pixkana urbanizatuz joan baita.

– Basoen kudeaketari dagokionez:

  o Bilboko lursailetan bertako basoa lehengoratzeko proposamenak iradokitzen dira:

    - BFAren eta Erabilera Publikoko Mendien mendi ondareko azalera arboladunaren %100 bertako basoa lehengoratzera zuzentzea.
    - Titulartasun partikularreko mendietan azalea arboladuna Naturatik Hurbileko Baso Kudeaketako tekniken bidez

– En la categoría de Especial protección:

  o Considerar toda la zona desde Barrika a Bakio, incluida la cuenca del Butrón, como Áreas Ambientalmente Sensibles y se le dote de los planes y medios para ordenar la zona, protegerla y mejorarla.

  o Dotar a la zona húmeda de la vega de Astrabudua de un proyecto de protección, mejora, regeneración y de recuperación de la zona húmeda existente en esta zona.

  o Dotar a la charca de Etxerre, situada en el municipio de Basauri, de un proyecto de protección, mejora, regeneración y recuperación de sus valores naturales, limpieza del agua y de recuperación de la zona húmeda existente en esta zona. Igualmente integrar esta zona con su entorno ya que desde el 2006 su entorno ha sufrido una paulatina urbanización.

– Sobre la Gestión forestal:

  o Se sugieren propuestas para la recuperación del bosque autóctono en los terrenos de Bilbao:

    - Destinar el 100% de la superficie arbolada de los montes patrimoniales de la DFB y los Montes de Utilidad Pública a la conservación del bosque autóctono.
    - Contribuir a que los montes de titularidad particular la superficie arbolada se gestione con técnicas de Gestión

kudeatzen laguntzea, baso soilketa eta matarrasak erabili gabe. Hainbat neurri iradokitzen dira, hala nola:

- Erriberako basoak lehengoratzea 10 m-raino ibilguaren alde bakoitzean, eta kontserbatzeko lurzorutzat hartzea.
- Basa eta Itsas Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartuta dauden etae “Galzoriko espezie” edo “Espezie kaltebera” moduan katalogatuta dauden espezie, azpiespezie eta populazioak bizi diren baso lurrak kontserbatzeko erabiltzea.
- Basoa kudeatzeko teknika jasangarriak erabiliz ekoizten dituzten mendi pribatuak egurra ziurtatzeko FSC sistemaren barruan sartzea.

– Bilboko Udalaren eta partikularren arteko itunpeko kontratuak ez berritzea, horrelakorik egonez gero, horrek mendi publikoa pribatizatzea dakarrelako.

– Bertako zuhaitz hostozabaleko landaketak landaketa organikoko

Forestal Próxima a la Naturaleza, sin la utilización de cortas a hecho y matarrasas. Se sugieren medidadas como:

- Restauración de los bosques de ribera hasta 10m a cada lado del cauce, pasando a ser terrenos de coservación.
- Dedicar a conservación aquellos terrenos forestales donde vivan especies, subespecies y poblaciones de flora incluidas en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora Silvestre y Marina y que estén catalogadas como “En peligro de extinción” o “Vulnerables”.
- En aquellos montes privados que produzcan con técnicas de gestión forestal sostenible incluirlos dentro del sistema de certificación de madera FSC.

– No renovar los contratos consorciados si los hubiera entre el Ayto de Bilbao y particulares porque suponen una privatización del monte público.

– Ejecutar con esquemas de plantación orgánicos, es decir, sin líneas definidas las

eskemekin egitea, hau da, muga definiturik gabe.

- Udalek lursail pribatu gehiago erostea, espezie babestuak hartzen dituzten lurzoruak eta %50 baino gehiagoko aldapa izanik erosio prozesuak eragin ditzaketenak lehenetsiz.

o Bilbo Metropolitarreko baso ekoizle pribatuak kudeatzeko irizpideak iradokitzen dira: Naturatik hurbileko baso kudeaketa.

Sare Berdeari dagokionez:

Indarrean dagoen LPPak (2006) Sare Berdeari buruz egiten duen definizioa eta tratamendua aztertu ondoren, arazo bat hautematen da hizkuntza edo kontzeptualizazio desberdina dagoelako Administrazioaren eta Ekologistak Martxan taldearen aldetik. Bere iritziz, Sare Berdearen kontzeptua hurbilago dago LAGek Azpiegitura Berde moduan definitzen dutenetik.

- Proposatzen da, naturaguneak kudeatzen direnean (hiri barnekoak zein periurbanoak), lehentasuna eman dakiola naturaguneetako balio naturalak babestu, lehengoratu eta berreskuratzeari, hiri barnekoak zein periurbanoak izan, ingurunea jolas eta aisiako jardueretarako errespetuz erabiltzea sustatzearen kontra egin gabe.

- Gune periurbanoetan bertako flora eta fauna lehengoratzea lehenestea, bertan urbanizazioak eta lorategiak egitea

plantaciones de frondosas autóctonas.

- Intensificar la compra de terrenos privados por parte de los ayuntamientos, priorizándose aquellos terrenos que alberguen especies protegidas o terrenos que posean una pendiente superior al 50% donde puedan generarse procesos erosivos.

o Se sugieren criterios de gestión de bosques productores privados del Bilbao Metropolitano: Gestión forestal próxima a la naturaleza.

Sobre la Malla Verde:

Tras analizar la definición y tratamiento de la Malla Verde en el PTP vigente (2006), se aprecia un problema de lenguaje o distinta conceptualización de lo que es la malla verde para la administración y para el Grupo Ekologistak Martxan. En su opinión el concepto de Malla Verde se acerca más a lo que las DOT denominan Infraestructura Verde.

- Se propone que al gestionar las zonas naturales (urbanas y principalmente periurbanas) se priorice la protección, regeneración y recuperación de los valores naturales de las zonas naturales, urbanas y periurbanas, sin que esto vaya en contra de promover el uso respetuoso del medio para actividades recreativas y de ocio.

- Priorizar en las zonas periurbanas la recuperación de la flora y fauna autóctona, evitando o limitando la urbanización y

galaraziz edo mugatuz.

– Beharrezkoa da naturaguneak lotuko dituzten korridore ekologikoak martxan jartzea.

– Parke Metropolitarrei dagokienez, esaten da indarrean dagoen LPPak (2006) jolas erabilera eta sarbideak lehenesten dituela, eta bigarren mailan uzten duela ingurumena kontserbatzea eta hobetzea:

  o Proposatzen da kudeaketa planak garatzea hiriguneko naturaguneetarako, helburu nagusia izanik bertako balio naturalak kontserbatu, lehengoratu eta berreskuratzea, eta garatuko diren erabilerak ingurumenarekiko errespetuz antolatzea, horien artean, aisia, jolas zein hezkuntza erabilerak. Gune horietarako sarbideak ere inpakturik ez sortzeko antolatzea.

  o Artxandako Parke Metropolitarrari buruz, proposatzen da Bilboko Gerriko Berdearen antolamendua (Artxandako Parkea bertan sartzen da) LPPan sartzea, bere balio naturalak mantentzeko eta lehengoratzeko, berreskurapen hori inguru horietan egiten diren erabilerekin koordinatuz.

    Halaber, proposatzen da LPPak Parke Metropolitarrerako Plan Berezi bat prestatu eta martxan jarri behar dela jasotzea (premia handiz), Cabras menditik Ganguren mendiraino, eta Artxanda ere bertan sartuta.

ajardinamiento de estas zonas.

– Necesidad de poner en marcha corredores ecológicos que enlacen los diferentes espacios naturales.

– Respecto a los Parques Metropolitanos se dice que el PTP vigente (2006) prioriza en ellos el uso recreativo y los accesos, relegando a segundo plano la conservación y mejora ambiental:

  o Se propone desarrollar planes de gestión para las zonas naturales en torno a los centros urbanos que tengan como objetivo prioritario la conservación, regeneración y recuperación de los valores naturales de la zona así como ordenar de manera respetuosa con el medio los usos que se desarrollen incluidos los usos de ocio, recreativos y educativos. También ordenar de manera no impactante los accesos a estas zonas.

  o Respecto al Parque Metropolitano de Artxanda, se propone que la ordenación del Cinturón Verde de Bilbao (donde se incluye el Parque de Artxanda) se recoja en el PTP, buscando el mantenimiento y recuperación de sus valores naturales coordinando esta recuperación con los usos que se den en esas zonas.

    Se propone así mismo que el PTP recoja la elaboración y puesta en marcha (de manera urgente) de un Plan Especial para el Parque Metropolitano desde el Monte Cabras hasta el Monte Ganguren, quedando Artxanda incluído en el

Artxanda inguruan egin daitezkeen jarduketek dauden naturaguneek mantendu ditzatela, horiek biziberrituz eta birnaturalizatuz, eta beran urbanizazio eta lorategi berriak egitea saihestuz. Eta proposatzen da lan hori premiaz egitea eta martxan jartzea, inguruarentzat dauden mehatxuengatik.

Isurtegi SL enpresaren hondakindegia zabaltzeko baimenik ez ematea.

mismo.

Que las actuaciones que se puedan realizar en la zona de Artxanda tienen que mantener las zonas naturales existentes regenerándolas y renaturalizándolas, evitando nuevas urbanizaciones y ajardinamiento de las mismas. Y se propone que su elaboración y puesta en marcha sea urgente por las amenazas existentes para esta zona.

Se propone no permitir la ampliación de la escombrera de la empresa Isurtegi S.L.

– Paisaia Intereseko Landaguneei dagokienez: Pagasarri-Ganekogorta mendia.
  - Babesteko figura bat sortzea eta hori premiaz prestatu eta garatzea.
  - Ingurumen unitatea kontuan hartzea (10 udalerri hartzen ditu).
  - LPPan mekanismoak prestatzea instituzioak koordinatu ahal izateko, herritarren parte hartzea bultzatuz.

– Respecto a las Áreas Rurales de Interés Paisajístico: Monte Pagasarri-Ganekogorta.
  - Crear una figura de protección y que su elaboración y desarrollo sea urgente.
  - Tener en cuenta toda la unidad ambiental (que abarca 10 municipios).
  - Habilitar mecanismos en el PTP para posibilitar la coordinación entre las diferentes instituciones, facilitando la participación ciudadana.

Iradokizunaren erantzuna:

Bizkaiko Ekologistak Martxan taldearen ikuspegi eta perspektibarekin egindako ekarpenak interesgarritzat jotzen dira, eta, beraz, kontuan hartuko dira hasierako onespenerako dokumentuaren behin betiko lanketarako.

Contestación a la sugerencia:

Las aportaciones realizadas desde la visión y perspectiva de Ekologistak Martxan de Bizkaia se consideran interesantes y como tal, se tomarán en consideración de cara a la elaboración definitiva del documento para aprobación inicial.

Nahiz eta oraindik prozesuaren hastapenetan gauden, eta erabakiak hartu baino lehenago prozesuan, hainbat alderdi aipatu nahi dira egindako ekarpenen inguruan:

- Proposamen orokorrei dagokienez, Hasierako Onespenerako dokumentuak Azterketa Ekonomiko-Finantzario bat eta Exekuzio Programa bat ere izango ditu (indarrean dagoen LPPak dauzkan bezalaxe), eta hor baloratuko dira proposamenak eta 4 urteko etapatan programatu, nahiz eta proposamen asko organismo eta politika sektorialen menpe dauden. Halaber, Aurrerapenaren dokumentua berraztertuko da eta detektatutako akatsak zuzenduko dira.
- Butroe inguruari buruzko proposamenari dagokionez, gune hori guztia "Uribe Kosta-Butroeko ingurumen balioak eta ondare naturala babesteko baliabide naturalak antolatzeko planean" egindako proposamenean jasota dago. Espazio hori biotopo babestua deklaratzeko prozesuan dago, eta, aldi berean, Europako 2000 Natura Sarean sartzeko prozedura hasita dago, Estatuko Administrazioak bultzatu duen Itsas Sarearen proposamenarekin koordinatuta. Diagnostikoaren fasean jaso da, eta Plan honek landutakoaren baitan babestuta geratu da.
- Hezeguneak babesteko proiektua. Proposamenak Hasierako Onespenaren dokumentuan aztertuko dira.

Aunque todavía nos encontramos en un momento preliminar del proceso, y anterior a la toma de decisiones, se apuntan algunas cuestiones al respecto de las aportaciones realizadas:

- Con respecto a las propuestas generales el documento para Aprobación Inicial incluirá un Estudio Económico-Financiero y un Programa de Ejecución (al igual que lo incluye el PTP vigente) donde se valorarán las propuestas y se programarán por etapas de 4 años, si bien muchas de las propuestas dependen de organismos y políticas sectoriales. Asimismo se revisará el documento de Avance y se subsanarán las erratas detectadas.
- Con respecto a la propuesta relativa a la zona de Butrón, toda esta zona se encuentra recogida dentro de la propuesta del "plan de ordenación de los recursos naturales para la protección y conservación de los valores ambientales y patrimonio natural Uribe Kosta-Butrón". Este espacio se encuentra en proceso de ser declarado como biotopo protegido, iniciándose a su vez el procedimiento para su inclusión en la Red Natura 2000 europea, en coordinación con la propuesta de la Red Marina propiciada por la Administración Estatal. Se ha recogido en fase de diagnóstico y ha quedado protegido dentro de lo elaborado por este Plan.
- Proyecto de protección de humedales. Se analizarán las propuestas en el documento para Aprobación Inicial.

- Basoak kudeatzeko eredu berriari buruz egindako proposamenei dagokienez, argitu behar da baso politika Mendiak arautzeko indarrean dagoen legediak eta EAEko Nekazaritza eta Basoko LPSak arautzen dutela. Edonola ere, LPParen Aurrerapenak hainbat irizpide jasotzen ditu basoko praktiketan erabilera jasangarriagoak bultzatzeko, eta dokumentuaren hurrengo fasearen erredakzioan ere ildo horretan jarraituko du.
- Onura Publikoko Mendiak Mendien Legearen arabera arautzen dira, eta basoak kudeatzeko planen bitartez kudeatzen dira, eta horixe da araudi aplikagarria. LPParen Aurrerapenak dagoeneko hainbat irizpide jasotzen ditu basoko kudeaketa jasangarria babesteko, eta hasierako onespenerako dokumentuaren erredakzioaren hasierako fasean analizatu eta aztertu egingo dira iradokizun horretan egiten diren iradokizinak.
- Azpiegitura berdeari buruz egindako proposameni dagokienez, esan behar da Aurrerapenaren azpiegitura berdearen proposamenak eremu funtzionalean dauden baso eta landaredi naturaleko basotxo guztiak babestea bultzatzen duela, eta, gainera, horiek sustatzeko eta indartzeko irizpideak ezartzen ditu, gehienek sufritzen dute zatiketa saihesteko. Inguru periurbanoei eta bertako fauna eta florari dagokienez, Ekologistak Martxan taldearen proposamena berrikuspenaren fasean

- En cuanto a las propuestas del nuevo modelo de gestión forestal hay que aclarar que la política forestal está regulada por la legislación vigente en materia de Montes así como en el PTS Agroforestal de la CAPV. En todo caso el Avance del PTP recoge criterios para el impulso de usos más sostenibles en las prácticas forestales y se seguirá en esa línea en la redacción de la siguiente fase del documento.
- Los Montes de Utilidad Pública se rigen por la Ley de Montes y se gestionan siguiendo sus planes de gestión forestal y esta es la normativa que es de aplicación. El Avance del PTP ya recoge criterios de apoyo a la gestión forestal sostenible y en la fase de redacción del documento para la aprobación inicial se analizarán y estudiarán las propuestas que se hacen en esta sugerencia.
- En cuanto a las propuestas relativas a la infraestructura verde, señalar que la propuesta de infraestructura verde del Avance insta a la protección de todos aquellos bosques y bosquetes de vegetación natural presentes en el área funcional, además de establecer criterios que los potencien y refuercen su entidad, evitando la fragmentación en la que la mayoría de ellos se encuentran. En cuanto a las zonas periurbanas y su fauna y vegetación, se analizará la propuesta de Ekologistak martxan en la siguiente fase de esta

aztertuko da; edonola ere, azpiegitura ber eta urdinaren proposamena saiatzen da izaera naturalagoa duten guneak eta parke periurbanoak lotzen, konektibitatea eskala desberdinetan gauzatu ahal izateko.

– Parke Metropolitarrei dagokienez: LPParen berrikuspenak LPPan Artxanda Antolatzeko estrategiari helduko dio berriro, baina horren mugak birdefinitu daitezke, eta, jakina, kontuan hartu beharko dira udal planeamenduan onartutako aldaketak edo aurreikusten diren aldaketak, soru daitezkeen bateraezintasunak ekiditeko.

– Paisaiaren aldetik interesa duten landa guneei buruz, proposamenak kontuan hartu, baloratu eta aldi berean eta LPParekin koordinatuta idatziko den Paisaiaren Katalogoarekin kontrastatuko dira.

revisión, de todos modos, la propuesta de infraestructura verde y azul, trata de conectar los espacios de carácter más natural con zonas de parques periurbanos para que la conectividad tenga entidad a diferentes escalas.

– Sobre los Parques Metropolitanos: la revisión del PTP retomará la estrategia para la Ordenación de Artxanda recogida en el PTP, si bien se podrían redefinir sus límites y naturalmente tener en cuenta los cambios aprobados en el planeamiento municipal o cambios previsibles para evitar posibles incompatibilidades.

– Sobre las áreas rurales de interés paisajístico, se tendrán en cuenta estas cuestiones que se valorarán y contrastarán con el Catálogo del Paisaje que se redactará en paralelo y de forma coordinada con el PTP.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 34 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 02/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Aretxaldeko nekazaritzako lurzorua ez aldatzea, zeina balio agrologiko handiko lurzoru moduan sailkatuta dagoen. Industrial moduan sailkatzeko proposamena aldatu eta ezabatzea, libre dagoen lurzorua babesteko helburuarekin. Eskatzen da nekazaritzako balio handiko lurzoruak izaten jarrai dezatela.

Planifikatutako etxebizitza kopuruari buruzko aurreikuspenak behar errealetara egokitu daitezela, kontuan hartuta orain arte egondako eskariak ez direla bat etorri planifikatutakoarekin (neurrigabea dela ulertzen da). Halaber, eraikitzen diren etxebizitzak sozialak izan daitezela.

Basogintzari dagokionez, paisaia aldatzen duen norabide bakarreko ustiapena gelditzeko eskatzen du, eta eskatzen du LPPan mendiak babesteko ildo zehatzak ezartzeko eta gaur egun monolandaketarako erabiltzen diren espezie kaltegarriak galarazteko.

Resumen de la sugerencia:

No modificar el suelo agrícola de Aretxalde que está calificado como suelo de gran valor agrológico. Modificar y eliminar la propuesta de calificarlo como industrial, con el objeto de preservar el suelo vacante. Se solicita que sigan siendo suelos de alto valor agrario.

Que se adapte las previsiones sobre el número de viviendas planificadas a las necesidades reales, teniendo en cuenta que la demanda hasta la fecha no se ha correspondido a lo planificado (que se entiende exagerado). También que las viviendas que se construyan sean sociales.

Se solicita que se paralice la explotación forestal unidireccional que transforma el paisaje, por lo que se solicita que el PTP establezca líneas concretas para proteger los montes y prohibir las especies perjudiciales que se utilizan actualmente para el monocultivo.

Iradokizunaren erantzuna:

Indarrean dagoen LPPko Aretxaldeko Erreserba Estrategikoko eremua berrikusiko

Contestación a la sugerencia:

Se revisará el ámbito de Reserva estratégica de Aretxalde del PTP vigente. La delimitación de

da. Ekonomia-jardueretarako lurzoru urbanizagarrien mugapena lurralde planean (LPP) eta hirigintzakoan (HAPO) ezarritakoarekin bat etorrita egingo da. Plan biak egiten ari dira orain.

los suelos urbanizables de actividades económicas se realizará en coherencia con lo recogido en las planificaciones territorial (PTP) y urbanística (PGOU), ambas actualmente en periodo de elaboración.

Etxebizitzen eskaintzari dagokionez, LPPak LAGen berrikuspenean ezarritako metodoaren arabera egokituko du kalkulua, izan ere, indarrean dagoen LPParen eskaintzan baino askoz etxebizitza gutxiago aurreikusten du.

En cuanto a la oferta de viviendas el PTP ajustará el cálculo realizado de acuerdo al método establecido en la revisión de las DOT, que prevé un número de viviendas sustancialmente menor al de la oferta del PTP vigente.

Basoei buruz egindako iradokizunari dagokionez, argitu behar da baso politika Mendiak arautzeko indarrean dagoen legediak eta EAEko Nekazaritza eta Basoko LPSak arautzen dutela. Edonola ere, LPParen Aurrerapenak hainbat irizpide jasotzen ditu basoko praktiketan erabilera jasangarriagoak bultzatzeko, eta dokumentuaren hurrengo fasearen erredakzioan ere ildo horretan jarraituko du.

Respecto a la sugerencia realizada en materia forestal, hay que aclarar que la política forestal está regulada por la legislación vigente en materia de Montes así como en el PTS Agroforestal de la CAPV. En todo caso el Avance del PTP recoge criterios para el impulso de usos más sostenibles en las prácticas forestales y se seguirá en esa línea en la redacción de la siguiente fase del documento.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 35 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 02/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

2006ko LPPari dagokionez, uste du oso modu irregularrean garatu dela, etxebizitzak eta industria hazteko aurreikuspenak perspektiba sozioekonomiko okerrarekin egin zirela.

Lezamari buruz, aipatzen da nola Lezamako HAPOa egintza erabat deuseztzat jo zela 2018ko otsailean, eta Lezamako Udalak Auzitegi Gorenean aurkeztutako errekurtsoaren ebazpenaren zain dagoela. Eskatzen da LPPak egoera hori jasotzeko, eta jasota geratzeko 2006ko LPPan kartografiatu zen guztitik ez dela ezer gauzatu.

Beraz, eskatzen da LPParen Aurrerapenean grafiatuta dauden lurzoru urbanizagarriko bi orbanak ezabatzeko, indargabetutako HAPOaren arabera (Ugarte eta Kurtze), eta aurreko kalifikazioa berreskuratzeko (balio estrategiko handiko landa lurrak), legearen arabera, kalifikazio hori loteslea izan beharko delarik plangintzaren etorkizuneko garapenetan.

Etxebizitza eskaintzari dagokionez, eskatzen da LPP berrian eskaintzen den etxebizitza kopurua 2006ko LPPan eskainitakoa baino nabarmen txikiagoa izatea eta gaur egungo

Resumen de la sugerencia:

En relación al PTP de 2006 opina que se ha desarrollado de manera muy irregular, que las previsiones de crecimiento residencial e industrial se realizaron con una perspectiva socioeconómica equivocada.

En relación a Lezama se menciona como el PGOU de Lezama fue declarado nulo de pleno derecho en febrero de 2018, y está pendiente la resolución del recurso interpuesto por el Ayuntamiento de Lezama ante el Tribunal Supremo. Se solicita que el PTP recoja esta situación y que conste que nada de lo cartografiado en el PTP de 2006 se ha realizado.

Se solicita por tanto que se eliminen las dos manchas de suelo urbanizable de actividades económicas que se grafía en el Avance del PTP, de acuerdo al PGOU anulado (Ugarte y Kurtze) y que se recupere su anterior calificación (terrenos rurales de gran valor estratégico), y que según la ley, dicha calificación sea vinculante en los futuros desarrollos de la planificación.

En cuanto a la oferta residencial se solicita que el número de viviendas que se oferten en el nuevo PTP sea sustancialmente menor que el ofertado en el PTP de 2006 y que se tenga en

egoera eta etor daitezkeen egoerak kontuan hartzea.

cuenta el escenario real y los posibles escenarios".

## Iradokizunaren erantzuna:

Lezamako planeamenduaren errepresentazioari dagokionez, kontuan hartzen da egindako oharra eta indarrean dagoen Lezamako HAPOa kontsultatuko da, LPPan eskuragarri dagoen informazioa eguneratzeko.

Jarduera ekonomikoetarako aipatzen diren lurzoru urbanizagarrien mugaketari dagokionez, Ekonomia-jardueretarako lurzoru urbanizagarrien mugapena lurralde planean (LPP) eta hirigintzakoan (HAPO) ezarritakoarekin bat etorrita egingo da. Plan biak egiten ari dira orain.

Etxebizitzen eskaintzari dagokionez, LPPak LAGen berrikuspenean ezarritako metodoaren arabera egokituko du kalkulua, izan ere, indarrean dagoen LPParen eskaintzan baino askoz etxebizitza gutxiago aurreikusten du.

## Contestación a la sugerencia:

Respecto a la representación del planeamiento de Lezama se toma nota de la observación aportada y se consultará el PGOU de Lezama vigente, para actualizar en el PTP la información disponible.

En cuanto a la delimitación de los suelos urbanizables de actividades económicas que se mencionan, La delimitación de los suelos urbanizables de actividades económicas se realizará en coherencia con lo recogido en las planificaciones territorial (PTP) y urbanística (PGOU), ambas actualmente en periodo de elaboración.

En cuanto a la oferta de viviendas el PTP ajustará el cálculo realizado de acuerdo al método establecido en la revisión de las DOT, que prevé un número de viviendas sustancialmente menor al de la oferta del PTP vigente.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

garraioak, mugikortasuna eta lurraldearen kohesioa sustatzeko saila
departamento de transportes, movilidad y cohesión del territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 36 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Basauriko Udala<br>Ayuntamiento de Basauri |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 10/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

## Iradokizunaren laburpena:

Basauriko Udalak egindako ekarpen edo iradokizunen agiria honako puntu hauen arabera antolatuta dago: 1. 2016ko abenduko dokumentuan dagoeneko jaso ziren alderdiak (Dokumentuaren ikuspegi globala eta proposamenak), 2. Basauri udalerriari buruzko erreferentziak, eta 3. Amaierako gogoeta.

1. 2016ko abenduko dokumentuan dagoeneko jaso ziren alderdiei buruzko proposamenak (data horretan Basauriko Udalak entregatu zuen dokumentu bat da, BMLPParen Aurrerapenari buruzko hainbat gogoetarekin).

   - Kudeaketarako tresna berrien beharra lurralde mailako eskalan:

     Adierazten denez, LOTen edo Lurzoruaren Legearen garapen normatibo bat behar da, lurralde planeamenduari hori kudeatzeko tresnak emateko, izan ere, aurreikuspenak egiteko erabiltzen den eskala eta gero gauzatzeko erabiltzen dena desberdinak dira, eta araudia ere desberdina dute: urbanistikoa eta sektoriala.

## Resumen de la sugerencia:

El documento de aportaciones o sugerencias realizado por el Ayuntamiento de Basauri se estructura en base a los siguientes puntos: 1. Cuestiones ya recogidas en el documento de diciembre de 2016 (Enfoque global del documento y propuestas), 2. Referencias al municipio de Basauri, y 3. Consideración Final.

1. Propuestas sobre cuestiones ya recogidas en el documento de diciembre de 2016 (se trata de un informe entregado en esa fecha por el Ayuntamiento de Basauri con una serie de consideraciones al Avance del PTPBM)

   - Necesidad de nuevos instrumentos de gestión a escala territorial:

     Se comenta que se precisa un desarrollo normativo de la LOT y/o Ley del Suelo para dotar al planeamiento territorial de herramientas para su gestión, ya que las previsiones se realizan a una escala distinta a la que se ejecutan y bajo una normativa distinta: urbanística y sectorial.

- Jarduera ekonomikoen araudia malgutzeko beharra:

  Jarduera Ekonomikoen LPSko 10 artikuluan ezarritakoari dagokionez, Jarduera Ekonomikoetarako lurzoruak etxebizitzetarako birkalifikatzeari buruz, planeamendu orokorrak berrikusi eta aldatzearen bitartez, eta horretarako bete behar diren baldintzei buruz, proposatzen da LPPan irizpideren bat sartzea dauden lurzoru industrialen tratamendu urbanistikoa modulatzeko, salbuespen moduan hiri biziberritzeko prozesuak egiten laguntzeko, lurzoru konplexuetan bizitegi erabilerak eta industrialak gainjartzen direneko egoeretarako, bizitegi erabilerak modu mugatuan sartu ahal izateko.

- Aukerako lurzoruak (publikoak) aztertzeko eta proposatzeko beharra:

  Jotzen da lurzoru horiek, duten titulartasuna kontuan hartuta, enpresa egitasmoak, garapen berriak, parke periurbanoak, erreserba ekologikoak eta abar har ditzaketela.

- Hiri inguruneari eta etxebizitza politikari dagokionez.

  Hiria biziberritzeko honako elementu hauek gehitzea proposatzen da:

  - Beharrezko jotzen da Errehabilitazio Integratuko Arloak eta Arlo Degradatuak zerrendatu eta mugatzea (deklaratuta daudenak zein tramitatzen ari direnak).
  - Beharrezkotzat jotzen da errehabilitazio energetikoa behar

- Necesidad de flexibilizar la regulación de actividades económicas:

  En relación a lo señalado en el art. 10 del PTS de AAEE sobre la recalificación de suelos de AA.EE a residenciales mediante la revisión y modificación de los planeamientos generales, y las condiciones que se deben cumplir para ello,, se propone introducir en el PTP algún criterio de modulación en el tratamiento urbanístico de los suelos industriales existentes, a fin de facilitar la realización de procesos de regeneración urbana con carácter excepcional, en territorios complejos en que se produzcan situaciones de yuxtaposición de usos residenciales e industriales sin solución de continuidad, que posibilite la introducción delimitada de usos residenciales.

- Necesidad de análisis y propuestas en suelos (públicos) de oportunidad:

  Suelos, que dada su titularidad puedan ser considerados como suelos receptores de iniciativas empresariales, nuevos desarrollos, parques periurbanos, reservas ecológicas, etc…

- En cuanto al medio urbano y la política de vivienda.

  Para la regeneración urbana se propone incorporar los siguientes elementos:

  - Se considera necesario listar y delimitar las Áreas de Rehabilitación Integrada y Áreas Degradadas (declaradas y en tramitación).
  - Se considera necesario manchar el patrimonio edificado con necesidad

duen ondare eraikia zehaztea (50-70ko urteetako promozioak edo auzoak).

- Bizitegi eta/edo Ekipamendu Ahurretarako Programa bat ezartzeko komenigarritasuna aztertzea, abandonatutako hiri bilbea desagertu ahal izateko (Udalak eta Administrazio Publikoak, dagokion kudeaketa urbanistikoa egin aurretik), birziklatzeko edo antolamenduagatik mantentzeko aukerarik ez badago.
- Erreferentziak sartzea Udalek lokal komertzialen erabilera etxebizitzara aldatzea arautzeko komenigarritasunari buruz. LPPak, gainera, gutxieneko irizpide batzuk gehitu litzake.

"Lurraldeko Zauriak" direla eta, (Libre dauden industri lurzoruak, azpiegiturak eta irisgarritasuna):

- Iradokitzen da Araudia modulatzeko irizpideak sartzea, industri lurzoruen kalifikazioa mantentzeari dagokionez, onartuta dagoen "erabileren nahasketa" dela eta.
- Beharrezkotzat jotzen da inbentarioak egitea, aztertzea eta lurraldean egindako hainbat interbentzio (negatiboak) zuzentzera bideratutako proposamenak egitea, hala nola trenbide eta errepideen lubakiak, ur eroapenak, etab.

2. Basauriko udalerriari buruzko erreferentziak:

de rehabilitación energética (promociones o barriadas de los años 50-70).

- Analizar la conveniencia de establecer un Programa de Ruinas Residenciales y/o Equipamentales, que posibilite la desaparición de tejido urbano abandonado (por parte de los Ayuntamientos y Administraciones Públicas y previo a la gestión urbanística que proceda) cuando no hay posibilidad de reciclaje o mantenimiento por la ordenación.
- Introducir referencias a la conveniencia de regular por parte de los Ayuntamientos, el cambio de uso de locales comerciales a vivienda. El PTP podría además introducir algunos criterios mínimos.

Para abordar las "Heridas en el Territorio" (Suelos industriales vacantes, infraestructuras y accesibilidad):

- Se sugiere introducir criterios de modulación en la Normativa, respecto del mantenimiento de la calificación de suelos industriales, ante el principio asumido de "mezcla de usos".
- Se considera necesario inventariar, analizar y realizar alguna propuesta orientada a corregir determinadas intervenciones (negativas) en el territorio, tales como, trincheras de ferrocarriles y carreteras, conducciones de agua, etc…

2. Referencias al propio municipio de Basauri:

- Basauriko etorkizuneko garapenerako proposamenak:
  - Itsasadarra eraldatzeko ardatzaren luzapena, Basauri ere sartuta garatu beharreko lehentasunezko jarduketetan. Etxebarri, Basauri, Arrigorriaga ardatzaren LAGaren aurreikuspena jasoz.
  - Baskonia/Laminados Velasco pieza "zentraltasun berri" moduan aztertzea, mistifikazio posiblea, erriberako pasealekua berreskuratzea, bizirik dauden pabiloiak berrerabiltzea, Sarratuko intermodala, etab. Oraingo pieza desplazatuz (indarrean dagoen LPPko OE 15), ez baitirudi epe laburrera asko aldatuko denik (Mercabilbao, Espetxea eta Kuartelak).
  - Bilboko Ekialdeko saihesbidearen 2. fasea: Udala saihesbide bat lantzen ari da Larrazabal kalerako (Baskonia edo Laminados Velaskoko lursailetan), etorkizunean Ekialdeko saihesbidea eta N-634 errepidea lotzeko, Baskoniako zubiaren bitartez.
  - FEVE Aritz linea eta Eusko Jaurlaritzarako transferentzia posiblea. Trazatuan beste aukera batzuk aztertzea, Baskonia eta Laminados Velascoko lurzoruek eta Basauriko gainerako hiri zatiak jarraitasuna izatea galarazten duen egungo oztopoa kentzeko.
  - Arratiako tranbia desagertuaren

- Propuestas respecto al futuro desarrollo de Basauri:
  - Extensión del eje de transformación de la Ría, con inclusión de Basauri entre las actuaciones prioritarias a desarrollar. Recogiendo la previsión de las DOT del eje Etxebarri, Basauri, Arrigorriaga.
  - Análisis de la pieza de La Baskonia/Laminados Velasco como "nueva centralidad", su posible mistificación, recuperación del paseo de ribera, reutilización de los pabellones supervivientes, intermodal de Sarratu, etc. Desplazando la actual pieza (OE 15 del PTP vigente) que a corto plazo no parece que sufrirá alteraciones del estado actual (Mecabilbao, Carcel y Cuarteles).
  - 2ª Fase de la variante Este de Bilbao: El Ayto está trabajando en una variante de la calle Larrazabal (por terrenos de la Basconia o Laminados Velasco) que conecte a futuro la variante Este con la N-634 por el puente de La Basconia.
  - Línea FEVE de Ariz y su próxima transferencia al Gobierno Vasco. Posibilidad de analizar otras alternativas de trazado que posibiliten la eliminación de la actual barrera para la continuidad urbana de los suelos de La Basconia y Laminados Velasco con el resto de la trama urbana de Basauri.
  - Recuperación del trazado y

trazatua berreskuratzea eta plataforma aprobetxatzea Bidegorri moduan jartzeko.

3. Amaierako gogoeta

- Esaten denez, LPPak udalerrirako egiten dituen erreferentziak eta proposamenak eskasak dira, azterketa eta diagnostikoa Bilbotik Abraraino doan lurraldeaz egiten direlako, eta Basauri udalerriak jokatzen duen rola baztertzen delako, hiriburu metropolitarrerako sarbide moduan, lurralde mailako azpiegituren hartzaile moduan eta aukerako lurzoruen banku moduan.

  Zehazki, LPPko hainbat proposamen aipatzen dira, zeinetan badirudien Basauri ez dela agertzen, hala nola:

  - Azpiegitura berdea bultzatzea. Itsasadarri lotutako sarean libre dagoen lurzorua errebalorizatzea. LPPak ez du Basauri aipatzen.
  - Planeamendua bateratzea: LPPak ez du Basauri-Etxebarri eremua aipatzen.
  - Lurzorua lehengoratzeko eremuak identifikatzeari dagokionez (birdentsifikazioa, espazio degradatuen birziklapena...), Basauri ez da aipatzen.
  - Industri sektoreko eta tertziarioko enplegua hobetzeko esparruak identifikatzen direnean, Basauri aipatzen da, baina ez da lehentasunezkotzat jotzen.
  - Paisai espazioak integratzeari dagokionez, LPPak Eremu Funtzionalera, hau da, Bilbora, iristeko azpiegitura nagusiei

aprovechamiento de la plataforma del desaparecido tranvía de Arratia para su incorporación como Bidegorri.

3. Consideración Final

- Se señala que las referencias y propuestas del Avance del PTP para el municipio son escasas, centrándose en el análisis y diagnóstico del territorio que se extiende de Bilbao al Abra, y obviando el papel de este municipio como entrada a la capital metropolitana, como receptor de infraestructuras territoriales y como banco de suelos de oportunidad.

  Se mencionan en concreto algunas propuestas del PTP en las que parece obviarse a Basauri, tales como:

  - Impulso a la infraestructura verde. Revalorizar el suelo vacante la trama asociada a la ría. El PTP no menciona Basauri.
  - Compatibilización de planeamiento: el PTP no menciona el ámbito Basauri-Etxebarri.
  - En la identificación de ámbitos para la regeneración del suelo (redensificación, reciclaje de espacios degradados,...) no se menciona Basauri.
  - En la identificación de ámbitos de mejora del empleo del sector industrial y terciario se menciona Basauri, pero no se considera prioritario.
  - Sobre la integración de espacios paisajísticos el PTP busca el acondicionamiento e integración de espacios asociados a las principales

lotutako espazioak egokitu eta integratu nahi ditu, baina ez du Basauri zehazki aipatzen, horiek guztiek udalerrian eragin nabarmena duten arren.

infraestructuras de acceso al Área Funcional, esto es a Bilbao, sin mencionar concretamente a Basauri, pese al claro impacto de las mismas en el municipio.

Iradokizunaren erantzuna:

Kontuan hartuko dira egindako ekarpenak, eta dokumentua idazteko hurrengo fasean iradokizun horiek kontuan hartuko dira.

Lurralde Kohesiorako Zuzendari Nagusi honetatik eskertu nahi dugu Basauriko Udalak erakutsi duen prestasuna eta motibazioa, bere iradokizunak eta ekarpenak egiteko, izan ere, idatzian azaltzen denez, asmoa ez da dokumentua hobetzea eta hobetzea besterik, eta hori seguru horrela gertatuko dela.

Contestación a la sugerencia:

Se toman en consideración las aportaciones realizadas, las cuales se tendrán en cuenta para la siguiente fase de redacción del documento.

Agradecer desde esta Dirección General de Cohesión del Territorio, el ánimo y motivación expresado por el Ayto de Basauri al presentar sus sugerencias y aportaciones, que tal y como se expresa en el escrito no es otro que el de enriquecer y mejorar el documento, lo que seguro será así.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 37 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Lezamako Udala<br>Ayuntamiento de Lezama |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 14/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

1. Akatsa aurrerapenaren dokumentazio grafikoan:

   *01 Planoa- Ingurune Fisikoa eta Azpiegitura Berdea:* Planoan bi akats hauteman dira, bi lursail ELSO moduan sartu baitira (bat eskola publikoaren ondoan, etorkizunean ikastetxea handitzeko dagoena, eta beste udaletxearen ondoan, bizitegi erabilerarako dagoena).

2. Txorierriko korridorearen inguruan industri lurzoruaren beharra birdefinitzea.

   Uste da indarrean dagoen LPParen aurreikuspena, jarduera ekonomikoetarako sustapen publikoko garapen berrietarako lurzoruaren kuantifikazioari buruz (OE 18), zaharkituta geratu dela, izan ere, neurri handiko eta izaera publikoko plataforma logistikoak aldatzeko pentsatuta zegoen (Mercabilbao eta Zorrotzako hiltegia), baina gaur egun

Resumen de la sugerencia:

1. Error en la doc. gráfica del Avance:

   *Plano 01- Medio Físico e Infraestructura Verde*: Se han detectado dos erratas en el plano en lo relativo a la inclusión como SGEL de dos parcelas (una junto a las escuelas públicas, destinada a la futura ampliación del centro, y otra junto al ayuntamiento, destinada a uso residencial.).

2. Redefinición de la necesidad de suelo industrial en el entorno del corredor del Txorierri.

   Se considera que la previsión del PTP vigente en cuanto a la cuantificación de suelo para actividades económicas para nuevos desarrollos en promoción pública (OE 18) ha quedado obsoleta, en la medida que esta estaba pensada para el traslado de plataformas logísticas de carácter público de gran tamaño (Mercabilbao y el matadero de Zorroza), que en la actualizada no

ez dirudi bideragarriak direnik.

Halere, lurzoru hori bai jotzen dela egokitzat sustapen pribatuko jarduera ekonomikorako lurzorua eskaintzeko, Gurutze Sektoreko industri lurzoruei (Lezama) eta Ugarteko eremukoei (Larrabetzuko muga) jarraipena emanez. Lurzoruak mugarritzeko proposamenaren planoa gehitzen da, non lehenengoa A2 moduan agertzen den (184.143,04m²) eta bigarrena A3 moduan (164.661,41m²).

3. URIARTE SAFYNVEST, SL enpresa dagoen industri lurzorua erregularizatzea. GARAIOLTZA auzoa, 162-LEZAMA.

LPPa berrikusteko prozesua aprobetxatzea enpresa horren kokapena hiri lurzorura egokitzeko, gaur egun lurzoru urbanizaezinean baitago. Eremu horren mugaketa ematen da, etorkizunean egon daitekeen zabalkundearekin batera (A1, 50.602,70m²).

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira Aurrerapenaren dokumentuari egindako oharrak eta ekarpenak eta kontuan hartuko dira dokumentuaren hurrengo faseetan.
Hautemandako akatsak kontuan hartuko dira, dokumentuaren erredakzioaren hurrengo fasean zuzentzeko.

parecen viables.

No obstante, sí que consideran idóneo este suelo para ofertar suelo de actividad económica de promoción privada en continuación con los suelos industriales del Sector La Cruz (en Lezama) y del ámbito de Ugarte (en el límite con Larrabetzu). Se adjunta plano de propuesta de delimitación de suelos, donde se señala el primero como A2 (184.143,04m²) y el segundo como A3 (164.661,41m²).

3. Regularización suelo industrial en el que se encuentra ubicada la empresa URIARTE SAFYNVEST, S.L.- B° GARAIOLTZA, 162-LEZAMA.

Que se aproveche la oportunidad del proceso de revisión del PTP para acomodar la situación de esta empresa, actualmente situada en suelo no urbanizable, a suelo urbano. Se aporta la delimitación de este ámbito incluida una futura posible ampliación, (A1 con 50.602,70m²).

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen los comentarios y aportaciones realizadas al documento de Avance, que se tendrán en cuenta para las siguientes fases del documento.
Se toma nota de las erratas detectadas para su subsanación en la siguiente fase de redacción del documento.

garraioak, mugikortasuna eta lurraldearen kohesioa sustatzeko saila
departamento de transportes, movilidad y cohesión del territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 38 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Bilboko Udala<br>Ayuntamiento de Bilbao |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 14/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

I. BILBO METROPOLITARRAREN LPP-AREN BERRIKUSPENAREN AURRERAPENAREN ANALISIA

Komenigarritzat jotzen da LPPan aurreikuspen berriak kontuan hartzea Lurzoruaren Sailkapenari, Espazio Libreen eta Berdeguneen Sistema Orokorrei eta Ekipamendu eta Komunikazio Azpiegituren Sistema Orokorrei buruz eta Lurzoru Urbanizaezinaren kategorizazioari buruz, zeinak Bilboko **HAPOaren Aurrerapenaren** dokumentuan jasotzen diren, **bi dokumentuak ahalik eta gehien bateratzeko** helburuarekin.

II. ALDERDI OROKORRAK:

1. LPPko erabakien lotespen maila:

-Komenigarria litzateke proposamenak noraino diren lotesleak aurreratzea.

Resumen de la sugerencia:

I. ANÁLISIS DEL AVANCE DE LA REVISIÓN DEL PTP DE BILBAO METROPOLITANO

Se considera conveniente que el PTP tenga en cuenta las nuevas previsiones en cuanto a Clasificación del Suelo, SSGG de Espacios Libres y Zonas Verdes, SSGG de Equipamientos e Infraestructuras de Comunicación, y la categorización del Suelo No Urbanizable, que se incorporan en el documento de **Avance del PGOU** de Bilbao, con el objeto de que **ambos documentos se compatibilicen al máximo**.

II. ASPECTOS GENERALES:

1. Grado de vinculación de las determinaciones del PTP:

-Sería conveniente avanzar en el grado de vinculación del contenido de las propuestas.

-Beharrezkoa litzateke LPPak berariaz jasotzea, babes bereziko kategorian (loteslea da planeamendu orokorrerako), errealitatera hurbiltzean, babestu beharreko ustezko elementuak edo egoerak egiazki gertatzen ez badira, kategoriaren eragin loteslea ez dela gauzatu behar.

Ulertzen da planoen legendan "informazio osagarri" moduan adierazten denak izaera informatiboa baino ez duela. Eta berdin egin daitezkeen doikuntzekin ere, HAPOak errealitatera hurbildu ahal izan ditzan LPPan modu eskematikoan ezarritako mugaketak.

2. <u>Hiri Lurzoruaren mugaketa:</u>

Gatazka dago Sare Berdea antolatzeko kategorietan kalifikatutako eremuen eta HAPOaren Aurrerapenean hiri lurzoru moduan sailkatutako lurzoruaren perimetroaren artean.

3. <u>Etxebizitzen kuantifikazioa:</u>

Adierazten da aurreikusten dela EUDELek LAGen berrikuspena erabiltzea, zehaztuz LPPak egin behar dituela sailkatutako lurzoru urbanizagarrien gaineko ñabardura eta hutsik dagoen etxebizitzaren kontsiderazioa.

4. <u>Hirigintzako udal planeamenduaren erreferentziak:</u>

LPParen Aurrerapenaren memoriako erreferentziek erratzea eragin

-Sería necesario que el PTP recoja expresamente que, en la categoría de especial protección (vinculante para el planeamiento general), si al aproximarse a la realidad no se dan efectivamente los supuestos elementos o hechos a salvaguardar, el efecto vinculante de la categoría no debe producirse.

Se entiende que lo indicado como "información complementaria" en la leyenda de los planos, tiene un carácter meramente informativo. Además de los posibles ajustes que permitan al PGOU aproximar a la realidad las delimitaciones establecidas a nivel esquemático por el PTP.

2. <u>Delimitación del Suelo Urbano:</u>

Conflicto entre las zonas calificadas en las categorías de ordenación de la Red Verde con el perímetro del suelo clasificado como suelo urbano en el Avance del PGOU.

3. <u>Cuantificación residencial:</u>

Se indica la previsión de que EUDEL alegue a la revisión de las DOT en el sentido de que sea el PTP el que matice la cuantificación en suelos urbanizables clasificados y la consideración de la vivienda vacía.

4. <u>Referencias al planeamiento urbanístico municipal:</u>

Las referencias en la memoria del Avance del PTP al "planeamiento de desarrollo" cuando pueden referirse al

dezakete "garapen planeamenduari" dagokionez, hirigintzako udal planeamenduari eragiten diotenean.

III. ALDERDI ZEHATZAK

1. Hiri lurzorua mugarritzea:

II. puntuan adierazi diren gune gatazkatsuak honako hauek dira: Elorrieta ingurunea (hiri lurzoruaren mugaketa LPParen ingurumen hobekuntzaren kategoriarekin ezkutatzen da) eta Arangoitiko aparkalekuaren gunea.

HAPOak Artxandako Erdigunea hiri lurzoru moduan sailkatzea proposatzen du, izan ere, beharrezkotzat jotzen da erabili gabe dauden eraikinetan esku hartu ahal izateko eta dagoeneko dauden ekipamenduak handitzeko.

2. Planeamenduak Bateratzeko Eremuak:

HAPOak bi bateratze eremu proposatzen ditu: Artxandako Erdigunea (Sondikarekin) eta Cadagua-Kastrexana ingurunea, Profusa inguruan (Barakaldorekin).

Iradokizunarekin batera, Hiri Plangintzako Bulegoaren txosten bat ematen da, zeinean bi proposamen horiek garatzen baitira.

3. Montefuerteko Parkea handitzea:

Eskatzen da LPPan Montefuerteko parkea handitzea sartzeko, Nerbioi-

planeamiento urbanístico municipal, pueden inducir a error.

III. ASPECTOS PARTICULARES

1. Delimitación del suelo urbano:

Las zonas de conflicto señaladas en el punto II son las siguientes: entorno de Elorrieta (donde la delimitación de suelo urbano se solapa con la categoría de mejora ambiental del PTP) y la zona de aparcamiento de Arangoiti.

El PGOU propone la clasificación del Área Central de Artxanda como suelo urbano ya que se considera necesario para poder actuar en los edificios en desuso y en la ampliación de los equipamientos existentes.

2. Ámbitos de Compatibilización de Planeamientos:

El PGOU propone dos ámbitos de compatibilización: el Área Central de Artxanda (con Sondika) y zona de Kadagua-Kastrexana en la zona de Profusa (con Barakaldo).

La sugerencia se acompaña con un informe de la Oficina de Planificación Urbana donde se desarrollan ambas propuestas.

3. Ampliación Parque Montefuerte:

Solicita que se incluya en el PTP la ampliación del parque de Montefuerte

Ibaizabaleko ezker ertzean, Boluetan, Basauriko HAPOaren Aurrerapenean iradoki zen bezala.

4. Lurzoru Urbanizaezinaren kategorizazioa: (01 Planoa. Ingurune Fisikoa)

-Garazka dago Sare Berdearen ordenamenduko kategorietan kalifikatutako guneen eta HAPOaren Aurrerapenean hiri lurzoru moduan sailkatutako lurzoruaren perimetroaren eta lurzoru urbanizaezinean sailkapenetik kanpo utzitakoen eta programatu gabeko lurzoru urbanizagarriaren artean:

-Arraiz sektorea (sailkapenetik kanpo HAPOaren Aurrerapenean)

-Buena Vista sektorea (sailkapenetik kanpo HAPOaren Aurrerapenean)

-Artxandako Hegalaren sektorea (sailkapenetik kanpo HAPOaren Aurrerapenean)

-Peñascal Harrobiko lurzoru urbanizaezinaren Sistema Orokorra (sailkapenetik kanpo HAPOaren Aurrerapenean)

-Espazio Libreen eta Berdeguneen beste Sistema Orokor batzuk.

-Ingurumen hobekuntzarako kalifikatutako eremua (Arrigorriagako harrobian) eta Basogintza eta Nekazaritzako LPSa eta HAPOaren Aurrerapena ez datoz bat.

-Pagasarri Mendiaren Plan Bereziaren

en la orilla izquierda de Nervion-Ibaizabal en Bolueta, tal y como su sugirió al Avance del PGOU de Basauri.

4. Categorización del Suelo No Urbanizable: (Plano 01. Medio Físico)

-Conflicto entre las zonas calificadas en las categorías de ordenación de la Red Verde con el perímetro del suelo clasificado como suelo urbano en el Avance del PGOU y con los desclasificados en suelo no urbanizable y urbanizable no programado:

-Sector Arraiz (desclasificado en el Avance del PGOU)

-Sector de Buena Vista (desclasificado en el Avance del PGOU)

-Sector Ladera de Artxanda (desclasificado en el Avance del PGOU)

-Sistema General de suelo no urbanizable Cantera de Peñascal (desclasificado en el Avance del PGOU).

-Otros Sistemas Generales de EELL y ZZVV.

-No correspondencia del ámbito calificado como de mejora ambiental (en la cantera de Arrigorriaga) respecto al PTS Agroforestal y al Avance del PGOU.

-El límite del Plan Especial del Monte

muga ez dator bat HAPOaren Aurrerapenean jasotakoarekin.

5. <u>01 eta 02 Planoetan hautemandako beste alderdi batzuk:</u>

Zorrotzaurre eta Boluetako eremuak urak har ditzakeen eremutzat jartzen jarraitzen da, nahiz eta URAren txostenek dioten ados daudela urbanizatzeko baldintzekin, urak hartzeko eremuetatik salbuetsi ahal izateko.

6. <u>Errepideko eta Trenbideko Azpiegiturak</u>

-LPPan Errekaldeko Saihesbidearen trazatuaren proposamena gehitzea, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak planteatutako aukera berriaren arabera, zeina Bilboko HAPOaren Aurrerapenean aurreikusita dagoen, eta dokumentuan jaso beharreko aukera moduan agertzen den, nahiz eta oraindik ez egon Errepideen LPS berrian jasota.

-Zorrotzako saihesbidearen trazatua, Errepideen LPSan jasotakoaren arabera, eta, ondorioz, LPPan jasotakoaren arabera, ez dator bat "ardatz metropolitarrerako" egindako aurreikuspenekin, zeina HAPOaren Aldaketan jasota dagoen, Zorrotzako Puntako eremuari dagokionez, Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideen arabera.

Pagasarri no se corresponde con el recogido en el Avance del PGOU.

5. <u>Otros aspectos detectados en los Planos 01 y 02:</u>

Los ámbitos de Zorrozaurre y Bolueta siguen apareciendo como áreas inundables, pese a contar con los informes de URA que otorgan su conformidad a las condiciones de urbanización que permiten su exclusión del carácter inundable.

6. <u>Infraestructuras Viarias y Ferroviarias</u>

-Incorporar en el PTP la propuesta de trazado viario de la Variante de Rekalde conforme a la nueva alternativa planteada por la DGI y DT (Dirección General de Infraestructuras y Desarrollo Territorial) de la Diputación Foral de Bizkaia prevista en el documento de Avance del PGOU de Bilbao y conformada como la opción a recoger en el documento, a pesar de que no está recogida todavía en el nuevo PTS de Carreteras.

-El trazado de la variante de Zorroza según lo previsto en el PTS de Carreteras y por tanto en el PTP no se corresponde con las previsiones relativas al "eje metropolitano" recogido en la Mod. del PGOU en el ámbito de Punta de Zorroza siguiendo las indicaciones de la DGI y DT.

-Proposatzen da AE.3 Asuako zeharkako ardatzean "Lutxanako Zubiaren" alternatiba kentzea, ulertzen delako Axpeko zubiaren proposamena egokiagoa delako eta afekzio gutxiago dituela.

-LPPak trenbide sareari buruz dituen aurreikuspenak, Zorrotzako Puntatik igarotzean, tranbiaren aukeraz gain (LPPan jasota dago), gaur egungo sarea lurperatzeko aukera hartu beharko luke kontuan, Zorrotzako Puntaren Aldaketan aurreikusita dagoena, izan ere, tranbiarena soilik egin ahal izango litzateke eskumena autonomikoa balitz.

-Kobetan trenbidea lurperatzeko trazatua (Ministerioak eta Bilboko Udalak adostu zuten urtarrilean) ez dator bat LPPan jasotakoarekin.

-Abandon kotxetegiak birkokatzea. Bilbon birkokatu behar izanez gero, komenigarriagoa da Zorrotzako Punta inguruan birkokatzea eta ez Olabeaga inguruan, horrek ingurunea berroneratzea galarazten duelako.

7. Bizikleten mugikortasuna:

Desfaseak daude LPParen Aurrerapenean Sare Egituratzailearen eta Bilboko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planean aurreikusitakoaren artean.

8. Oinarrizko Azpiegiturak:

-Se propone la eliminación de la alternativa "Puente de Lutxana" en la AE.3 Eje transversal del Asua, por entenderse que la propuesta del puente de Axpe es más adecuada y con menos afecciones.

-Las previsiones del PTP sobre la red ferroviaria a su paso por Punta de Zorroza debieran plantear además de la opción de tranvía (recogida en el PTP) la de soterramiento de la red actual prevista en la Mod. de Punta de Zorroza, ya que la tranviaria solo podría ser en el caso de que la competencia pasara a ser autonómica.

-El trazado de soterramiento ferroviario en Kobetas (acordado entre el Ministerio y el Ayto de Bilbao en enero) no se corresponde con lo recogido en el PTP.

-Reubicación cocheras de Abando. En el caso de tener que reubicarse en Bilbao resulta más conveniente su ubicación en la zona de Punta Zorroza y no en la zona de Olabeaga, ya que impide su regeneración.

7. Movilidad ciclista:

Existencia de desfases entre la Red Estructurante del Avance del PTP con la red prevista en el Plan de Movilidad Urbana Sostenible de Bilbao.

8. Infraestructuras Básicas:

Hainbat hilabetetik hona, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa da dagoeneko Zadorra eta Ordunteko urtegien kudeaketa integralaren arduraduna.

9. Ekipamendu eta atsedenlekuen sistema:

-Aurrerapenaren Antolamenduaren 07 planoan (Ekipamenduak) faltan botatzen dira beste ekipamendu publiko batzuk, hala nola Arriaga Antzokia, Campos Eliseos Antzokia, Euskalduna Jauregia, IMQ Zorrotzaurre, etab.

Akastzat jotzen da Casillako Ingeniaritza Teknikoko eraikina kirol ekipamendutzat hartzea, berez, eraikin administratiboa baita.

-Bolueta parean Montefuerteko parkea handitzeko gunea sartzea.

Desde hace varios meses el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia ya es responsable de la gestión integral de los Embalses de Zadorra y Ordunte.

9. Sistema de equipamientos y áreas de esparcimiento:

-Se echa en falta en el plano nº07 de Ordenación del Avance (Equipamientos), otros equipamientos públicos como el Teatro Arriaga, Teatro Campos Eliseos, Palacio Euskalduna, IMQ Zorrozaurre, etc.…

Se considera erróneamente el edificio de Ingeniería Técnica de la Casilla como equipamiento deportivo, cuando en realidad es administrativo.

-Que se incorpore la zona solicitada para ampliación del parque Montefuerte frente a Bolueta.

Iradokizunaren erantzuna:

I. LPParen berrikuspenean jarraitutako irizpidea izan da une horretan eremu funtzionaleko udalerrietan indarrean dagoen planeamendua islatzea, eta erabiltzen den erreferentziazko iturria da Bizkaiko planeamenduaren GIS sistema (hiru hilean behin eguneratzen da).

Aitzitik, beharrezkoa da planeamenduan gerta daitezkeen aldaketak kontuan hartzea, bi planeamenduen arteko bateraezintasunak ekiditeko. Gainera,

Contestación a la sugerencia:

I. El criterio seguido en la revisión del PTP es representar el planeamiento vigente en ese momento en los municipios el área funcional y la fuente base de referencia que se emplea es la del GIS de planeamiento de Bizkaia (que se actualizado cada tres meses.).

Sin embargo es necesario tener en cuenta los cambios previsibles en el planeamiento para evitar la incompatibilidad ente ambos planeamiento. Además, podrán

Memorian eta LPParen berrikuspenaren proposamenetan lurralde mailako garrantzia duten aurreikuspenak islatu ahal izango dira.

Horrez gain, LPPak ez du zorrotza ezta zehatza izan nahi kalifikatutako lurzoruei dagokienez, izan ere, bere iritziz, horiek aldaketak izan ditzakete, eta udalen eskumena dira; horregatik, bere dokumentazioan ohartaraziko du *"udal planeamenduek kalifikatutako lurzoruetan indarrean dagoen planeamendu urbanistikoaren informazioa nagusiko"* dela.

reflejarse en la Memoria y en las propuestas de la revisión del PTP aquellas previsiones que revisten importancia territorial.

Por otro lado el PTP no pretende ser rigurosos ni exhaustivo en los suelos calificados, ya que entiende que estos pueden estar sujetos a cambios y que son materia de competencia municipal, por ello advertirá en su documentación que *"en los suelos calificados por los planeamientos municipales prevalecerá la información del planeamiento urbanístico vigentes"*

II. Eskertu egiten dira egon daitezkeen gatazkak edo nahasmenduak bideratzera zuzendutako oharrak, eta kontuan hartuko dira LPParen erabakien lotespen mailari buruz egindako oharrak.

II. Se agradecen los comentarios recibidos de cara a solventar conflictos o posibles confusiones y se tendrán en cuenta los apuntes realizados sobre el grado de vinculación de las determinaciones del PTP.

III. I. puntuan adierazi denez, LPParen berrikuspenaren dokumentazioan islatzen den planeamenduak bera idazten den unean indarrean dagoenarekin dauka zerikusia. Jakina, kontuan hartu beharko dira aurreikusten diren aldaketak, egon daitezkeen bateraezintasunak saihesteko, eta Memorian LPParen berrikuspenaren proposamenetan lurralde mailako garrantzia duten aurreikuspenak jaso ahal izango dira.

Horrez gain, LPPak ez du zorrotza ezta zehatza izan nahi kalifikatutako lurzoruei dagokienez, izan ere, bere iritziz, horiek aldaketak izan ditzakete,

III. Tal y como se ha comentado en el punto I el planeamiento que se representa en la documentación de la revisión del PTP tiene que ser el que esté en vigor en el momento de su redacción. Naturalmente, habrá que tener en cuenta los cambios previsibles para evitar posibles incompatibilidades y podrá reflejarse en la Memoria y en las propuestas de la revisión del PTP aquellas previsiones que revisten importancia territorial.

Por otro lado el PTP no pretende ser rigurosos ni exhaustivo en los suelos calificados, ya que entiende que estos pueden estar sujetos a cambios y que

eta udalen eskumena dira; horregatik, bere dokumentazioan ohartaraziko du *"udal planeamenduek kalifikatutako lurzoruetan indarrean dagoen planeamendu urbanistikoaren informazioa nagusiko"* dela.

Sondika eta Barakaldoko udalerriekin eremu bateragarriei buruz egindako proposamenak kontuan hartuko dira.

Montefuerte zabaltzeko aukera aztertuko da, iradokizunak plantatzen duenaren arabera.

Ingurumen Hobekuntzaren mugaketa berrikusiko da, baita ere Pagasarri Mendiaren Plan Bereziaren muga ere.

Urak har ditzakeen guneen mugaketa berrikusi eta, dagokionean, zuzenduko da, URAren irizpideen arabera.

Errepide eta trenbide azpiegituren gaietan egindako ekarpenak meta proposamenak eskertzen dira, eta kontuan hartuko dira LPParen Berrikuspenaren erredakzioaren hurrengo fasean, zeinean egon daitezkeen aukerak aztertuko diren.

Bizikleten mugikortasunari dagokionez, argitu behar da LPParen Berrikuspenean proposatutako sarea, udalerriz gaindiko izaera duenez, ez dela zertan zehazki bat etorri behar inongo udalerrirekin. Edonola ere, bai saihestu beharko direla horien artean sortu daitezkeen kontraesanak.

Oinarrizko azpiegiturei buruzko informazioa kontuan hartzen da, eta

son materia de competencia municipal, por ello advertirá en su documentación que *"en los suelos calificados por los planeamientos municipales prevalecerá la información del planeamiento urbanístico vigentes"*

Se tendrán en cuenta las propuestas sobre ámbitos de compatibilización realizadas con el municipio de Sondika y Barakaldo.

Se estudiará la posibilidad de ampliación de Montefuerte que plantea la sugerencia.

Se revisará la delimitación de Mejora Ambiental, así como el límite del Plan Especial del Monte Pagasarri.

Se revisará y, en su caso, se corregirá la delimitación de las zonas inundables de acuerdo a los criterios de URA.

Se agradecen las aportaciones y propuestas en materia de infraestructuras viarias y ferroviarias, que serán tenidas en cuenta para la siguiente fase de redacción de la Revisión del PTP, en que se estudiarán las posibles alternativas.

En relación con la movilidad ciclista, debe aclararse que la red propuesta en la Revisión del PTP, por su carácter de estructura supramunicipal, no tiene por qué corresponderse exactamente con la de ningún municipio. En todo caso, sí que habrán de evitarse posibles contradicciones entre ellas.

Se toma nota de la información sobre infraestructuras básicas, que será

LPParen Berrikuspenaren hurrengo fasean eguneratuko da, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak emandako informazioarekin.

Eskertzen da ekipamendu publikoei buruz emandako informazioa, eta kontuan hartuko da hasierako onespenerako dokumentua idazteko garaian.

actualizada en la siguiente fase de la Revisión del PTP con la información facilitada por el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia.

Se agradece la información acerca de los equipamientos públicos y se tendrá en cuenta de cara a la redacción del documento para aprobación inicial.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

Bizkaia
garraioak, mugikortasuna eta lurraldearen kohesioa sustatzeko saila
departamento de transportes, movilidad y cohesión del territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 39 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | TECNALIA- Energia eta Ingurumen Divisioa<br>TECNALIA- División de Energía y Medio Ambiente |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 16/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Tecnaliak berak egindako bi dokumentu aurkeztu dira:

1. Dokumentua:

BMLPParen Hasierako Onarpenaren dokumentuari egindako ekarpenen proposamena.

2. Dokumentua:

Bilbo Metropolitarraren mehatxuen eta inpaktuen aurre-diagnostikoa, eskuragarria dagoen informazioan eta klima aldaketaren eta egokitzapenaren inguruan egin berri diren azterketetan oinarrituta.

1. Dokumentua:

Ekarpenen 1. Dokumentua 2017ko Klimatek programako *LurrAdapt EKINTZA* proiektuko lanen baitan kokatzen da, *"Klima aldaketara egokitzeko ikuspegia txertatu Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) onartzeko prozesuetan eta lurralde eta hiri plangintza antolatzeko bitartekoetan".*

Ekarpenak egiteko asmoarekin aurkezten da, hasierako onarpeneko dokumentuari gehitu eta gero, BMLLParen izaera berritzailea indartu ahal izan dezaten, Klima Aldaketaren integrazioaren

Resumen de la sugerencia:

Se presentan dos documentos de elaboración propia de Tecnalia:

Documento 1.

Propuesta de aportaciones al documento de Aprobación Inicial del PTPBM

Documento 2.

Pre-diagnóstico de amenazas e impactos en el Bilbao Metropolitano en base a la información disponible y estudios recientes en materia de cambio climático y adaptación.

Documento 1:

El documento 1 de aportaciones se inscribe en los trabajos del *Proyecto ACCIÓN-LurrAdapt "Adaptación al Cambio Climático en los instrumentos de ordenación del territorio en el marco de la Revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio (DOT)"* del programa Klimatek 2017

Se presenta con intención de realizar aportaciones, que una vez incorporadas al documento de aprobación inicial, puedan reforzar el carácter innovador del PTPBM como referente en la

erreferente moduan.

Bi zati eta Eranskin bat dauzka:

- 1. Zatia. Klima aldaketara egokitzeko ekarpenak BMLPParen hasierako onarpenaren dokumentuan integratzeko eskaria.

  Hainbat proposamen zehatz egiten dira BMLPParen atal desberdinetarako, Aurrerapenaren dokumentuaren egituraren arabera.

- 2. zatia. BMLPParen afekzioen dokumentuari buruzko hausnarketak.

  Alternatibak eskaintzen dira afekzioen dokumentua osatu ahal izateko, kalteberatasunaren eta arrisku klimatikoen perspektibatik, BFArekin eztabaidatzeko.

- Eranskina. Ekarpenen proposamenaren Justifikazio Teknikoa klima aldaketara egokitzeko gaietan.

  Hasierako onarpenaren dokumentuan integratzeko aurkeztu diren ekarpenak garatu eta justifikatzen dira, azterketa teknikoen edo araudiaren gaineko erreferentziekin.

2. Dokumentua:

2. dokumentua, 1. Dokumentua bezala, 2017ko Klimatek programako *LurrAdapt EKINTZA* proiektuko lanen baitan kokatzen da, ***"Klima aldaketara egokitzeko ikuspegia txertatu Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) onartzeko prozesuetan eta lurralde eta hiri plangintza antolatzeko bitartekoetan"***, eta, EAEko klima aldaketari buruz eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta, klima aldaketaren mehatxuen eta inpaktuen gaineko aurre-diagnostiko bat egin da, Bilbo Metropolitarrean, hiru mehatxu mota kontuan hartuta: Bero Boladak, Uholde Arriskua (ibaiak) eta

integración del Cambio Climático.

Se estructura en dos partes y un Anexo:

- Parte 1. Solicitud de integración de aportaciones en materia de adaptación al cambio climático al documento de aprobación inicial del PTPBM.

  Se realizan propuestas concretas al texto en distintos capítulos del PTPBM, de acuerdo con la estructura del documento del Avance.

- Parte 2. Reflexiones al documento de afecciones del PTPBM.

  Se ofrecen alternativas de cómo se podría complementar el documento de afecciones desde la perspectiva de vulnerabilidad y riesgos climáticos para debatir con la DFB.

- Anexo. Justificación Técnica de la propuesta de aportaciones en materia de adaptación al cambio climático.

  Se desarrollan y justifican las aportaciones para las que se solicita la integración en el documento de aprobación inicial, con las referencias pertinentes a estudios técnicos o normativa.

Documento 2:

El documento 2 se inscribe al igual que el documento 1 en los trabajos del *Proyecto ACCIÓN-LurrAdapt* ***"Adaptación al Cambio Climático en los instrumentos de ordenación del territorio en el marco de la Revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio (DOT)"*** del programa Klimatek 2017, de tal manera que en base a la información disponible de cambio climático en la CAPV se ha realizado un pre-diagnóstico de amenazas e impactos al cambio climático en el Bilbao Metropolitano, teniendo en cuenta tres tipos de amenazas: Olas de Calor, Inundabilidad (fluvial), y subida del Nivel del Mar,

Itsasoaren Maila igotzea, guztiak ala guztiak klima aldaketaren jokalekuekin.

Iradokitzen dute bai ekarpenak (1. Dokumentua) bai mehatxuen eta inpaktuen aurre-diagnostikoa Aurrerapenaren dokumentuan edo Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren azterketan sartzeko, edukiak eztabaidatu eta balioztatu ondoren, BFArekin eta BMLPParen eta IEEaren talde erredaktoreekin kontrasteak eginez.

todos ellos bajo escenarios de cambio climático.

Se sugiere que tanto las aportaciones (documento 1) como el pre-diagnóstico de amenazas e impactos, sean incorporados bien al documento de Avance o bien al estudio de EAE, una vez se hayan discutido y validado los contenidos, en reunión de contraste con DFB y equipos redactores del PTPBM y EAE, si procede.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira informazioa eta emandako irizpideak, eta kontuan hartuko dira LPParen Berrikuspena idazteko hurrengo faseari begira.

Contestación a la sugerencia:

Se agradece la información y los criterios aportados, que serán tenidos en cuenta de cara a la siguiente fase de redacción de la Revisión del PTP.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 40 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Cementos Rezola |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 16/01/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

LEHENA:

Agerian jartzen da SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA SA enpresaren eskubide kontsolidatuetan eragina egon daitekeela BMLPParen Aurrerapenaren irizpideak mantentzen badira, izan ere, lurzoru urbanizaezinari eragiten dioten hainbat babes gehitzen dira, jarduerari negatiboki eragiten diotenak, gaur egun bertan garatzen baitute beren jarduera "LARRAKO" eta "GORIKO" harrobiek.

BIGARRENA:

INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA:

"Mendi larreak-Harkaitzak" zonaren mugaketari dagokionez, Nekazaritza-Basoko LPSko babes proposamenen planoan (bat dator ustiatzeko lizentzia duten lursailekin) esaten da babesak ez duela galarazi behar baimendutako aprobetxamenduan jarraitzea (LPSaren

Resumen de la sugerencia:

PRIMERA:

Se pone de manifiesto que la existencia de derechos consolidados de la SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA S.A. pueden verse afectados si se mantienen los criterios del avance del PTPBM ya que se incorporan una serie de protecciones que afectan al suelo no urbanizable, donde actualmente desarrollan su actividad extractiva las canteras "LARRAKO" y "GORIKO", que inciden negativamente en la actividad.

SEGUNDA:

ORDENACIÓN DEL MEDIO FÍSICO:

Sobre la delimitación de la zona de "Pastos Montanos-Roquedos" en el plano de propuestas de protección del PTS Agroforestal (coincidente con los terrenos con licencia para explotar), se señala que la protección no debe impedir que se continúe con el aprovechamiento

aurrekoa da).

Nekazaritza-Basoko LPStik datorren LPParen Aurrerapeneko "Ingurumenaren Hobekuntza" zonaren mugaketari dagokionez, eta lurzoru horiek Informazio eta Diagnostikoaren dokumentuko planoetan lurzoru horiek duten kategorizazioari dagokionez, esaten da jarduera ekonomiko bat hartzeko xedea duten lurzoruak babes horretatik salbuetsi behar direla.

"Baldintzatzaile Gainjarriak" izeneko planoan sartutako "Onura Publikoko Mendien" mugaketari dagokionez, beraiek dakitela, "LARRAKO" eta "GORIKO" ustiategietan ez dago horrelakorik.

"Natura Intereseko Guneei" dagokienez, EAEko Nekazaritzako eta Basozaintzako LPS" izeneko 3. Informazio planoan faltan botatzen da 2M frontearen seinaleztapena, "GORIKO" ustiategikoa, eta hori sartzeko eskatzen da.

Eskatzen da LPParen Hasierako Onarpenaren dokumentuak kontuan har ditzala merkataritza enpresak orain dituen zein etorkizunean izan ditzakeen ustiapen eskubideak, erauzketa lanak egitea galaraziko duten babesik sartu gabe, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSko erabakietan oinarrituta. Beraz, Ingurumenaren Hobekuntza kendu egin beharko litzateke "LARRAKO" eta "GORIKO" meatze ustiategietatik, bateraezina delako erauzteko jarduera garatzearekin.

autorizado (anterior al PTS).

Sobre la delimitación de la zona de "mejora Ambiental" en el avance del PTP proveniente del PTS Agroforestal, y la categorización de estos suelos en los planos del documento de Información y Diagnóstico, se señala que en los suelos que tengan destinado el desarrollo de una actividad económica se excluyan de esta protección.

Sobre la delimitación de "Monte de Utilidad Pública" que se incluye en el plano denominado de "Condicionantes Superpuestos", no les consta que existan en la zona coincidente con las explotaciones "LARRAKO" y "GORIKO".

Sobre las "Áreas de Interés Naturalístico", en el plano 3 de Información denominado "PTS Agroforestal y del Medio Natural de la CAPV" se echa en falta la señalización del frente 2M perteneciente a la explotación "GORIKO", del que se solicita su inclusión

Solicita que el documento de Aprobación Inicial del PTP tenga en cuenta los derechos de aprovechamiento presentes y futuros de la mercantil, sin incluir ninguna protección que excluya los usos para actividades extractivas con apoyo en las determinaciones del PTS Agroforestal. Por tanto, la protección de Mejora Ambiental se debería excluir del ámbito de las explotaciones mineras de "LARRAKO" y "GORIKO", ya que es incompatible con el desarrollo de la actividad extractiva.

BATASUNAREN INTERESEKO HABITATAK BABESTEA:

LPParen Aurrerapenean, eremu horiek 6210* Habitata-*Brachypodium pinnatum-a* duten larre mesofiloen eraginpean leudeke, eta benetan egiaztatu beharko litzateke habitata existitzen den.

Enpresak azterketa bat egiteko eskatu zuen, APPLUS NORCONTROL SLU erakunde egiaztatuaren bitartez, zeina Habitat hori existitzen den jakiteko egiaztapenetan zentratu den. Eskatutako txostenaren arabera, habitat hori soilik hartzen da lehentasunezkotzat bertan orkideen presentzia nabarmena badago, eta, txostenaren arabera, ez da babesteko neurri bereziak behar dituen inolako orkidea tipologiarik agertzen; ondorioz, “6210* Batasunaren Intereseko Habitat” moduan identifikatutako babes eremutik kentzeko eskatzen da.

PROTECCIÓN DE HÁBITATS DE INTERÉS COMUNITARIO:

En el Avance del PTP estos ámbitos estarían afectados por el hábitat 6210* Pastos mesófilos con Brachypodium pinnatum, y quedarían sujetos a la comprobación de la efectiva existencia del hábitat.

La Mercantil solicitó la realización de un estudio, por medio de la entidad acreditada APPLUS NORCONTROL S.L.U., que se ha centrado en las comprobaciones efectuadas acerca de la existencia de este Hábitat. De acuerdo al informe encargado este hábitat solo se considera prioritario si aparece en el mismo la presencia de notables orquídeas, y según el informe no aparece ninguna tipología de orquídea que requiera medidas de protección específica, por lo que se propone su exclusión de la zona de protección identificada como “Hábitat de interés comunitario 6210*”

HIRUGARRENA: KORRIDORE EKOLOGIKOKO INDARGETZE EREMUA

Planoan dagoen mugarritzearen arabera, detektatu da horietako eremu batzuk bat datozela LARRAKO eta GORIKOko meatze ustiategiekin, baita Rezola zementu fabrikak okupatzen duen lurzoruarekin, eta eremu horren ezaugarriak ez datozela bat horrelako ingurumen figura baterako definitutako profilarekin, izan ere, meatzaritzan aprobetxatzeko eremuak izanik, ezin dira babesa behar duten nekazaritza edo basogintzako paisaiatzat hartu, inguruan garatzen den jardueragatik beragatik

TERCERA: ZONA DE AMORTIGUACIÓN DE CORREDOR ECOLÓGICO

Se ha detectado por su demarcación en el plano que la inclusión de algunas de estas zonas coincide con las explotaciones mineras LARRAKO Y GORIKO así como el suelo ocupado por la fábrica de cementos Rezola, y que las características de esta zona no concuerdan con el perfil definido en este tipo de figura ambiental, pues al tratarse de zonas de aprovechamiento minero no se pueden identificar como paisajes agrícolas o agroforestales merecedores de protección, ya que por la propia actividad que se desarrolla en

eragindako espazioa lehengoratzeko aurreikuspen bat baitago, jarduerarren garapenari lotuta, eta, arrazoi hori tarteko, babes hori kendu egin behar da meatzaritzako lagapenetatik eta Rezola zementu fabrikatik.

LAUGARRENA: EAE-KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO GIDALERROEN ZUZENEKO APLIKAZIOA, PLANEAMENDURAKO LOTESLEAK IZANIK.

LAGak betez, BMLPPa berrikusteko prozesuan, lurzoruak erauzketa-harrobi jarduerarako egokitzat kategorizatuz eta sailkatuz, errespetatu egin beharko dira bai indarrean dauden baimenen eraginpean daudenak, bai etorkizuneko garapenetan aurreikusten direnak, gaur egun ezarrita dagoen jarduerarren modu naturalean hedatzeko, ezinbestekoak baitira fabrikak jarraitasuna izan dezan.

BOSGARRENA: HASIERAKO ONARPENERAKO AURKEZTEN DEN BMLPP-AREN BERRIKUSPENAREN DOKUMENTUA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako iradokizun hauek proposatzen dira, BMLPParen hasierako onarpenerako aurkezten den dokumentuan sartzeko:

- Ustiapen eremuaren errekonozimendua eta meatzerako emakiden etorkizuneko zabalkundea LARRAKO eta GORIKO izeneko C) sekzioko eta CEMENTOS REZOLA fabrikako baliabideak aprobetxatzeko.

- Ustiapen eremuan eta meatzerako

esta zona existe una previsión para la restauración del espacio afectado, vinculada su desarrollo, motivo por el cual debe ser eliminada esta protección del área de las concesiones mineras y la fábrica de cementos Rezola.

CUARTA: APLICACIÓN DIRECTA DE LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN TERRITORIAL DE LA CAPV, VINCULANTES PARA EL PLANEAMIENTO

Que en cumplimiento de las DOT durante el proceso de revisión del PTPBM se habrán de respetar mediante la categorización y clasificación de los suelos como aptos para la actividad extractiva-zonas canterables, tanto los afectados por las autorizaciones vigentes como aquellos previstos en los futuros desarrollos como natural extensión de la actividad actualmente desplegada, que resultan imprescindibles para la continuidad de la fábrica.

QUINTA: PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DEL DOCUMENTO DE REVISIÓN DEL PTPBM QUE SE SOMETA A APROBACIÓN INICIAL.

De acuerdo a lo anterior se proponen las siguientes sugerencias, para su inclusión en el documento sometido a aprobación inicial del PTPBM:

- Reconocimiento del área de explotación y futura ampliación de las concesiones mineras para el aprovechamiento de los recursos de la sección C) denominadas LARRAKO Y GORIKO así como la fábrica de CEMENTOS REZOLA.

- Eliminación de las figuras de protección

emakiden etorkizuneko zabalkundean sartuta dauden babes figurak ezabatzea BMLPParen etorkizuneko berrikuspenaren Aurrerapenaren dokumentutik, bigarren adierazpenetik seigarrenera bitartean zehaztutako LARRAKO eta GORIKO C) sekzioko baliabideak aprobetxatzeko.

del documento del Avance de la futura revisión del PTPBM incluidas dentro del área de explotación y futura ampliación de las concesiones mineras para el aprovechamiento de recursos de la sección C) LARRAKO Y GORIKO indicadas en las manifestaciones segunda a sexta.

Iradokizunaren erantzuna:

LPPak ez du proposatzen dagozkien baimenak dituzten erauzketa jarduerak etetea, hau da, erabilera edo kategoria jakin batzuk antolatzeko dokumentu espezifikoak badaude edo egotea aurreikusten bada, esaterako, Erauzketa Jardueretarako Erabileraren dokumentua, erabilera horren erregulazioa dokumentu espezifiko horren menpe geratuko da, Nekazaritza eta Basoko LPSan jarraitzen den irizpide berdinarekin (62.3 artikulua).

LPParen Aurrerapenaren dokumentuan Nekazaritza eta Basoko LPSaren Ingurumen Hobekuntzaren kategoria Larrako eta Goriko harrobietako Eremu Baimendu guztira zabaldu da. Kategoria hori lokalizazio puntualeko esparru degradatuetara zuzenduta dago (zabortegiak, hondakindegiak, harrobiak, etab.), zeinetan beharrezkoa den jardutea, ingurumenaren aldetik lehengoratzeko, eta horri ekingo zaio jarduera garatzeko baimendutako epealdia amaitzen denean, eta lehengoratzeko dagokion proiektuaren arabera.

Halere, berrikusi egingo dira dokumentazio idatzia zein grafikoa, Ingurumen Hobekuntzaren eta Pagasarri Mendiaren Plan Bereziaren mugaketa, interpretazio okerrak saihesteko. Horrenbestez, Merkataritza

Contestación a la sugerencia:

El PTP no propone interrumpir la continuidad de las actividades extractivas que cuentan con los permisos correspondientes, de tal modo que en el caso de que para un determinado uso o categoría existan o se prevean documentos de ordenación específicos, como es el caso del Uso Actividades Extractivas, se remitirá la regulación de dicho uso a dicho documento específico, con el mismo criterio seguido en el PTS Agroforestal (artículo 62.3).

En el Documento de Avance del PTP se ha extendido la categoría de Mejora Ambiental del PTS Agroforestal al total del Área Autorizada de las canteras de larrako y Gorriko. Esta categoría está destinada a las áreas degradadas de localización puntual (vertederos, escombreras, canteras, etc.) en los que es necesario actuar para lograr su restauración ambiental, a la que se procederá cuando finalice el periodo permitido para la actividad, y de acuerdo con el proyecto de restauración correspondiente.

No obstante, se revisará tanto la documentación escrita como la gráfica, delimitación de Mejora Ambiental y Plan Especial del Monte Pagasarri, que pueda llevar a una interpretación errónea. De esta forma las

enpresa horrek egindako adierazpenak eta iradokizunak kontuan hartuko dira dokumentuaren erredakzioaren hurrengo faseetan.

manifestaciones y sugerencias realizadas por esta Mercantil serán tenidas en cuenta en fases posteriores de redacción del documento.

Horrez gain, BMLPParen Aurrerapenaren dokumentuan esaten denez, LAGen arabera, erauzketarako esparruen mugaketa organo sustantiboak markatzen duena izango da, eta dagozkion udal planeamenduetan jaso beharko da.

Por otra parte, en el Documento de Avance del PTPBM se señala, tal como indican las DOT, que la delimitación de las áreas extractivas será la marcada por el órgano sustantivo y ésta deberá ser recogida en los correspondientes planeamientos municipales.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 41 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa<br>Consorcio Aguas Bilbao Bizkaia |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 22/05/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

1. Hornidurari dagokionez:

- Fitxategi bat erantsi da Ur Partzuergoak kudeatutako lehen mailako hornidura sarearekin, LPParen eremuan (ETRS 89), "ur hornidurako sarea" deritzon 05-01 planoa osatzeko.
- Planari eska dakizkiokeen egoerak ea baldintzak zehazten dira:
  - Hoditeria horietan BBUPk dituen zortasunak eta jabari osoak errespetatu beharko dira.
  - Etxeetakoak ez diren erabiltzaileen hornikuntza Partzuergoaren lehen mailako saretik egin ahal izango da zuzenean, baldin eta erabiltzaile horien jardueraren ezaugarriengatik bolumenean eskatzen dituzten urteko batez besteko emariak lau litro segundokoak edo hortik gorakoak badira.

Resumen de la sugerencia:

1. En materia de Abastecimiento:

- Se adjunta fichero con la Red Primaria de abastecimiento gestionada por el Consorcio de Aguas en el ámbito del PTP (ETRS 89) para completar el plano 05-01 “red de abastecimiento de agua”.
- Se señalan las circunstancias y requisitos exigibles al Plan:
  - Se deberán respectar las servidumbres y los plenos dominios que la CABB dispone en estas conducciones.
  - Podrán suministrarse directamente de la red primaria los usuarios no domésticos, que por las características de su actividad demanden caudales medios por años de volumen igual o superior a 4litros por segundo.

- Udal erabiltzaileen edo erabiltzaile partikularren ezargune berri baten eskaria asetzeko beharrezkoak izango diren sarearen zabalkuntzak erakunde sustatzailearen kargura izango dira.

- Bai alde garatuetan bai sortu berrietan, hornikuntza berriek bete egingo dute unean-unean indarrean dagoen hornidura eta saneamendu zerbitzuak arautzen dituen Ordenantza.

2. Saneamenduari dagokionez:

- LPParen eremuan (ED 50) Ur Partzuergoak kudeatzen duen saneamenduko lehen mailako sarearen fitxategia gehitzen da, "ur saneamenduko sarea" deritzon 05-02 planoa osatzeko.

- III ataleko 3.6 Baliabideen Kudeaketa Jasangarriaren baitan dagoen A.1 Saneamendua. Orientazio Posibleak zatiari dagokionez, LPPak planteatu beharko luke sare bereiziak jartzea, ekaitz andelen jarduketa osagarri moduan.

- Beharrezkoa da hirigintzako garapen berriek sare bereiziak izatea, eta LPParen helburuetako bat izan behar da euri urak egun dauden kolektoreetatik bereiztea.

- Aurreikusitako antolamenduak eta erabilerek sarea ustiatzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko lanak egitea ahalbidetu behar dute.

- Las extensiones de red necesarias para satisfacer la demanda de un nuevo emplazamiento de usuarios municipales o particulares correrá a cargo del entre promotor.

- Tanto en las áreas desarrolladas como en las de nueva creación, los nuevos suministros deberán cumplir la Ordenanza Reguladoras del servicio de abastecimiento de agua y saneamiento vigente en cada momento.

2. En materia de Saneamiento:

- Se adjunta fichero con la Red Primaria de Saneamiento perteneciente al Consorcio de Aguas en el ámbito del PTP (ED 50) para completar el plano 05-02 "red de saneamiento de agua".

- Dentro del apartado III 3.6 Gestión sostenible de los recursos, A.1. Saneamiento. Posibles Orientaciones, el PTP debería plantear el desarrollo de las redes separativas como actuación complementaria a los tanques de tormentas.

- Es necesario que los nuevos desarrollos urbanísticos tengan redes separativas y debe ser objetivo del PTP promover la separación de las aguas pluviales de los colectores ya existentes.

- La ordenación y los usos previstos deberán posibilitar la realización de las correspondientes labores de explotación, conservación y mantenimiento de la red.

3. Lurzoruaren kudeaketari dagokionez, testu bat gehitu da LPPan sartzeko edo egokitzeko: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren proiektuen eta instalazioen trazatuek hirigintzako planeamenduan eragiten dituzten afekzioei buruzko testua.

4. Dokumentazio Gehigarria: BBUPk "LPParen garapenak eragindako eskariak asetzeko moduko eran estaltzeko baliabide hidrikoen eta azpiegituren nahikotasunaren bermeari buruzko txostena" egin ahal izateko, honako dokumentazio hau beharko da:

   - "Biztanleriari dagokionez ustez hazi egingo diren aldeen egoera; horrelakoetan zenbatekoa eta hala hornikuntzan nola saneamenduan Partzuergoaren oinarrizko sarearekin konexioa egiteko ustezko puntuak zehaztuko dira.
   - Hala denean, garapen industrialeko edo merkataritzako garapeneko aldeak, horietan ere aurreikuspenen arabera eskatzen diren emariak eta/edo jarduerak eragindako emariak, eta Partzuergoaren sarearekin konexioa egiteko puntu posibleak".

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira informazioa eta emandako irizpideak, eta kontuan hartuko dira LPParen Berrikuspena idazteko hurrengo faseari begira.

3. En materia de Gestión del Suelo, se adjunta texto para su inclusión o adaptación en el PTP : "Texto sobre las afecciones que los trazados de los proyectos e instalaciones del consorcio de aguas de Bilbao Bizkaia constituyen sobre el planeamiento urbanístico".

4. Documentación Adicional: Será necesaria la siguiente información para que el CABB emita el "Informe sobre las garantías de los recursos hídricos y suficiencia de las infraestructuras que den cobertura satisfactoria a las demandas motivadas por el desarrollo del PTP":

   - Situación de las áreas con previsión de crecimiento poblacional especificando su cuantía y posibles puntos de conexión a la red primaria del Consorcio, tanto en abastecimiento como en saneamiento.
   - En su caso, áreas de desarrollo industrial o comercial con previsión, asimismo, de caudales demandados y/o caudales generados por la actividad y posibles puntos de conexión a la red del Consorcio.

Contestación a la sugerencia:

Se agradece la información y los criterios aportados, que se tendrán en cuenta para la siguiente fase de la redacción de la revisión del PTP BM.

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 42 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Getxoko Udala<br>Ayuntamiento de Getxo |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 05/06/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

I. BIZITEGIAK KUANTIFIKATZEKO METODOA EZARTZEN DUEN ARAUDIARI BURUZKO OHARRAK ETA IRADOKIZUNAK

I.1-Kalkulatzeko metodoa:
LPPak 4/2016 Dekretuak kalkulatzeko ezarritako metodoari jarraitzen dio:

BA = (EP x HF)-EH

Non EP=LEZ+A1+A2+B1+B2+C1

LAGen berrikuspenak, ordea (hasierako onarpenaren fasean dago), formula hau sartzen du:

BA= EP X HF

EP=LEZ+A1+A2+B1+B2+C1-C2

I.2-Biztanleria datuak: esaten da ERROLDAtik etorri behar direla, hurbiltasunagatik eta Premiazko Neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren 1. Xedapen Gehigarriarekin bat.

Resumen de la sugerencia:

I. OBSERVACIONES Y SUGERENCIAS A LA NORMATIVA QUE ESTABLECE EL MÉTODO DE CUANTIFICACIÓN RESIDENCIAL

I.1-Método de cálculo:
El PTP sigue el método de cálculo del Decreto 4/2016:

CR= (NR X ESP)-Vv

Donde NR=CMT+A1+A2+B1+B2+C1

sin embargo la revisión de las DOT (en fase de aprobación inicial) introduce esta fórmula:

CR= NR X ESP

NR= CMT+A1+A2+B1+B2+C1-C2

I.2-Datos de población: señala que deben provenir del PADRÓN dada su inmediatez y en consonancia con la Disp. Adicional 1 del Decreto de Medidas Urgentes 105/2008.

I.3-EH Etxebizitza Hutsaren kontzeptua eta C2 (etxebizitza premiaren murrizketa hutsik dauden etxebizitzak daudelako) aplikatzearen arteko aldea.
Esaten da LAGetako formula berria aplikatzeak udalerriak etxebizitzak eskaintzeko ahalmen totala murriztu baino ez duela egingo.

I.4-Biztanleriaren proiekzioa
LPPan biztanleria hazteko edo murrizteko urtero metatuko den %0,1eko eta %0,2ko mugak ezartzea, hurrenez hurren.

Haztatzeko irizpideak ezarri behar direla adierazten da.

I.5-Etxebizitzen inbentarioa:
Dioenez, EUSTATO edo INEren iturria ez da oso fidagarria bigarren mailako etxebizitzei edo hutsik daudenei dagokienez, eta adierazten du Getxo hutsik dauden etxebizitzen bere inbentarioa egiten ari dela.

I.6.-Bizitegien kuantifikazioa: .Kalkulatzeko, beharrezkotzat jotzen du Diputazioaren eta EJren arteko koordinazioa.

I.7.-indarraldi desberdinen ondorioz sortzen diren arazoak: LPP (16 urte), HAPO (8 urte).

I.8.-Lurralde Ereduaren Zuzenketa.
-Planeamendua indarrean dagoen ahalmenaren arabera berrorekatzeari dagokionez, eskatzen da datuen informazio iturriari buruzko azalpena (94. or. 17

I.3-La diferencia en la aplicación del concepto de Vivienda vacía Vv y de C2 (reducción de las necesidades residenciales por existencia de viviendas deshabitadas)
Señalan que la aplicación de la nueva fórmula de las DOT no hace sino reducir la capacidad total que tendrá el municipio de ofertar viviendas.

I.4-Proyección de la población
Incorporación en el PTP de unos límites al incremento o decrecimiento de la población del 0,1% y del 0,2% acumulativo anual respectivamente.

Señala la necesidad de establecer criterios de ponderación.

I.5-Inventario de viviendas:
Afirma que la fuente del EUSTATO o INE sobre las viviendas secundarias o desocupadas es poco fiable y señala que Getxo está realizando su propio inventario de vivienda deshabitada.

I.6.-Cuantificación residencial: .Señala como necesaria una coordinación en el cálculo entre la Diputación y el GV.

I.7.-Problemática derivada de los diferentes periodos de vigencia: PTP (16años), PGOU (8 años).

I.8.-Corrección del Modelo Territorial.
-Respecto al reequilibrio en función de la capacidad vigente del planeamiento se solicita aclaración de la fuente de información de los datos (pg 94 en la tabla

koadroan).
Esaten da azterketa hori ez litzatekeela oinarritu behar indarrean dagoen planeamenduak ezarritako ahalmenean, baizik eta lurzoruak hartzeko duen ahalmenean, izan urbanizagarria edo urbanizaezina, betiere azken hori ingurumen balioengatik babestuta badago.

-Sortutako mugikortasunaren arabera berrorekatzeari dagokionez:
Eskatzen da 18 koadroko datuak argitzeko.

-Okupatutako biztanleen eta enpleguaren harremanaren arabera berrorekatzeari dagokionez:
Eskatzen da 19 koadroko datuak argitzeko.

Esaten denez, kontuan hartu beharko litzateke ez soilik gaur egungo egoera, baizik eta baita ere indarrean dagoen planeamenduak edo etorkizunekoak eragin dezaketena, jarduera ekonomikoetarako lurzorua eskaintzeari dagokionez, Getxorako ez direlako ongi ebaluatu. Gehitzen da 12 koadroko datuak ez direla zuzenak.
Eskatzen da argitzeko datu horiek nola sartzen diren formulan, LEZak udalerriari nola eragiten dion argitzeko.

I.9.-II. Eranskinerako beste azalpen, ohar eta iradokizun batzuk
Datuak argitzeko eta Jarduera Ekonomikoen bilakaeraren azterketa zuzentzeko eskatzen da, bai hiri lurzoruan bai urbanizagarrian.

I.10.- Jarduera ekonomikoen kuantifikazioari buruzko oharrak eta iradokizunak.

17).
Se apunta que este análisis no debería regirse por las capacidades que establece el planeamiento vigente sino por la capacidad de acogida del suelo ya sea urbanizable o no urbanizable, siempre y cuando este último se esté protegido por sus valores medioambientales.

-Respecto al reequilibrio en función de la movilidad generada:
Se solicita se aclaren los datos de la tabla 18

-Respecto al reequilibrio en función de la relación entre población ocupada y empleo:

Se solicita se aclaren los datos de la tabla 19
Se apunta que se debería tener en cuenta no solo la situación actual sino las posibilidades que otorga el planeamiento vigente o futuro en cuestión de oferta de suelo para actividades económicas, que para Getxo no han sido correctamente evaluadas. Se añade que los datos de la tabla 12 no son correctos.

Se solicita se aclare como entran todos estos datos en la fórmula para aclarar como afecta el CMT al municipio.

I.9.-Otras aclaraciones, observaciones y sugerencias al Anexo II
Se solicita aclaraciones de datos y corrección del análisis sobre la evolución de las AAEE tanto en suelo urbano como urbanizable,.

I.10.- Observaciones y sugerencias a la cuantificación de actividades económicas.

Eskatzen da jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskaintzari buruzko 100. eta 101. orrialdeetako koadroak zuzentzeko, iradokizunen txostenean ematen diren datuekin, eta 102. eta 103. orrialdeetako koadroetako datuak argitzeko.

Se solicita sea corregida las tablas de las páginas 100 y 101 sobre la oferta de suelo de actividades económicas con los datos que se aportan en el informe de sugerencias, y que se aclaren los datos de las tablas de la página 102 y 103.

II. OHARRAK ETA IRADOKIZUNAK LPP-AREN BERRIKUSPENAREN AURRERAPENAREN GAINERAKO ZATIEI BURUZ.

1. 1. Planoa "Ingurune Fisikoa eta Azpiegitura Berdea":

- Kolore desberdinagoak erabiltzea proposatzen da (berdeak ez dira bereizten)
- "INFORMAZIO OSAGARRIAREN" kategorian, iradokitzen da dagoeneko existitzen diren eta lortu diren Espazio Libreen eta Berdeguneen Sistema Orokorrak bereiztea lurzoru urbanizagarrian daudenetatik.
- "Biodibertsitate aldetik interesgarriak diren beste eremu batzuen" mugaketan dagoen akatsa zuzentzeko eskatzen da, dagoeneko kontsolidatuta dagoen hirigune baten gainean jarri baita (irudiarekin laguntzen da).
- "Neguriko Real Sociedad de Golf"-en lurren tratamendua argitu dadila.
- Generatxu parkeko aldean Babes Bereziko kategoria kentzea, Portu Zaharrean eta Urkixobaso Parkean, Satistegi plazaren parean, indarrean

II. OBSERVACIONES Y SUGERENCIAS AL RESTO DEL AVANCE DE LA REVISIÓN DEL PTP.

1. Plano 1 "Medio Físico e Infraestructura Verde":

- Se sugiere usar colores más diferenciados (los verdes no se distinguen)
- Se sugiere dentro de la categoría "INFORMACIÓN COMPLEMENTARIA" diferenciar los Sistemas Generales de Espacios Libres y Zonas Verdes ya existentes y obtenidos de los que se encuentran en suelo Urbanizable.
- Se solicita corregir la errata en el contorno de "otras áreas de interés para la conservación de la biodiversidad" señalada sobre una zona urbana ya consolidada (se acompaña con imagen).
- Que se aclare el tratamiento de los suelos de la "Real Sociedad de Golf de Neguri"
- Que se elimine la categoría de Especial Protección en las zonas del parque Generatxu en el Puerto Viejo y del Parque Urkijobase a la altura de la

dagoen HAPOan hiri lurzorutzat hartzen baita.

- Informazioa eskatzen da Azkorri-Punta Galea tarteko bigarren linearen eremua "biodibertsitate aldetik interesgarriak diren beste eremu batzuen" barruan zehazteko erabili den katalogo edo inbentario naturalistikoaren jatorriari buruz, HAPOaren arabera lurzoru urbanizagarri moduan sailkatuta egonik.

2. 2. Planoa "Landa Habitat":

- Proposatzen da hainbat errepresentazio optimizatzea, nahasketarik ez sortzeko. Zehazki, Itsasertzeko LPSan Babes Berezikotzat jasotako kosta tarteaari dagokio, 2. Planoan Mendi moduan agertzen baita.

- Akatsak zuzentzeko eskatzen da, hiri gune edo lurzoru urbanizagarriak izanik, Trantsizioko Landa Paisaiatzat jotzen baitira. (azalpena irudiekin laguntzen da).

- Informazioa eskatzen da LPParen Aurrerapeneko kartografia egiteko erabili diren katalogo naturalistikoei buruz, Ingurumenaren Hobekuntza moduan markatutako eremu bat ez datorrelako bat Nekazaritza eta Basogintzako LPSan edo Itsasertzeko LPSan ezarritakoarekin

- Hiri baratzeen orbanei buruzko

plaza Satistegi, ya que se es considerado suelo urbano en el PGOU vigente.

- Se solicita información del origen del catálogo o inventario naturalístico con el que se ha delimitado como "Otras Áreas de interés para la conservación de la biodiversidad" la zona de segunda línea del tramo Azkorri-punta Galea cuando se introduce en el suelo clasificado como urbanizable según el PGOU.

2. Plano 2. "Hábitat Rural":

- Propone optimizar ciertas representaciones para que no den lugar a confusión, en concreto se refiere a la franja costera delimitada por el PTS del Litoral como Especial Protección, que en el plano 2 está como Monte.

- Se solicita se corrijan las erratas al considerar zonas como Paisaje Rural de Transición, siendo urbanas o urbanizables. (se acompaña la explicación con imágenes).

- Se solicita información sobre los catálogos naturalístico utilizados para realizar la cartografía del Avance del PTP, al no coincidir una zona manchada como Mejora Ambiental con lo que establece el PTS Agroforestal o el PTS del Litoral.

- Se solicita aclaración sobre las machas de huertos urbanos.

azalpenak eskatzen dira.

3. 4. Planoa "Ondarea eta Paisaia":

- Informazioa ematen da Getxok HAPOrako landu duen kultura ondarearen katalogoari buruz.

- LPParen Aurrerapenean 89/2001 dekretuaren akatsa jasotzen da, zeinak eraikin bat babesten duen Negubide 17an.

- Halaber, hauteman da malakateak eta burdinazko gerrikoaren tartea falta direla.

- Eskatzen da 4. Planoan Arteako saltokiaren kokapena zuzen agertzeko.

- Informazioa eskatzen da paisaiaren kategoriekin batera egongo diren araudiari buruz, horiek udalerriko hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian daudelako.

- Adierazten da LPPak Gobela ibaiaren lurpeko tartean ibilguari lotutako ibilbide eta oinezkoentzako konexio berriak dituen proposamen bat azpimarratzen duela. Informazio moduan ematen da HAPOaren Aurrerapenean definitutako Sistema Orokorraren mugaketa.

4. 5.3. Planoa "Oinezkoen eta Bizikleten Mugikortasuna":

- Bizikletetarako sarea ez dago LPPAn ondo jasota, eta HAPOaren Aurrerapenaren planoa ematen da, zuzentzeko.

3. Plano 4. "Patrimonio y Paisaje":

- Se aporta información sobre el catálogo del patrimonio cultural que Getxo ha trabajado para el PGOU.

- Se recoge en el Avance del PTP el error del decreto 89/2001 que protege un edificio en Negubide 17.

- También se aprecia que faltan los malacates y el tramo del cinturón de hierro.

- Se solicita se recoja correctamente la localización del centro comercial Artea en el plano nº4.

- Se solicita información sobre la normativa que tendrán aparejadas las categorías de paisaje porque estas están sobre el suelo urbano y urbanizable del municipio.

- Se señala que el PTP remarca en la zona soterrada del río Gobela una propuesta de nuevos itinerarios y conexiones peatonales ligadas a cauces fluviales. Se entrega como información la delimitación del SG definido en el Avance del PGOU.

4. Plano 5.3. "Movilidad peatonal y ciclable":

- La red ciclabe no está bien recogida en el PTP y se aporta plano del Avance del PGOU para su corrección.

5. 6. Planoa "Oinarrziko Azpiegiturak":

Udalerriko saneamendu sare nagusia ez dago ondo jasota. Udalean lanean ari dira BFAri hori argitzen duen plano bat emateko.

6. 7. Planoa "Ekipamenduak":

- Ibilbide naturalistiko nagusia aldatzeko aukera, ez delako Bolueko hezegunea bisitatzen.

- Eskatzen da Itsasertzeko LPSa berrikusteko, Azkorri hondartza ez dagoelako hiri hondartza moduan jasota, baizik eta Babes Bereziko moduan.

- Eskatzen da espazio libreen sarean egin gabe dagoen zatia eginda dagoenetik bereizteko, edo, behintzat, horri buruz LPPak egiten duen proposamena ez dadila loteslea izan.

- Planoko kolore berdeei buruzko azalpena. Ez dira argi ikusten.

- Eskatzen da LPPan Neguriko Golf Klubari buruz egiten den definizioa argitzeko.

7. Inbentarioaren 2. Planoa "Azpiegitura eta lurzoruaren jabetza":

Informazioa eskatzen da iradokizunean irudi bidez adierazitako hiru guneren inguruan.

8. Diagnostikoaren 2. Planoa "Nekazaritza-abeltzaintza eta baso

5. Plano 6. "Infraestructuras básicas":

No está bien recogida la red de saneamiento principal del municipio. Se está trabajando desde el Ayto. para entregar a la DFB un plano que lo aclare.

6. Plano 7 "Equipamientos":

- Posibilidad de modificar el itinerario naturalístico principal porque se deja de visitar el humedal de Bolue.

- Se solicita se revise el PTS del Litoral porque la Playa Aizkorri no está recogida como playa urbana si no como Especial Protección.

- Se solicita que la red de sistemas de espacios libres no ejecutado se diferencie del existente o por lo menos que la propuesta del PTP en este sentido no sea vinculante.

- Aclaración sobre colores verdes del plano. No se ven claro.

- Se solicita se aclare la definición en el PTP del Club de Golf de Neguri.

7. Plano 2 del Inventario-"Infraestructura y propiedad del suelo":

Se solicita información sobre tres zonas indicadas mediante imágenes en la sugerencia.

8. Plano 2 del Diagnóstico "Unidad Agroganadera y Forestal":

unitatea":

- Urkixobaso parkea nekazaritza-abeltzaintzarako moduan dago jasota, eta hiri lurzorua da. Zuzentzeko eskatzen da.
- Hilerri atzeko zelaia nekazaritza-abeltzaintzarako moduan dago jasota, eta Espazio Libreen Sistema Orokorreko lurzoru urbanizagarria da.
- Neguriko golf zelaia nekazaritza-abeltzaintzarako moduan dago jasota eta Ekipamenduetan sartzeko eskatzen da.
- Bolue eta Zubiletako hezeguneak ahalmen handi edo oso handikotzat kalifikatu dira, eta birzedarritzeko eskatzen da, hiri lurzorua galarazteko.

9. Diagnostikoaren 3.1 Planoa "Interes Bereziko Baliabide Naturalak dituzten Espazioen unitateak":

- -Informazioa eskatzen da "EAEko intereseko espazioen Katalogo irekiaren" barruan zedarritutako eremuei eragingo dien araudiari buruz, Golf zelaiko ekipamenduaren eta indarrean dagoen plan orokorreko lurzoru urbanizagarriaren zati baten gainean kokatzen delako.
- -Hiri lurzorua birzedarritzea, II.1 puntuan adierazitakoaren arabera.
- -Azkorriko Hondartzaren errepresentazioa 7. Pplanoan ez bezala (Itsasertzeko LPSan bezala).
- -Hiri lurzorua eta babes Bereziko eremuak birzedarritzea, II. puntuan

- Parque Urkijobaso recogido como Agroganadero cuando es suelo urbano. Se pide corrección.
- La campa detrás del cementerio recogida como Agroganadera cuando es suelo urbanizable de Sistema General de Espacios Libres.
- Campo de Golf de Neguri, recogido como Agrogandera, se solicita aparezca como Equipamientos.
- Humedal de Bolue y Zubilletas calificados como de capacidad alta y muy alta se pide se redelimiten para evitar el suelo urbano.

9. Plano 3.1 del Diagnóstico "Unidades de Espacios con Recursos Naturales de Especial Interés":

- -Se solicita información sobre la normativa que irá aparejada a las áreas delimitadas dentro del "Catálogo abierto de espacios de interés de la CAPV porque se sitúa sobre el equipamiento del Golf y sobre parte del suelo urbanizable del plan general vigente.
- -La redelimitación del suelo urbano según lo indicado en el punto II.1
- -Representación de la Playa de Azkorri, diferente que en el plano 7 (igual que en el PTS del Litoral)
- -Re delimitación del suelo urbano, y zonas de Especial Protección tal y

esan den bezala.

10. Diagnostikoaren 5. Planoa "Lurzoru Urbanizaezinaren Diagnostiko Orokorrerako proposamena":

- Informazioa eskatzen da babes eremuei eta babes bateragarriko eremuei eragiten dien araudiari buruz.
- Golf zelaiko babes eremua birzedarritzeko eskatzen da.
- Informazioa eskatzen da golf zelaiaren atzeko eremu bateragarriaren balio naturalistikoei buruz.
- Babes eremuak eta babes bateragarriko eremuak zuzentzeko eskatzen da, hiri lurzoruan/lurzoru urbanizagarrian sartzen direnean.

Iradokizunaren erantzuna:

I. Eskertzen dira datu eta iradokizun horiek, eta kontuan hartuko dira dokumentua idazteko hurrengo fasean, non aurrerapenean egindako kuantifikazioa berrikusiko den LAGen berrikuspenean xedatutako metodoari jarraikiz.

II. Eskerrak eman nahi dizkizuegu dokumentazio grafikoaren errepresentazioaren hobekuntzaren inguruan jasotako oharrengatik eta iradokizunengatik, baita akatsen berri emateagatik eta zuzentzeko emandako dokumentazioagatik. Kontuan hartuko dira lurraldearen antolamendurako

como se ha comentado en el punto II.

10. Plano 5 del Diagnóstico "Propuesta Diagnóstico General del Suelo No Urbanizable":

- Se solicita información sobre la normativa aparejada a las zonas de protección así como a las de protección compatible.
- Se solicita redelimitar la zona de protección en el campo de golf.
- Se solicita información sobre los valores naturalístico de la zona de protección compatible detrás del campo de golf.
- Se solicita corrección de las zonas de protección y protección compatible cuando se adentra en suelo urbano/urbanizable.

Contestación a la sugerencia:

I. Se agradece estos datos y sugerencias, que se tendrán en cuenta de cara a la siguiente fase de redacción del documento, donde se revisará la cuantificación efectuada en el Avance de acuerdo al método establecido en la revisión de las DOT.

II. Se agradecen los comentarios y sugerencias recibidas en relación a la mejora de representación en la documentación gráfica así como la detección de las erratas señaladas y la documentación aportada para su corrección, siempre en la medida que lo permita la escala de trabajo de la ordenación territorial. El

lanaren eskalak ematen duen aukeraren arabera. BMLPP hasieran onartzeko dokumentuak ildo horretan beharrezkoak diren hobekuntzak sartzeko ahalegina egingo da.

Planoetan jasotako informazioari buruz eskatutako azalpenei dagokienez:

1. 1. planoari buruzkoak:

-"Neguriko Real Sociedad de Golfen" tratamenduari dagokionez, argitu behar da ekipamendu hau EAEko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekian dagoela jasota, zeinaren helburua den ingurumena zaintzea, eta beharrezkoa izanez gero, hobetzea. Nolanahi ere den, "NEGURIKO REAL SOCIEDAD DE GOLFek" okupatutako lurzoruaren berezitasuna aztertuko da, eta lurzoruak gaur egun daukaten funtzioaren arabera tratatuko dira, Getxoko Udalak egindako galderari erantzunez Bizkaiko Foru Aldundiaren Lurralde Kohesioko zuzendaritza nagusiak 2016ko urtarrilaren 26an egindako txostenarekin bat etorrita.

LPParen berrikuspenaren aurrerapenean biodibertsitatearen kontserbaziorako definitutako interes arloen helburua da, hain zuzen, kontserbaziorako interesekotzat jotako fauna eta flora espezieak zer habitatetan garatzen diren ikusi, eta habitat horiek babestea. Kategoria horretan txertatu dira, besteak beste, LAGetako interes naturalistikoko eremuak, ezein babes irudiren babesik ez dutenak, non ageri den txertatuta Punta Galea-Barrika eremua. Kontsultatutako kartografia, bestalde, Eusko Jaurlaritzak emandakoa da, kontserbaziorako interes

documento para Aprobación Inicial del PTPBM tratará de incorporar las mejoras necesarias en este sentido.

Respecto a las aclaraciones solicitadas sobre la información contenida en los planos:

1. Sobre el Plano 1:

-Sobre el tratamiento de la "Real Sociedad de Golf de Neguri" hay que aclarar que este equipamiento se encuentra incluido dentro del Catálogo Abierto de Espacios Naturales Relevantes de la CAPV, cuya vocación es la de conservación y mejora ambiental si fuese necesario. De todos modos, se analizará la particularidad del suelo ocupado por la "REAL SOCIEDAD DE GOLF DE NEGURI" y los suelos se tratarán en adecuación con la función que desarrollan en la actualidad de acuerdo al informe de la dirección general de Cohesión Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia de fecha 26 de enero de 2016 en respuesta a la consulta realizada por el Ayuntamiento de Getxo.

Las áreas de interés para la conservación de la biodiversidad definidas en el Avance de la revisión del PTP, tienen como objetivo proteger los hábitats en que se desarrollan especies de fauna y flora catalogadas de interés para la conservación. Se han incluido en esta categoría, entre otras las Áreas de interés naturalístico de las DOT que no están protegidos por ninguna figura de protección y donde se incluye el área de Punta Galea-Barrika. La cartografía consultada es la que el Gobierno vasco facilita y es la que se ha utilizado en el momento de definir las áreas de interés para la conservación. En la fase de redacción del documento para aprobación inicial se

eremuak definitzeko erabili dena. Hasierako onespenaren dokumentua idazteko fasean, berrikusi egingo da kategoria hori, eta udalerriko lurzoru urbanizagarriekin izan ditzakeen gatazkak aztertuko dira.

2. 2. planoari buruzkoak:

-Ingurumena hobetzeko guneei dagokienez: badaude ingurumen hobekuntzarako eremu batzuk, inguruneko ezaugarriek bultzatuta beharrezkoa izan denean mapan egin diren xehetasun azterlanek definitu dituztenak. Ez dira, beraz, zuzenean Nekazaritza-Basoko LPStik edo/eta Itsasertzeko LPStik etorritakoak.

-Hiri baratzeei dagokienez: baratze eremuaren mugaketak jardun hori erraztu eta kontrolatu ahal izateko eremuak izan dezakeen kokaguneari erantzuten dio, eta zerikusia duten udalek baloratu beharko dute.

3. "Ondarea eta paisaia" izeneko 4. planoari buruzkoak:

-Paisaiaren kategoriei buruzko araudiarena dokumentuaren aurreragoko faseetan garatu beharreko gaia izango da; izan ere, eremu funtzionalaren Paisaia Katalogoa BMLPParen berrikuspenarekin batera idatziko da, aldi berean eta modu koordinatuan. Dena den, hiri lurzoruekin eta lurzoru urbanizagarriekin bat datozen mugak berrikusiko dira.

6. "Ekipamenduak" izeneko 7. planoari buruzkoak:

07 Planoak Golf Zelaiko eraikina besterik ez

revisará esta categoría y posibles conflictos con los suelos urbanizables del municipio.

2. Sobre el Plano 2:

-Sobre las manchas de mejora ambiental: Existen zonas de mejora ambiental que se han definido por estudios de detalle realizados sobre mapa, cuando así se ha visto necesario por las características de ese entorno, sin necesidad de que vengan directamente del PTS Agroforestal y/o PTS del Litoral.

-Sobre los huertos urbanos: La delimitación de la zona de huertos responde a una aproximación hacia una posible ubicación para facilitar y controlar esta práctica, que deberán valorar los Ayuntamientos implicados.

3. Sobre el plano 4 "Patrimonio y Paisaje"

-La normativa sobre las categorías del paisaje será un tema a desarrollar en fases posteriores del documento, ya que la redacción del Catálogo del Paisaje del área funcional se redactará simultáneamente y de forma coordinada con la revisión del PTPBM. No obstante se revisarán las delimitaciones coincidentes con suelos urbanos y urbanizables.

6. Sobre el plano 7 "Equipamientos"

El hecho de que el Plano 07 recoge como Equipamiento un espacio en el que se localiza exclusivamente el edificio del Campo de Golf, se debe a una mera forma de representación en la que los equipamientos se señalan con un símbolo.

dagoen espazio bat Ekipamendu gisa jasotzen du, ekipamenduak sinbolo batekin adieraztea erabaki delako, besterik gabe.

7. Inbentarioaren 2. planoa - Azpiegitura eta lurzoruaren jabetzari buruzkoak:

Galdera iturri izan diren hiru eremuetan, argitzekoa da biribil gorria dokumentuaren akats bat dela, eta dokumentua idazteko hurrengo fasean zuzenduko dela. Kostaldean mugatutako eremu poligonala bat dator Abrari emandako kontzesioarekin, eta Eusko Jaurlaritzak zabaldutako informazio ofizialetik hartu da zuzenean. Adierazitako bide zatiari dagokionez, iruzkina hurrengo fasean hartuko da kontuan. Bertan berrikusi eta aztertuko da datu hori, iradokizunak emandako informazioari jarraiki.

9. Diagnostikoaren 3.1. planoa - Interes Bereziko Baliabide Naturalak dituzten Espazioen unitateei buruzkoak:

EAEko Intereseko Espazio Irekien Katalogoak Eusko Jaurlaritzak mugatutako eremuak jasotzen ditu, zuzenean planoan bildu direnak. Eremu horiek zaindu egin beharko dira, eta unea iristen denean, beharren arabera, hobetu. Horrekin lotutako araudia hasierako onespenaren dokumentuan zehaztuko da. Nolanahi ere den, Neguriko Real Sociedad de Golfen egoera modu berezian aztertuko da, eta lurzoruak tratatzeko modua, hain zuzen, Getxoko Udalak egindako galderari erantzunez Bizkaiko Foru Aldundiaren Lurralde Kohesioko zuzendaritza nagusiak 2016ko urtarrilaren 26an egindako txostenean jasotakoaren araberakoa izango

7. Sobre el plano 2 del Inventario-Infraestructura y propiedad del suelo.

De las tres zonas sobre las que se consulta hay que aclarar que el círculo rojo es una errata del documento que se corregirá en la siguiente fase de la redacción del documento. El ámbito poligonal delimitado en la costa se corresponde con la concesión otorgada del Abra y se ha cogido directamente de la información oficial del Gobierno Vasco. Con respecto al tramo viario señalado se toma nota del comentario de cara a la siguiente fase donde se revisará y analizará este dato siguiendo la información que facilita esta sugerencia.

9. Sobre el plano 3.1 del Diagnóstico-Unidades de Espacios con Recursos Naturales de Especial Interés.

El Catálogo de Espacios Abiertos de Interés de la CAPV, comprende ámbitos delimitados por el Gobierno Vasco que se han recogido directamente en el plano y cuya vocación es la conservación y llegado el momento y según necesidad su mejora. La normativa aparejada será se concretará en el documento de aprobación inicial. En cualquier caso la situación de la Real Sociedad de Golf de Neguri se analizará en particular y los suelos se tratarán de acuerdo a lo recogido en el informe de la dirección general de Cohesión Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia de fecha 26 de enero de 2016 en respuesta a la consulta realizada por el Ayuntamiento de Getxo.

10. Sobre el plano 5 del Diagnóstico-Propuesta Diagnóstico General del Suelo

da.

10. Diagnostikoaren 5. planoa - Lurzoru Urbanizaezinaren Diagnostiko Orokorrerako proposamenari buruzkoak:

BMLPParen aurrerapenaren aurretik egin zen diagnostikoaren fasean, eremu funtzionalean zeuden ingurumen aldagai guztien inbentarioa egin zen, eta, horrenbestez, Diagnostiko horrek hiru eremutan sailkatu zuen lurraldea (Babes eremuak, Babes bateragarriko eremuak eta Hobetu eta lehengoratzeko eremuak), lurzorua antolatzeko lehendabiziko irizpideak ezartzeko, ondoren BMLPParen aurrerapenaren euskarri izan zitezen. Ondoren, kategoria horiek Ingurumen Dokumentu Estrategikoan jaso ziren, baina nagusitu direnak BMLPParen aurrerapenean daudenak dira, eta horien araudi espezifikoa hasierako onespenaren dokumentuan definitu eta zehaztuko da, diagnostikoan jaso diren lurzoru babestuen eta lurzoru bakoitzaren gaur egungo egoeraren (fisikoa zein urbanistikoa izan) artean egon daitekeen interakzioa berrikusiz (Getxoko HAPOa).

No Urbanizable

En fase de diagnóstico, previo a la realización del Avance del PTPBM, se inventariaron todas las variables ambientales presentes en el ámbito del área funcional, de tal manera que este Diagnóstico categorizó el territorio en tres zonas diferentes (Zonas de protección, Zonas de protección compatible, y Zonas de mejora y recuperación) con intención de establecer los primeros criterios de ordenación del suelo que sirviesen de apoyo al posterior Avance del PTPBM. Estas categorías fueron recogidas después en el Documento Ambiental Estratégico, sin embargo las que prevalecen son las del Avance del PTPBM, y su normativa específica se definirá y concretará en el documento de aprobación inicial, revisando la posible interacción entre los suelos protegidos que recoge el diagnóstico y las características de cada suelo en su estado actual, físico y urbanístico (PGOU de Getxo).

Bizkaia
garraioak, mugikortasuna eta lurraldearen kohesioa sustatzeko saila
departamento de transportes, movilidad y cohesión del territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 43 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | IHOBE |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 05/06/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Egiaztatu da LPPak zuzen jaso duela lursail batzuen existentzia, zeinek historikoki kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak hartzen dituzten, eta, ondorioz, arriskutsuak izan daitezkeen erabiltzaileentzat eta ingurumenarentzat.

Gogorarazten da beharrezkoa dela lurzoruaren kalitatearen deklarazioa tramitatzea, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legean jasotzen denez, aipatu Legearen 23. artikuluan sartutako egoeretan; lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa bat egin behar da, eta lan horiek eta lehengoratzeko neurriak diseinatu eta gauzatzeko lanak egiaztatutako entitateek egin beharko dituzte.

Resumen de la sugerencia:

Se ha comprobado que el PTP ha considerado correctamente la existencia de parcelas que han soportado históricamente actividades potencialmente contaminantes y que por lo tanto pueden suponer un riesgo para los futuros usuarios y/o el medio ambiente.

Se recuerda la necesidad de tramitar una Declaración de calidad de suelo según se recoge en la Ley 4/2015 para la prevención y corrección de la contaminación del suelo en las situaciones incluidas en el artículo 23 de la citada Ley; la necesidad de la realización de una investigación de la calidad del suelo y que dichos trabajos y el diseño y la ejecución de las medidas de recuperación deberán ejecutarse por entidades acreditadas.

Iradokizunaren erantzuna:

LPPan sartuko dira, batetik, EAEko lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentarioa, eta, bestetik, alegazioan jasotako informazio berria. Halaber, adieraziko da

Contestación a la sugerencia:

Se incluirá en el PTP el “Inventario de emplazamientos con actividades potencialmente contaminantes del suelo de la CAPV”, así como la nueva información facilitada

inbentario horretan egiten diren aldaketak LPPan sartuko direla automatikoki, eta, beraz, ez dela egungo inbentarioa aldatu behar izango Era berean, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena izapidetzeko betebeharra jasoko da, beharrezkoa baita egin nahi den erabilera-aldaketa egin aurretik. Hala ere, zehaztapen horren irismena lurralde-antolamenduko dokumentu baten eta haren esku-hartzearen eskalaren bestekoa izango da; araudi propioaren arabera, gehienez ere, 1/25.000.

por la alegación, indicando que cualquier modificación futura de este inventario se entendería incorporada al PTP y sustituiría al actual sin necesidad de modificación del mismo. Se incluirá asimismo la necesidad de tramitación de la declaración de calidad del suelo, como elemento necesario con carácter previo al cambio de uso que se pretenda, si bien el alcance de la determinación será la propia de un documento de ordenación territorial y de su escala de intervención, que no supera, en razón de su regulación propia, el 1/25.000

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 44 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Sustapen Ministerioa- Gobernuaren EAEko Ordezkaritza<br>Ministerio de Fomento- Delegación del Gobierno en la CAPV |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 05/06/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Dokumentua aztertu da eta bereziki azpimarratu da planaren kartografia, daukatenarekin alderatuta.

Ingurumeneko kartografia tematikoa eta planeamenduko beste figura batzuk gehitzen dira, Eremu Funtzionalaren mugaren oinarri kartografikoarekin gainjarrita, eta etorkizuneko faseetan kontuan hartu litekeen informazio berria ematen da.

Kartografia honako hau da:

- Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionaleko mugak.
- Bilboko aireportuko zortasunen inguratzailea.
- LAGetako Interes Naturalistikoko arloak.
- Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekia.
- Hezeguneen LPSaren antolamendua.
- Itsasertzaren LPSaren antolamendua.

Resumen de la sugerencia:

Se ha examinado el documento y se ha realizado especial hincapié en la cartografía del dicho plan, comparándola con la que tienen.

Se aporta cartografía temática ambiental y otras figuras de planeamiento aprobadas superpuestas a la base cartográfica con el límite del Área Funcional, que aporta nueva información que se podría tener en cuenta de cara a futuras fases.

Dicha cartografía es la siguiente:

- Límites del Área Funcional del Bilbao Metropolitano.
- Envolvente de las servidumbres aeroportuarias de Bilbao.
- Áreas de Interés Naturalístico de las DOT.
- Catálogo abierto de Espacios Naturales Relevantes.
- Ordenación del PTS de Zonas Húmedas.
- Ordenación del PTS de Litoral.

- Ibai eta erreken LPSaren antolamendua.
- Nekazaritza eta basoko LPSaren antolamendua.
- Korridore ekologikoak.
- Paisaiaren mugarriak.
- Akuiferoen kalteberatasuna.
- Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoaren mugaketa.
- Jabari Publiko Hidraulikoa.
- Urak hartzeko arriskua.
- Hezeguneen inbentarioa.
- Interes Geologikoko Lekuak.
- Parke Naturalak eta Biotopo Babestuak.
- Onura Publikoko Mendiak.
- Kutsatuta Egon Daitezkeen Lurzoruen Inbentarioa.
- Flora mehatxatua.
- Kudeaketa plana onartuta duen fauna mehatxatua.
- Hegazti nekrofagoen kudeaketa plana.

- Ordenación del PTS de ríos y arroyos.
- Ordenación del PTS Agroforestal.
- Corredores ecológicos.
- Hitos paisajísticos.
- Vulnerabilidad de acuíferos.
- Deslinde del DPMT.
- Dominio Público Hidráulico.
- Inundabilidad.
- Inventario de Humedales.
- Lugares de Interés Geológico.
- Parques Naturales y Biotopos Protegidos.
- Montes de Utilidad Pública.
- Inventario de Suelos Potencialmente contaminados.
- Flora amenazada.
- Fauna amenazada con planes de gestión aprobados.
- Plan de gestión de las aves necrófagas.

Txostenak dioenez, hasierako onarpenaren aurretik edo tramite baliokidea egin aurretik, beharrezkoa da BFAk Hegazkineria Zibilaren Zuzendaritza Nagusiari (Sustapen Ministerioa) dagokion txostena ofizialki eskatzea, zeina loteslea eta derrigor bete beharrekoa den, eta, ondorioz, berariaz aldekoa izan behar den, behin betiko onartu ahal izateko.

El informe señala la necesidad de que la DFB solicite de manera oficial antes de la aprobación inicial o trámite equivalente a la Dirección General de Aviación Civil (Ministerio de Fomento) el correspondiente informe, que tiene carácter vinculante y preceptivo y por lo tanto debe ser expresamente favorable para su aprobación definitiva.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen da emandako informazioa, eta zatirik

Contestación a la sugerencia:

Se agradece la información que se aporta,

handiena dagoeneko kontuan hartu da LPPan bertan edo Ingurumen Ebaluazio Estrategikoan. Aurrez jaso gabe dagoen kartografia sartzea baloratuko da.

siendo la mayor parte de ella tenida en cuenta ya en el propio PTP o en el EAE. Se valorará la inclusión de aquella cartografía que no se haya recogido previamente.

Derrigorrezko txostena eskatuko da, legez ezarritako tramitearen arabera.

Se solicitará el correspondiente informe preceptivo conforme al trámite legalmente establecido.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 45 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | EH BILDU – Batzar Nagusietako Taldea<br>EH BILDU – Grupo de Juntas Generales |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 15/06/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Eskatzen da BMLPParen Aurrerapenaren helburuen dokumentuan hainbat helburu operatibo eta jarduera ildo sartzeko, iradokizunen txostenean jasotzen denez (batzuek jada daudenak osatzen dituzte eta beste batzuk berriak dira), eta, ondorioz, Aurrerapenaren Memoria ekarpen horietara egokitzeko.

Helburu operatibo eta jarduera ildo horiek korrelatiboki zerrendatzen dira, BMLPParen Aurrerapeneko helburuen matrizean jasotako zenbakiduraren arabera.

Resumen de la sugerencia:

Se solicita que se incluyan en el documento de objetivos del Avance del PTPBM una serie de objetivos operativos y líneas de actuación que el informe de sugerencias recoge (algunos completando los existentes y otros nuevos) y que en consecuencia la Memoria del Avance se amolde a estas aportaciones.

Estos objetivos operativos y líneas de actuación se enumeran correlativamente a partir de la numeración recogida en la matriz de objetivos del Avance del PTPBM..

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen da emandako informazioa, eta kontuan hartuko da BMLPParen hasierako onespenerako. Edonola ere, egiten diren proposamenak, oro har, bat datoz BMLPParen Aurrerapenaren estrategiarekin.

Alderdi jakin batzuk sartzeko proposatzen du, eta aztertu eta hasierako onespenerako dokumentuan sartzea baloratuko da.

Contestación a la sugerencia:

Se agradece la información que se aporta, que se tendrá en cuenta cara a la aprobación inicial del PTPBM. En cualquier caso las propuestas que se apuntan están alineadas en general con la estrategia del Avance del PTPBM .

Se propone la inclusión de aspectos concretos que serán analizados y valorada su inclusión en el documento de aprobación inicial.

Helburu operatibo gisa jasotako gehienak planaren diskurtsoaren zati dira, baina aipatutako alderdietako batzuk, zehatzegiak direnez, ez dira agertzen helburu horien enuntziatuan, haietatik sortzen diren irizpideetan, jarraibideetan eta jarduera-ildoetan baizik.

Entre los apuntados como Objetivos Operativos, la práctica totalidad forman parte del discurso del plan, si bien algunos de los aspectos señalados, dada su concreción, no aparecen en el enunciado de dichos objetivos sino entre los criterios, directrices y líneas de actuación que emanan de los mismos.

Jarduera-ildoei dagokienez, uste da ekarpen gehienak bat datozela planaren edukiekin. Hala ere, kasu batzuetan, eraginkortasun orokorra dela-eta edo proposamen edukia dela-eta, zehaztapen batzuk egin behar dira. Hauek dira:

Entre lo reseñado respecto a las Líneas de Actuación, buena parte de las aportaciones se consideran, igualmente, coincidentes con los contenidos del plan, si vienen algunos casos, por razones de operatividad general o de escala de las propuestas, cabe realizar algunas precisiones. Son las siguientes:

- Kutsadura akustikoa murrizteari dagokionez, BMLPPak lurraldearen egora akustikoa aztertzen du, ea irizpideak ezarriko ditu kalitate akustiko ezin hobea lortzeko, dagoen araudiari jarraituz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ezarritako parametroen barruan.

- Respecto a la reducción de la contaminación acústica el PTPBM analiza la situación acústica del territorio y establecerá criterios para conseguir una calidad acústica óptima siguiendo la normativa existente y dentro de los parámetros que marca el DECRETO 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Goi-tentsioko lineei eta linea elektrikoei dagokienez, LPPak indarrean dagoen araudia betearaziko du.

- Respecto a las líneas de alta tensión y eléctrica, el PTP remitirá al cumplimiento de la normativa vigente.

- Naturagune babestu gisa sartzeko proposatu diren eremuek ez dituzte betetzen halakotzat jotzeko baldintzak. Hala ere, kontuan hartuko da ekarpena haien ingurumen-ebaluazioa behar bezala egiteko.

- Los ámbitos que se apuntan para su consideración como Espacios Naturales Protegidos no poseen las condiciones que caracterizan a éstos, si bien se toma nota de lo apuntado cara a adecuar debidamente la valoración ambiental que se haga de los mismos.

- Lurraldea berroneratzea bultzatzeko irizpideen artean zabortegiak lehengoratzea bezalako irizpideak analizatu eta aztertuko dira. LPParekin batera landuko den eremu funtzionalaren Paisaiaren Katalogoak lurraldea analizatuko du, kontuan hartuz zenbait inguruneren degradazio egoera eta

- Entre los criterios para impulsar la regeneración territorial se analizarán y estudiarán criterios como la regeneración de vertederos. El Catálogo de Paisaje del área funcional que se elaborará de forma paralela al PTP, analizará el territorio teniendo en cuenta la situación degradada de algunos entornos y

zabortegiak bezalako elementuak.

- Meatzaldean eta Galindo-Castaños-Granadan nekazaritzako eremuak sartzeari dagokionez, Hasierako Onespenaren fase honetan proposamena aztertuko da eta sartzearen egokitasuna baloratuko da.

- Lurzoruen kalifikazioa/deskalifikazioa udalen eskumena da. Bakoitzaren hirigintza-plangintza indarrean dagoen epean garatzen ez diren lurzoruen kasuan, hartu behar diren neurriak ezarrita dauden indarrean dagoen Lurzoruaren Legean.

- Babes-basoen katalogo bat egiteari dagokionez, LPPak lurralde mailako eskalan lan egingo du, balio natural garrantzitsuak dituzten mendiak kudeatzen eta sortzen lagunduko duten irizpideak eta erabakiak ezartzeko.

- Etxebizitzetako hobekuntza energetikoari dagokionez, BMLPPak kontsumo energetikoa orokorrean optimizatzeko planteatzen dituen helburu eta neurri orokorragoen barruan sartuta dago. Helburu jakin hori betetzeko planak garatzen ari dira jada gai horretan eskumena duten administrazioak.

- Hutsik dauden etxebizitzen inbentarioak egitea lehen urratsa da haien okupazioa sustatzeko; hala ere, gairen edukia zabala denez, hurbiletik landu behar da, udal-ekimenaren bidez, hain zuzen

- LPParen Aurrerapenean sartu diren helburuen barruan, ondareari dagokionez, guztiek ala guztiek inplizituki jasotzen dute ondare materiala egoera onean egon behar

elementos como pueden ser la presencia de vertederos.

- Respecto a la inclusión como áreas agrarias en Meatzaldea y Galindo-Castaños-Granada, se analizará la propuesta en esta fase de Aprobación inicial y se valorará la idoneidad de incluirlas.

- La calificación/descalificación de suelos es una cuestión de incumbencia municipal. En el caso de los suelos no desarrollados en el periodo de vigencia de los respectivos planeamientos urbanísticos, las medidas a adoptar están ya establecidas en la Ley del Suelo vigente.

- En lo referente a la elaboración de un catálogo de montes protectores el PTP trabajará dentro de la escala territorial, estableciendo los criterios y determinaciones que ayuden a gestionar y generar montes con valores naturales relevantes.

- Respecto a la mejora energética en viviendas, queda ésta incluida dentro de los objetivos y medidas de carácter más general que el PTPBM propugna cara a la optimización del consumo energético en su conjunto. Los planes con este fin en concreto ya están en desarrollo impulsados por las administraciones competentes en la materia.

- La realización de inventarios de vivienda vacía es un primer paso cara al impulso para su ocupación, si bien lo prolijo de tal cuestión precisa de que sea abordada desde la cercanía que conlleva la iniciativa municipal.

- Dentro de los objetivos que se han incluido en el Avance del PTP en lo que se refiere a patrimonio, todos ellos de forma implícita recogen la necesidad de que el

dela, eta unea iristen denean, beharrezkoa balitz, horiek berreskuratzea bultzatzea: Ondarearen potentziala birbalorizatzea, Ondarearen aberastasuna eta balioa aitortea, eab. Jaso diren elementuen zerrendak udalez gaindiko balorazio baten araberakoak dira.

- Txartel bakarra (Barik) garraiobide kolektibo guztietara zabaltzeko prozesuan egon arren, badirudi gure errealitatean txertatuta dagoela. Zerbitzu eta kudeatzaile ezberdinen arteko koordinazioaren bidez, tarifak bateratzea kudeaketa kontu bat da, eta ez da sartzen lurralde-plangintzan. Kudeaketa hori garraio-agintaritza eskudunak arautu behar du.
- Ekonomia zirkularrari buruz esandakoari dagokienez, planteatutako ikuspegi orokorrarekin ados bagaude ere, kontuan hartuko da ekarpena plana idazteko hurrengo faseetan.

patrimonio material se encuentre en buen estado y llegado el momento y si fuese necesario impulsar su recuperación: Revalorizar el potencial del patrimonio, Reconocer la riqueza y valor del patrimonio, etc. Los listados de elementos que se contemplan son los que obedecen a una valoración de escala superior a la municipal.

- El billete único (Barik), aunque aún en proceso de su generalización a todos y cada uno de los transportes colectivos, parece formar parte ya de nuestra realidad. La equiparación tarifaria, con la coordinación entre distintos servicios y gestores, es una cuestión de gestión, más allá de la planificación territorial, a regular por la autoridad de transporte competente.

- Respecto a lo señalado en referencia a la economía circular, estando de acuerdo con el enfoque general que se plantea, se tendrá en consideración la aportación realizada en las futuras fases de la redacción del plan.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

garraioak, mugikortasuna eta lurraldearen kohesioa sustatzeko saila
departamento de transportes, movilidad y cohesión del territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº: | 46 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | Loiuko Udala<br>Ayuntamiento de Loiu |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 19/06/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

1. Bide azpiegiturak:

- Unbeko Korridorearen hobekuntza birpentsatzea (BI-2704).

- Txorierriko Iparraldeko AE 6 Bidea kentzea, ikusita LPParen Aurrerapenean horren trazatuaren zati handi bat kendu egin dela; ondorioz, proposatzen da Txorierriko Iparraldeko Bidea ordeztea Loiuri eragiten dion zatian, BI-3707aren hobekuntzarekin, eta, ondorioz, egin beharreko saihesbidea egitea, Zabaloetxeko herrigunea inguratzeko eta BI 2704arekin konektatzeko biribilgunea eginez.

- BI-2704an Unbera igotzeko dauden hiru erreilek jarraitzea, saihesbide bat eginez gaur egun hirugarren erraila hasten den lekutik BI-3707arekin lotuko lukeen biribilguneraino.

Resumen de la sugerencia:

1. Infraestructuras viarias:

- Repensar la mejora del Corredor de Unbe (BI-2704).

- Eliminar la AE 6 Vía Norte del Txorierri, vista la eliminación de gran parte de su trazado en el Avance del PTP, para lo que se propone sustituir la Vía Norte del Txorierri en el tramo que afecta a Loiu por la mejora de la BI-3707, que incluya en su caso la oportuna variante que circunvale el caso urbano de Zabaloetxe y la oportuna rotonda de conexión con la BI-2704.

- Continuación de los tres carriles existentes en la subida a Unbe de la BI-2704 mediante la ejecución de una variante desde el punto donde en la actualidad se inicia el tercer carril hasta la rotonda que enlazaría con la BI-3707

2. Garraio publikoa (tren-metro ardatza):

Eskatzen da Larrondoko geltokiari zerbitzua ematen dion trenbidea funtzionamenduan mantentzea eta Zabaloetxeko nukleoarekin konektatzea, Ola-Aireportu tartea lurperatzeko soluzioaren barruan.

Dagoen lineari dagokionez, mantentzeaz gain, beharrezkotzat jotzen da metroaren 1 linearekin konektatzea Lutxanan, katea inguruan geltoki bat eginez, eta hortik konexio bat egitea Zabaloetxeko nukleoarekin; geltoki hori Leioako unibertsitatearekin edo Mungiarekin konektatzeko etorkizuneko linean egon liteke.

3. Txorierrin autobia eta BI-737a konektatzea

Beharrezkotzat jotzen da BI-637arekin konektatzea, autobiaren irteeratik, Larrondon.

2. Transporte público (eje ferroviario-metro):

Se solicita mantener en funcionamiento de la línea ferroviaria que da servicio a la estación de Larrondo y su conexión con el núcleo de Zabaloetxe, dentro de la solución de soterramiento del tramo Ola-Aeropuerto.

Sobre la línea existente se considera necesario además de mantenerla, su conexión con la línea 1 de metro en Lutxana, mediante una estación en la zona de Katea, y desde ahí una conexión con el núcleo de Zabaloetxe, parada que podría estar en la futura línea de conexión bien con la universidad de Leioa bien con Mungia.

3. Conexión autovía Txorierri, con la BI-737

Se considera necesario incorporar una conexión a la BI-637 desde la salida de la autovía en Larrondo.

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira jasotako ekarpenak, eta kontuan hartuko dira BMLLParen hasierako onespenerako dokumentuaren erredakzioan.

1. Bide azpiegiturei dagokienez, kontuan hartuko dira iradokizunak, BFAko Errepide Sailarekin koordinatuta trazatuaren proposamen bat egiteko.

2. Dagoen linea mantentzeari eta Metroarekin konektatzeari dagokionez, kontuan hartuko da

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las aportaciones realizadas que serán tenidas en consideración en la redacción del documento para aprobación inicial del PTP BM.

1. En relación a las infraestructuras viarias se tendrán en cuenta las sugerencias para elaborar una propuesta de trazado en coordinación con el Departamento de Carreteras de la DFB.

2. En lo relativo al mantenimiento de la línea existente y su conexión con el Metro, se tendrá en cuenta la

Zabaloetxe garraio sarean sartzea, nahiz eta onena litzatekeen oztopo urbanistiko berriak sortu gabe egitea.

3. Esan behar da Txorierriko autobiaren eta BI-737aren arteko konexioa dagoeneko indarrean dagoen LPPko AE.7 proposamenean dagoela.

incorporación de Zabaloetxe a la red de transporte, si bien lo ideal sería realizarla sin generar nuevas barreras urbanísticas.

3. Señalar que la conexión de la autovía del Txorierri con la BI-737 ya forma parte de la propuesta de AE.7 del PTP vigente

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 47 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | BFA- Natura Ondarearen Zerbitzua<br>DFB – Servico de Patrimonio Natural |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 20/06/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revisión del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

Hainbat Helburu Operatibo direla eta: *"IV01 Ondare naturala babestea eta biodibertsitatearen galera etetea"; "IV05 Kostaldea gizarte, natura eta paisaia interesik handieneko elementu moduan hartzea, haren hauskortasun handia kontuan hartuz"; "PJ02 Paisaiaren balioa azpimarratzea, kalitate eragile gisa, ekologia, gizarte, kultura, ekonomia eta ongizatearen ikuspuntutik"; "PJ05 Kostaldeko paisaia babestu eta antolatzea, bere berezitasun biologiko eta geologikoaren balioa azpimarratuz ea nekazaritza eta basoko mosaikoaren paisaia orekatzea landa eremuak atzera egitea saihestuz"*, esaten da proposamen zehatzekin osatu behar direla, eta honako hauek proposatzen dira, BMLPParen Berrikuspenean gehitzeko:

B. BMren eremu funtzionalean dauden Ondare Naturalaren Balioen inguruko alderdi garrantzitsuak; horien babesa eta kontserbazioa ezarri behar da LPParen arauen dokumentuan eta

Resumen de la sugerencia:

Sobre los Objetivos Operativos *"IV01 Proteger el patrimonio natural y frenar la pérdida de biodiversidad"; "IV05 Considerar el litoral como uno de los elementos de mayor interés social, natural y paisajístico, teniendo en cuenta su elevada fragilidad"; "PJ02 Poner en valor el paisaje como un factor de calidad desde el punto de vista ecológico, social, cultural económico"; "PJ05 Proteger y ordenar el paisaje costero poniendo en valor su singularidad biológica y geológica y equilibrar el paisaje tradicional del mosaico agroforestal evitando el retroceso de suelo rural; de bienestar"*, se señala que deben ser materializados en propuestas concretas y se aportan las siguientes para que sean incorporadas en la revisión del PTPBM:

B. Cuestiones relevantes respecto a Valores del Patrimonio Natural existente en el área funcional del BM cuya adecuada protección y conservación debe ser establecida en el documento

planoetan.

- LPPan behar bezala gehitu behar dira Natura Sareko espazio guztiak, baita ere Butroeren itsasadarraren ingurua ere (kautelazko babespean dago), araudiak bertako balio naturalen kontserbazioa bermatu behar baitu.

- LPPan behar bezala jaso eta zedarritzea Zierbenako interes naturalistikoko gunea, zeina LAGetan leku babestu moduan dagoen.

- Hezeguneen LPSan adierazten dena jasotzea La Arena eta Barbadun itsasadarraren inguruan, Barbadun itsasadarraren KBEtik kanpo (II. multzoko A1Ba hezegunea). Horrez gain, A1B2 Butroe Itsasadarreko hezegunea, B10B1 Astrabuduko ibarreko hezegunea, B10B3 Bolue haraneko putzuak, DB4 Etxerreko putzua. LPPak horiek jaso behar ditu, LPSaren izaera babeslea bultzatuz, eta inola ere ez du araudia murriztu behar. Gune horietan lehengoratzeko planak eta proposamenak badaude, era berean jaso behar dira.

- LPPak indartu egin behar du Itsasertza Antolatzeko LPSan ezarritakoa eta ez du babesa mugatu behar. Euskarri juridikoa eman behar die LPS horretan ingurumena lehengoratzeko

normativo y planos del PTP.

- Incorporar convenientemente en el PTP todos los espacios Red Natura así como el espacio de la ría del Butrón (sometido a protección cautelar), cuya normativa debe garantizar la adecuada conservación de sus valores naturales.

- Recoger y delimitar de forma adecuada en el PTP el área de interés naturalístico de Zierbena recogido en las DOT como espacios protegidos.

- Recoger lo señalado en el PTS de Zonas Húmedas en la zona del entorno de La Arena y ría del Barbadun fuera de la ZEC ría de Barbadun (humedal A1B1 del grupo II). Además también el humedal A1B2 RÍA Butrón, B10B1 Zona Húmeda de la vega de Astrabudua, B10B3 Encharcamiento del valle de Bolue, DB4 Charca de Etxerre. El PTP los debe recoger impulsando el carácter protector del PTS y nunca establecer reducción de su normativa. En caso de que existan en estos planes y espacios propuestas de restauración se deben recoger igualmente.

- El PTP debe reforzar lo establecido en el PTS de Ordenación del Litoral y no limitar la protección. Debe aportar soporte jurídico a las propuestas de restauración ambiental recogida en este PTS, como puede ser la de la cala de

jasotako proposamenei, esaterako, Basordako kalari dagokionari.

C. Halaber gehitu beharko dira ingurumenari dagokionez balio nabarmena duten beste gune batzuk eta konektibitate ekologikoko puntu kritikoak direla eta, BMLPPak horien irtenbidea aurreikusi behar du, eta kontuan hartu behar ditu baita ere eremu funtzionaleko Natura Ondareari buruzko beste alderdi esanguratsu batzuk.

- Kostaldeko paisaia interesgarria, Europaren intereseko habitatak eta flora mehatxatuko taxonak daudelako Muskiz, Zierbena eta Santurtzi udalerrietan (LAGetan Zierbenako Eremuan daude jasota, LAG 010 kodean). LPPak zorrotz zedarritu behar du hori, araudian modu egokian sartu, eta erabilera okerretatik babestu, esaterako, baso ustiapen intentsibotik.

- A-8ko konektibitate ekologikoko puntu kritikoa. Montaño mendiaren eremua. Beharrezkoa da BMLPPak ekoduktu bat eraikitzeko beharra eta aurreikuspena gehitzea Montañoko puntu kritikoa, A-8an, Abanton, A-8aren korapiloaren eta A-8ko zubiranzko jaitsieraren hasieraren artean. Obra horrek EBren finantzaketa lortu lezake, CEF programaren funtsen bitartez (Connecting Europe Fcaility), eta horregatik proposatzen da obra

Basordas.

C. Otros espacios ambientales de valor sobresaliente que deben ser incorporados, puntos críticos de conectividad ecológica cuya solución debe prever el PTPBM y otras cuestiones relevantes respecto al Patrimonio Natural del área funcional.

- Paisaje costero de interés por presencia de hábitats de interés europeo y taxones de flora amenazada de los municipios de Muskiz, Zierbena y Santurtzi (recogido en las DOT como Área de Zierbena código DOT 010). El PTP lo debe delimitar con rigor e incorporar de forma adecuada la normativa, protegiéndolo de usos indebidos como la explotación forestal intensiva.

- Punto crítico de conectividad ecológica de la A-8. Área del monte Montaño. Es necesario que el PTPBM incorpore la necesidad y previsión de construcción de un ecoducto en el punto crítico de Montaño en la A-8. A situar entre el nudo de la A-8 en Abanto y el inicio de la bajada hacia el puente de la A-8. Esta obra podría acogerse a la financiación de la UE a través de los fondos del programa CEF (Connecting Europe Fcaility, por lo que se propone se incorpore eta

LPPan gehitzea.

- Cotorrio ibaiaren bokalearen naturalizazioa (Barbadunen adarra). Cotorrio ibaiaren desbiderapena, Petronorren eraikuntzaren ondorioz, ingurumeneko gutxieneko irizpideak betetzen ez dituen kanalizazio bat da. BMLPPak, gutxienez, ibai hori Barbadun ibaian duen bokalearen birnaturalizazioa hartu behar du kontuan.

- -Erletxeko puntu kritikoa: proposatzen da ekoduktu bat egitea, Montañokoa bezala finantzatuta.

- -BI-631ren permeabilizazio ekologikoa Derio eta Mungia artean, Mungian ekoduktu bat proposatuz (Bilboko eremu funtzionaletik kanpo).

obra al PTP.

- Naturalización de la desembocadura río Cotorrio (afluente Barbadun). La deviación del río Cotorrio debido a la construcción de Petronor, es una canalización que no cumple con los mínimos criterios ambientales. El PTPBM debe contemplar como mínimo la renaturalización por lo menos de la desembocadura de este río en el río Barbadun.

- -Punto Crítico de Erletxes, se propone construcción de eoducto financiándose como la de Montaño.

- -Permebealización ecológica de la BI-631 entre Derio y Mungia, proponiendo eoducto en Mungia (fuera del área funcional de Bilbao).

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira egindako ekarpenak, eta kontuan hartuko dira BMLPParen hasierako onespenaren dokumentua idaztean.

Eremu funtzionalean dauden Ondare Naturalaren Balioen inguruko alderdi garrantzitsuei dagokienez, aipatzekoa da babestutako espazio naturalak eta garrantzi naturala duten espazioak kontuan hartu direla LPParen aurrerapenean. Babes Berezia kategoria definitzean, irizpide nagusien artean txertatu dira horien araudia eta muga. Aurrerapenak jasotako helburuen artean daude, besteak beste, biodibertsitatea zaintzea

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las aportaciones realizadas y se tendrán en cuenta de cara a la redacción del documento de aprobación inicial del PTPBM.

Respecto a las cuestiones relevantes respecto a Valores del Patrimonio natural existente hay que comentar que los espacios naturales protegidos y aquellos con relevancia natural han sido tenidos en cuenta en el Avance del PTP. Su normativa y delimitación ha sido parte de los principales criterios a la hora de definir la categoría de Especial Protección. El Avance presenta entre sus objetivos, algunos que impulsan la conservación y mejora de la

eta hobetzea eta interes naturalekoak diren espazioak babestea ekarriko dutenak.

LAGetako Interes Naturalistikoko eremuak LPParen aurrerapenean bildu eta kontuan hartu dira, Babes Berezia kategoriaren baitan.

Bestalde, hezeguneak azaleko uren babes berezi gisa txertatu dira, eta horiek Hezeguneen LPSan ezarritako irizpide eta araudia bete beharko dute.

LPParen aurrerapenak xedatzen dituen Ingurumen Hobekuntzarako eremu nagusiak udalez gaindiko planetatik jaso dira; besteak beste, Hezeguneen LPStik eta Itsasertzeko LPStik.

Nolanahi ere den, kontuan hartuko dira horrekin lotutako ezaugarriak, nahiz eta LALak xedatzen duen LPPek LPSek baino lehentasun eta ahalmen handiagoa dutela araudia txertatzeko, derrigorrez bete beharrekotik harago.

Konektibitateari dagokionez, aurrerapenak azpiegitura berdearen proposamena egin du, eremu funtzionalaren konektibitate ekologikoa bultzatzeko. Hurrengo fasean, hots, BMLPParen berrikuspenean, sail honek identifikatutako "puntu beltzak" berrikusiko dira, "ekoduktuen" neurria ahal dela aztertuz eta baloratuz. LPParen barruan hainbat irizpide finkatzeko aukera aztertuko da, LPParen ahalmenaz gaindiko egikaritzea duten lanak gauzatzea sustatuko dutenak, hainbat diru laguntzari eta finantzaketari etekina aterata; esaterako, CEF fondoei.

Ingurumen hobekuntzarako eremuen proposamenean egingo den zehaztasun

biodiversidad y la protección de los espacios con interés natural.

Las áreas de interés naturalístico de las DOT, han sido recogidas y tenidas en cuenta en el Avance del PTP, incluidas dentro de la categoría de Especial Protección.

Por su parte los humedales han sido incluidos como especial protección de aguas superficiales, y su vocación es la de cumplir con los criterios y normativa que ha establecido el PTS de Zonas Húmedas.

Las principales Áreas de Mejora Ambiental que establece el Avance del PTP, han sido recogidas de planes de carácter supramunicipal como el PTS de Zonas Húmedas y Litoral, entre otros.

De todos modos se tendrán en cuenta los aspectos indicados a este respecto, si bien la LOT establece la prevalencia y potestad de los PTP sobre los PTS para la incorporación de normativa, más allá de la de obligado cumplimiento.

En cuanto a la conectividad, el Avance adelanta una propuesta de infraestructura verde para impulsar la conectividad ecológica del área funcional y en la siguiente fase en la revisión del PTPBM se revisarán los "puntos negros" que identifica este departamento, analizando y valorando la posible medida de los "ecoductos". Se estudiará la opción de establecer dentro del PTP criterios que impulsen la realización de obras cuya ejecución excede de la capacidad del PTP, aprovechando subvenciones y financiaciones como los fondos CEF.

Dentro del análisis en conjunto y en mayor detalle que se realizará de la propuesta de

handiagoko azterketa orokorraren baitan, kontuan hartuko da Cotorrio ibaiaren bokalea naturalizatzeko eskaera. Horrekin lotuta, garrantzitsua da azpimarratzea LPParen berrikuspenarekin batera, eremu funtzionaleko Paisaia Katalogoa ere osatuko dela, eta LPPak ingurune fisikorako bildutako oharren/irizpideen eta analisiaren osagarri, katalogoak egingo dituen lurraldearen azterketa eta erabakiak gehituko direla. Katalogo honetan, finkatutako azterketa eta erabakien arabera, ingurumen eta paisaia aldetik egoera hobea lortzeko lehengoratze jardunak beharrezkoak dituzten eremuen hobekuntza eta lehengoratze ekintzak jasoko dira.

zonas de mejora ambiental, se tendrá en cuenta la petición de naturalizar la desembocadura del río Cotorrio. A este respecto es importante incidir en que de forma paralela a la revisión del PTP, se elaborará el Catálogo de Paisaje del área Funcional y que de forma complementaria al análisis y consideraciones/criterios que recoja el PTP para el medio físico, se unirá el estudio y determinaciones del territorio que hará este catálogo. En este Catálogo, y en función de los análisis y determinaciones que se establezcan, se recogerán acciones de mejora y recuperación de zonas que necesiten de actuaciones de regeneración para conseguir su óptimo ambiental y paisajístico.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio

OT-001-2016

| | |
|---|---|
| Iradokizun Zenbakia<br>Sugerencia Nº : | 48 |
| Nork aurkeztu du:<br>Presentada por: | PARTICULAR |
| Aurkezpen data<br>Fecha de presentación: | 20/06/2018 |

GAIA: Bilbo Metropolitarraren LPP Berrikuspenaren Aurrerapena dela eta aurkeztutako iradokizunari erantzuna

ASUNTO: Contestación a la sugerencia presentada al Avance de la Revision del PTP Bilbao Metropolitano

Iradokizunaren laburpena:

- BMLPPan paisaia babesteari lotutako alderdiak bultzatzea eta lurzorua gehiago ez artifizializatzen saiatzea, naturaguneak azpiegitura obra handietatik babestuz. Adibidez, aipatzen da Ganekogorta mendiaren babesa parke eolikoak kokatzearen aurrean, zeinak beste mendi edo gune urbanizatuetan jarri beharko liratekeen (errepikagailuak eta errepideak dituzten mendiak, hala nola Sollube, Jata, Agalario, portu azpiegiturak, etab.).

- Industrialde edo etxebizitza berriak jada urbanizatuta dauden guneetan eraiki behar direla azpimarratu behar da, erabiltzen ez diren instalazioak edo erorita daudenak badaude.

Resumen de la sugerencia:

- Que se potencien en el PTPBM los aspectos relacionados con proteger el paisaje e intentar no artificializar más suelo, protegiendo las zonas naturales de las grandes obras de infraestructuras. Como ejemplo se cita la protección del monte Ganekogorta frente a la ubicación de parques eólicos, que debieran colocarse en otros montes o zonas urbanizadas (montañas con repetidores y carreteras, como Sollube, Jata, Agalario, infraestructuras portuarias, etc.).

- Se debería incidir en construcción de nuevos polígonos industriales y/o viviendas en zonas ya urbanizadas, donde ya hay instalaciones en desuso o en ruina..

Iradokizunaren erantzuna:

Eskertzen dira BMLPParen Aurrerapenari

Contestación a la sugerencia:

Se agradecen las aportaciones realizadas al

egindako ekarpenak, zeinak bat datozen dokumentu honek planteatzen dituen helburu estrategikoekin.

Avance del PTPBM, que se encuentran en línea con los objetivos estratégicos que este documento plantea.

Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
La Dirección General de Cohesión del Territorio